



## Curriculum



#### **ARGITARATZAILEA:**

Mondragon Unibertsitatea  
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

#### **LAGUNTZAILEA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa Saila

#### **ERREDAKZIOA:**

Mondragon Unibertsitatea  
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Dorleta auzoa z/g - 20540 Eskoriatza  
Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032

#### **HELBIDE ELEKTRONIKOA:**

biblioteka.huhezi@mondragon.edu

#### **ZUZENDARITZA:**

Larraitz Ariznabarreta

#### **ERREDAKZIO KONTSEILUA:**

Idurre Alonso, Iulen Arexolaleiba eta Asier Irizar

#### **ERREDAKZIO IDAZKARIA:**

Asier Irizar

#### **ITZULTZAILEA:**

Itziar Otegi

#### **EUSKARA ZUZENTZAILEA:**

Itziar Otegi

#### **DISEINUA:**

Alex Azkarate

#### **IMPRIMATEGIA:**

Antza inprimategia

# #75

2015eko abendua-2016ko urtarrila



## Curriculum



LIBURUEN ERRESEINAK **04**

ZER ESAN DUTE? **06**

KULTURA ONDAREA, CURRICULUMA ETA  
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN  
EZAGUERA JAKINTZA ARLOA **08**

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanitzetan  
jakintza-lerroa. HUHEZI Mondragon Unibertsitatea.

EKINEZ NOR IZATEKO, EUSKAL  
CURRICULUMA **16**

ASIER LAUZURIKA ARRONDO

Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanitzetan  
jakintza-lerroa. HUHEZI Mondragon Unibertsitatea.

ORIOKO CURRICULUMA SORTZEN **32**

IÑIGO GAITON, RUBEN IGLESIAS

Irakasleak. Orioko Curriculum Sortzen taldeko eragileak.

EIDER SALEGI

Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan.  
Jakintza lerroa. HUHEZI Mondragon Unibertsitatea.

NOLAKO HERRIA, HALAKO CURRICULUMA -  
NOLAKO CURRICULUMA, HALAKO HERRIA **44**

JOXE MARI AUZMENDI Hik Hasiko koordinatzailea

# Liburuak



## EDUCACIÓN, MEMORIA E HISTORIA DE LAS MUJERES VASCAS. LECTURAS FEMINISTAS.

### *Intxorta Argitaletxea*

**JULIA MONGE SARABIA** ► Intxorta argitaletxeak liburu berria aurkeztu du: *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*.

Euskal emakumeen memoriaz, hezkuntzaz, historiez eta haien sormen eta berritze gaitasunaz dihardu liburuak, sekula kontatu ez den eta berreskuratu beharra dagoen historian barrena ibilbide bat eginez.

Lehen testuan, **Itziar Rekaldek** 1936. urtera eramango gaitu. Hain zuzen, garai hartako kolpe militarrek errotik moztu zituen ordura arte berdintasunaren aldeko borrokan lortu-

tako aurrerabide guztiak. Gertaera hura erabakigarria izan zen, eta inork pentsatuko ez lituzkeen ondorioak izan zirenen, gainera. Memoria osatu nahian, garai hartako emakumeen borroka berreskuratu du Rekaldek, eta luze-zabal azaldu digu zer egiten zuten, zer pentsatzen zuten eta zer sentitzen zuten emakume haiek. Gerrak aukera bat ekarri al zien emakumeei, eremu publikoan sartzeko?

**Izaskun Orbegozok**, berriz, espetxean egondako emakumeen hezkuntzaren garrantziaz ikertu du. Lehenik, Espainiako estatuan XVII. mendean eraikitako emakume espetxeei buruzko informazioa dakar; gero, Bigarren Errepublikako aldaketei eta erakunde frankisten doktrinatzeko ideologikoari buruzkoa; eta, azkenik, sakonki aztertu du Saturrarango espetxea. Alegia, lotura handia duten baina oso gutxi ikertu diren bi gairi heldu die Orbegozok: emakumeak espetxean eta haien hezkuntza.

**Begoña Gorospek** Euskal Herriko zenbait emakumeren bizikizunak bildu ditu, banakakoak zein taldekakoak, bi garaitan kokatuta: batetik, Bigarren Errepublikan eta gerra garaian, eta, bestetik, gerraondoan eta diktadura frankistan. Azterketa horretan, garrantzi berezia eman dio emakumeek lan munduan izan zuten parte hartzeari. Emakume taldeen jarduerak aztertuta, egileak ondorioztatu du haien parte hartzea funtsezkoa izan zela Euskal Herriko emakumeen emantzipazio prozesuan. Horretarako, hogeitik gora ahozko lekukotasun bildu ditu, indarrez, borroka eta gizartea errotik aldatzeko estrategiez beteriko kontakizun batean.

Noiztik matrikulatu gaitzke emakumeok unibertsitatean, askatasun osoz? Mende bat geroago, emakumeak dira ikasleen % 60 baino gehiago. Ba al dago berdintasunik?

**Pilar Aristizabalek** XVI. mendetik XX. mendera bitarteko Europan kokatu du bere lana: hezkuntza sistemak aztertu, eta, euskal gizartean emakumeak eta irakaskuntzak duten harremana ulertu nahian, hezkuntza mutikoei edo neskatoei begira planifikatzearen eragina ikertu du.

Izan ere, hezkuntza sistemak zerikusi handia du gure genero identitatearen sorreran, eta, hori abiapuntuztat hartuta, beharrezkoa da aztertzea nola antolatzen diren hezkuntza sistemaren oinarriak genero eta kultura guztien errespetua lortzeari begira. Testuliburuak informazio iturri gisa baliatuta, **Karme Perez, Begoña Bilbao eta Gurutze Ezkurdia** ikertzaileek datu kualitatibo eta kuantitatiboak bildu dituzte edukien inguruan: zer irakasten den eta zer ikasten den generoari buruz, eta nola parte hartzen duten gizon eta emakumeek gai horretan. Jartzen al dugu begi bistan zer ekarpen egin eta zer eragin izan duten emakumeek historian zehar? Ala ahaztu egin zaigu historiaren atal bat?

Badira desberdintasunak nor bere gorputzarekin harremanetan jartzeko, espazioak erabiltzeko eta une eta bizikizun jakin batzuk bizitzeko moduetan, eta gorputzaren memorian kodetzen eta, aldi berean, markatzen da hori guztia.

Besteak beste, ondorio horixe erdietsi dute **Karmele Bujan eta Pello Aramendi** ikertzaileek beren lanean. Horretarako, zenbait alderdi aztertu dituzte (eremuak betetzea, gorputza zaintzea, elikadura ohiturak, hazkuntza pertsonala...), eta, gero, memoria motekin (gorputzarena, orokorra, beldurrarena...) lotu dituzte alderdi horiek. Azken emaitza gisa, hezkuntza prozesuetan aplikatzeko estrategiak garatzera eramango gaituzte. **Luz Maceirak** gogoeta feministak memoria sozialean duen balioa nabarmendu du bere lanean. Horretarako, euskal emakumeen esperientzia eta aurrerabideak aurkeztu dizkigu, beren komunitateak ofizialaz gaindiko begirada batetik birpentsatzeari edo gogora ekartzeari begira, eta garrantzi berezia eman dio emakumeek hezkuntzaren esparruan duten gaitasunari eta haien ezinbesteko ekarpen sozialari. Izan ere, memoria soziala, memoriadun emakumeak, emakume oroituak eta memoria lantzeko prozesu kolektiboak, besteak beste, tresna egokiak izan litezke gizarteak beste ahots batzuk entzuten ikas dezan.

Liburuko azken testua **Zaida Fernándezek** idatzia da; hain zuzen, egileak berak sustatzen duen proiektu bati buruzko saiakera bat. Euskal Herriko zenbait herritan egindako talde lan bat da, eta bi helburu ditu: batetik, agerian uztea eta zalantzan jartzea tokiko historia berreskuratzeko lan gehienetan nagusi den androzentrismoa, eta, bestetik, historia hori berrinterpretatzea, emakumeen memoria kolektiboa berreskuratuz eta zabalduz, historia komun, parekide eta inklusibo baten atal bat izan dadin memoria hori.

Hala, gure aurreko garaietako emakumeekiko lotura bilatu nahi dugu, historiak gabetuak izan baitira hainbat aldiz. Haien baliabide eta estrategien balioa nabarmendu, eta periferiatik erdigunera ekarri nahi ditugu: azken batean, hezkuntza prozesuko "eragile aktibo" gisa ikusten baditugu emakumeak, ekitatezko eredu baten alde egitea lortuko dugu.



## KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

*Arizmendi Ikastola*

**AITZIBER ARREGI** ▶ *Konfiantzaren Pedagogia: Arizmendi Ikastolaren markoa* izeneko liburua argitaratu berri du Arizmendi Ikastolak. Hezkuntzan lanean diharduten profesionalei eta gurasoei zuzenduta dago eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioan irakur daiteke, hizkuntza erregistro errazean eta ilustrazio iradokitzaile eta erakargarrien laguntzarekin. Irakurketa modu aktiboan egiteko proposamena egiten zaio gainera hartzaileari. Izan ere, atal bakoitzaren amaieran nor bere oharrak idazteko espazioa eskaintzen baitu liburuak.

Lau atal nagusi ditu. Lehen atalean, liburuari sarrera egiten zaio. Bigarren atalean, hezkuntzak aldaketa puntualetatik harago eraldaketa sistemiko eta disruptiborako duen beharraz dihardu. Hirugarren atalean, Arizmendi Ikastolak Konfiantzaren Pedagogiaz ulertzen duena eta pedagogia hau praktikara eramateko identifikatzen dituen hiru esku hartze-eremuak definitzen dira. Laugarren atalak bi azpiatal ditu. Lehenengoan, Konfiantzaren Pedagogiak nondik edaten duen azaltzen da. Alegia, zeintzuk diren pedagogia hau sostengatzen duten oinarri teorikoak. Eta ondoren, Arizmendi Ikastolak eskaintzen dituen etapa guztietan (Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko zein Lanbide Heziketarainoko etapetan) komunak diren ildo pedagogiko nagusiak deskribatzen dira, hamahiru adierazleren bidez eta lehen aipatutako hiru esku hartze-eremuen baitan.

Uste dut hortxe dagoela Arizmendi Ikastolaren ekarpena. Hezkuntza-erakunde baten baitan egon daitezkeen hezkuntza-eragileentzako (profesionalak, gurasoak, ikasleak) eta hezkuntza-unitate desberdinentzako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza) komuna eta bakarra den marko pedagogikoa definitzeko eta adosteko egin den eta egiten ari den ahalegina. Eta horrekin batera, etxe barruan egiten ari den eraikuntza-lana gainerako hezkuntza-eragileekin partekatze gogoia.

# esan dute

---

Saiatu naiz ikastola XXI. mendean lerrokatzen. Oso helburu garrantzitsua izan da guretzat pertsona ardatz bezala eta ikaslea subjektu aktibo moduan hartzea. Horretarako aldaketa asko egin behar izan dugu. Autoezagutza, autoestima eta autoerregulazioa sustatzen, eta era berean, gatazkak modu baketsuan kudeatzen ikasi behar izan dugu. Ikastetxeko bizimodua erabat aldatu duten proiektuak abian jarri ditugu: sormen proiektua, ahozko adierazpidearena edo pentazitatea, pertsonaren garapena bost eremutan bilatzen duen proiektua. Emozioei asko begiratzen diegu, eta arauak modu positiboan eman behar direla uste dugu. Ez da gauza bera esatea “jotzea debekatuta dago” edo “beharrezkoa da denok ongi moldatzea”.

Mezu baikorrek mezu negatiboek baino errazago alda dezaketela mundua ikasi dugu. Tradizionalki eskoletan oso zuhurrak izan gara zorion mezuak ematerakoan eta horiek izugarritzko indarra ematen diote pertsonari. Dinamika horretan sartzen zarenean ikasle guztiek nahi dute zorionduak izatea, eta ondorioz, beste giro bat sortzen da. Ongi portatzen naiz ez zigorraren beldur, baizik eta konbentzitua nagoelako jarre-

ra on batek ondorio positiboak izanen dituela niretzat eta besteentzat.

JOSU REPARAZ LEIZA,

2015EKO AZAROAREN, 1 ARGIA.

*EAEn izan genuen publikazioaren esperientzia eta oso mingarria izan zen*

---

Euskal curriculumuma egin zen eta eginda dago, baina badirudi itzaliz joan dela. Guk berriro piztu nahi izan dugu, euskal curriculumuma mahai gainean jarri behar dela iruditzen baitzaigu. Euskal curriculumuma badugu, baina, erabiltzen ez bada eta ez badiogu bizia ematen, ia-ia halakorik ez izatea bezalaxe da. Euskal curriculumak zerbait dinamikoa izan behar du, Euskal Herriko ikastetxe guztien elkargune pedagogikoa izan behar du. Hortaz, gure nahia euskal curriculumuma berriro mahai gainera ateratzea izan da.

Gure ibilbidea zeinen positiboa izan den ikusita, beste herri batzuetan ere eredu ere izan nahi dugu. Soraluzen, Oñatin, Durangon, Mutrikun, Getarian, Eibarren... izan gara, eta interesa azaldu dute. Pixkanaka herriz herri horrelako edo antzeko ereduak abian jartzen baditugu, euskal curriculumuma lehen lerrora ekarriko dugu nahitaez.

Azkenik, EHUKo Pedagogia Saileko kideei aurkeztu diegu proiektua, eta ondo balioetsi dute, baita Huhez in ere. Proiektu herritarra izan zedin nahi genuen, baina pedagogikoki ere babesa, aitortza eta sinesgarritasuna izan behar zituen. Hau da, akademikoki ere zer edo zer serioa egin nahi genuen. Azken batean, herriak egin izatea nahi genuen, baina kalitatezkoa izan behar zuen. Eta lortu dugula uste dut.

RUBEN IGLESIAS

Hik Hasi, 200. ALEA. 2015eko UZTAILA. ELKARRIZKETA  
Balioa eman behar zaio herritarrek hezkuntzaz aritzeari eta hezkuntzan zeresana edonork duela jabetzeari

Bizipenezko izaera horretan aipatuko nuke irakasleak zuzenean sortzen duen musikak eragiten duen jarrera positiboa. Ekintzari freskotasuna ematen dio, egunero egiaztatzen dut Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin. Bestetik, gorputza belarri erraldoi bat bihurtzen dela esan daiteke. Izan ere, musikak zuzenean eraginaraziko dio era batean edo bestean jarduteko, hau edo bestea egiteko. Horrez gain irakaslearen esanak ere jarraitu beharko ditu, eta “erreakzio ariketak” deiturikoen bitartez, adibidez, hartzaileak ekintza berriak integratzen joan beharko du.

Dalcroze metodologiaren potentzialtasun eta ezaugarri interesgarri bat da oinarrian dagoen filosofia pedagogiko batetik abiatuz, irakasleak askatasun handia duela ariketak sortzeko, eta bere sormen horrek gidatuko duela jarduna. Dalcroze Erritmika ez da, beste metodologia batzuk bezala, pausoz pauso garatu beharrekoa edota “errezeta metodo” bat. Horregatik,

interesgarria izan ohi da irakasle ezberdinak ezagutzea, bakoitzak bere ukitu pertsonala emango diolako musika ezaugarri bakoitza lantzeari. (...) Genevako irakasleek sarri esaten ziguten moduan “hitzak baino musikak izan behar du adierazpidea, beraz ez korapilatu hitzetan, jo eta musika egin! Umeei jarraituko zaituztete!”

BEÑAT RALLA YUSTA RUBEN IGLESIAS

Hik Hasi, 200. ALEA. 2015eko UZTAILA. ELKARRIZKETA  
Dalcroze erritmika

Hemen eta edozein lekutan, transmisioa etxean, eskolan, gertuko komunitatean... eman izan da. Oso oraintsu arte ahoz egiten zen batez ere transmisio hori eta gaur egun, ahoz ahoko horrez gain birtuala deitzen dugun hori ere badugu, esate batera. Baina garrantzitsua da ohartzea digital hori formatua dela, aurretik datorren zerbaiti, badagoen izateko gogo bati, bide emateko modua dela. (...)

Izateko gogo batek ekarri du euskal kultura gaurdaino eta transmisio hori batez ere bide ez instituzionaletatik gauzatu da, hau da, eskolarik gabe, administrazioerik gabe, edo estatu modernoek beren egiturak birsortzeko dituzten tresna horiek guztiak gabe. Eliza litzateke, izatekotan, transmisio horretan parte hartu duen instituzio bakarretakoa. Izateko gogo hori modu inkonziante batean transmiti liteke, elebarkatasunaren eraginez; baina transmisio hori gauzatu da historian zehar, era berean, euskaldun izateko gogo batek eragindako pertsona eta talde antolatuen bidez.

JULEN AREXOLALEIBA

2010ko MARTXOAREN 28A. LARRUN  
Euskal Kulturaren Transmisioa: Hizkuntza politika ez da hautu pertsonal bat.

# KULTURA ONDAREA, CURRICULUMA ETA NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA JAKINTZA ARLOA

## ► IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanitzetan jakintza-lerroa.  
HUHEZI Mondragon Unibertsitatea

### SARRERA

Etxea izan da, historikoki, transmisio gune garrantzitsuena, baina, dagoeneko hemen ditugun gizarte aldaketan ondorioz, (kultura) transmisioaren ardura hori eskolaren esku laga eta gurasoena larregi hustu da. Izan ere, garai batean, gurasoengandik seme-alabenganako irakaskuntza izan zen jakintza horren oinarria (Perez, Bilbao, Ezkurdia, 2008); gaur, aldiz, kultura baten transmisio funtzioa eskolak bereganatu duen neurrian, hezkuntzaren eta curriculumaren zeregina garrantzitsuagoa bihurtu da euskal kultura oro har eta kultura ondarea zehazki transmititzeko. Beraz, curriculumean ezinbestean txertatu beharrekoa da, gazteak jantzi, kultura baten jabe izan eta komunitate bateko kide sentiarazteko (SORgunea, 2011).

Kultura ondarea gizarte zientzien irakaskuntza-ikasketa prozesuan erreminta indartsua eta eraginkorra izan daitekeela ez da baieztapen berria, eta inork ez du zalantzan jartzen ondare elementuen erabilerak erraztu egiten duela inguratzen gaituen inguruneaz ditugun galdera modu zuzenean erantzutea, hausnartuz eta ondoren ondorioetara ailegatuz gure ingurune soziala nola eraikitzen den hautematea. Horretarako, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloa bidelagun ona izan daiteke Lehen Hezkuntzako irakaskuntza-ikasketarako (Pagés, 1985; Prats, 1996; Bardavio, Iturrate, Bou eta Perez, 1996; Gabardón, 2005; Fontal, 2003; González, 2006).

Artikulu honetan, zera hauteman nahi dugu: kultura ondarearen adierazpenekin eta haren irakaskuntza-ikasketekin lotuta, Lehen Hezkuntzako curriculum ofizialak zer adierazten duen ezagutzeari; eta, zehazkiago, Lehen Hezkuntzako Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloan. Izan ere, pentsatzen dugu jakintza arlo horretan kultura ondareari egiten zaion erreferentzia zehatza izan daitekeela. Beraz, ikusi nahi da ea Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) cu-

riculum ofizialak jakintza arlo horren bitartez erraztu ala oztopatu egiten duen kultura ondarearen erabilera, baina, aldi berean, baita "euskal" kultura ondarearen transmisioari ere nola erreparatzen dion.

Horretarako, 2007ko eta 2010eko dekretu ofizialek kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketaren inguruan esaten dutenetik abiatu gara. Izan ere, 175/2007 Dekretua, hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa, berraztertu eta egokitu egin zen, 2010ean, 97/2010 Dekretuaren bidez.

Aldi berean, uste dugu Lehen Hezkuntzako Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera arloa dela eragiteko esparrua, bertan batera baitaude gizarte zientziak, natura zientziak eta zientzia esperimentalak. Eta diziplinartekotasun horrek, gainera, ikusmira holistiko edo oso batetik, kultura ondarearen garapen didaktikorako espazio propio bat artikulatzen du. Horrek, hala ere, ez du esan nahi beste arlo edo materia batzuk inplikaturik ez daudenik kultura ondarearen curriculumaren artikulazioan. Horrekin guztiarekin, zera azpimarratu nahi dugu: Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloak artikulatzen dituen diziplinetatik batetik bat bideratzen direla ondoen kulturaren ondare-perspektibari buruzko lanak.

Eta ikusmira hori, gainera, ingurunea definitzerakoan indartzen du 175/2007ko Dekretuak; izan ere:

Arlo honek darabilen ingurune kontzeptuak, giza existentziaren testuingurua osatzen duten fenomeno multzoa ez ezik, gizakiek fenomeno-multzo horrekin duten harremana ere adierazten du; horregatik, inguruneak izaera dinamikoa, aldakorra eta burutugabea du. Ikuspegi horretatik, ingurunea, neurri handi batean, gizakiak eraikia da. Ingurunea pertsonen inguruan ageri diren hainbat elementu, gertakari eta faktoreen multzoa da, eta, han, aldi berean, gizakion bizitzak eta



jarduerak esanahia lortzen dute. (Dekretua, 175/2007, laugarren eranskina)

Nahiz eta Cuencaren iritziz (2002) helburuak, edukiak eta ebaluatzeak irizpideak izan curriculumetako atalik garrantzitsuenak dekretuen azterketarako, guk geuk arestian azpimarratutako jakintza arloaren gaitasunak, helburuak eta edukiak ere aztertuko ditugu; zikloka, gainera. Izan ere, gure ustez, hirurak aztertuz, ebaluatzeak irizpideak ere aurreikusten dira.

## LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA

Delors-ekin batera, esan dezakegu curriculuma kultura tresna bat ere badela:

Si los países industrializados pueden ayudar a las naciones en desarrollo compartiendo con ellas sus experiencias positivas, sus tecnologías y sus medios financieros y materiales, a su vez pueden aprender de esos países modos de transmisión del patrimonio cultural, itinerarios de socialización de los niños y, más esencialmente, formas culturales e idiosincrasias diferentes. (Delors, 1996: 29)

Hala ere, Gurutze Ezkurdiak (2004: 77) esaten digu “mundu mailako Lehen Hezkuntzako curriculum ofizialak gero eta antzerakoagoak, estandarizatuagoak direla, bai gaitegiari begira baita eskaintzen zaien ordu kopuruaren batez bestekoan ere”. Eta desberdintasuna, nonbait egotekotan, estatu-nazio bakoitzaren ezaugarrietan datzala ere esaten digu.

Lehen Hezkuntzako etapak, zeinak hezkuntza derrigorrezkoari hasiera ematen dion hain zuzen, ikaslearen zenbait alderdi aintzat hartuz garapen osoa lortzea du helburu, hala nola haren identitate pertsonala eta soziala, bere autonomia inguruarengan eraginez eta ikasteko oinarritzko erremintak bereganatuz lortua. Hori lortzeko, Blanco, Ortega eta Santamartak (2003) dioskute aprobetxatu behar dugula adin horretan umeez euren gertuko errealitateaz duten kezka eta ikerketa esperimentaziorako joera.

Errealitatea, baina, bere aniztasunean eta espazio dimentsio zabalean, eta bere osotasunean bereganatzea ere bada etapa horren nahia, nahiz eta errealitate horren elementu bati erreparatuko diogun ondorengo lerroetan: gertuko kultura ondareari, alegia.

## CURRICULUMAREN ITURBURU SOZIOKULTURALA

Ikastetxean eta, zehazkiago, geletan aplikatuko den curriculum diseinatzean, irakasleek erabakitzen dute zer, noiz eta nola irakatsi/ebalatu. Aldez aurretik, baina, eta azpimarratutako galdera horiei erantzun nahian, oinarritzko curriculum iturburuak erabiltzen dituzte erreferente gisa, eta iturburu bakoitzean zenbait eragile identifikatzen; esate baterako, iturburu psikologikoan, psikologoa da eragile nagusia; pedagogikoan, berriz, pedagogoa, eta, iturburu soziokultural edo epistemologikoan, bukatzeko, adituak eta administrazioa bera.

Iturburu soziokulturalari erreparatuz, gizarteak osatzen duen sistema zabalago baten barruan dago eskola, eta gizarte ho-

rrek emaitzak eskatzen dizkio eskolari, hezkuntza sistemari, eta, horrenbestez, gizarte aldaketak eta ezaugarriak islatzea da curriculum iturriaren nahia. Curriculum iturrian, eskaera sozialak eta kulturalak hauteman daitezke, hots, ezagutza, prozedura, jarrera eta balioen eduki baliagarriak eta haurren sozializazioa errazten dutenak, eta baita gizarte ezagutza eta kultura ondarearen asimilazioa ere. Curriculumak hezkuntzaren xede eta funtzio sozialak hauteman behar ditu, ikasleak parte hartzen duten gizartean eragile aktibo eta arduratsuak izan daitezen (Eusko Jaurilaritza. Hezkuntza saila. OCD, Lehen Hezkuntza, Iturburu Soziokulturala, 1992).

Lehen Hezkuntzako Oinarritzko Curriculum Diseinuak (OCD) zera adierazten digu iturri soziokulturalaren zereginaz (Eusko Jaurilaritza. Hezkuntza saila. OCD, Lehen Hezkuntza, Iturburu Soziokulturala, 1992: 23):

Hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetariko bat, zalantzarik gabe, gizarte batek bere ikasleek ikasi beharrezkotzat jotzen dituen jakiteak transmititzea da, eta oso bereziki, kultur ondare propioa, herri baten dinamika historikoa... Hau dela eta, eskolaren betekizuna izango da euskal kulturaren hezte, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulertuta.

Beraz, paragrafo hori irakurrita, adieraz dezakegu iturburu soziokulturalak garrantzia duela curriculum diseinuan, haren esku baitago kultura ondarearen transmisioa eta eraikuntza; alegia, euskal kulturaren hezte, baina ikuspegi zabal eta integratzaile batekin, ez baztertzailerekin. Hala ere, badirudi, kultura ondarearen osotasunean baino gehiago, euskal historiaren edo ondare historikoaren transmisioan oinarritzen duela bere egitasmo nagusia, beste ondare elementu batzuk saihestuta.

Eta iturri soziokulturalak nongo ikuspegi soziokulturala hartzen du erreferente gisa? Izan ere, 175/2007 Dekretua, hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa, berraztertu eta egokitu egin zen, 2010ean, 97/2010 Dekretuaren bidez. Dekretu berriak ez dakar aldaketarik kultura ondarearen tratamendu pedagogikoari dagokionez; bai, ordea, zenbait unetan, lurralde azterketaren kontzeptuaren eremuari dagokionez, Euskal Herriaren ordezkari edo autonomia erkidegoa aipatzen baita, 2007ko dekretuan aipatzen den Euskal Herria ia-ia zeharo baztertuz. Beharrezkoa da hori aipatzea, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloak elkarrekintza zuzena baitu gure gertuko ingurunearekin —izendatzeko orduan, baina, buruhauste ugari ematen du—, eta, beraz, ingurune soziokulturala eta hegemonikoa era nahasian azaltzen da gure testuliburuetan (Ezkurdi, 2004). Ondorioz, umeez zailtasunak dituzte adierazteko zer testuinguru soziokulturaletan bizi diren.

## LEHEN HEZKUNTZAKO JAKINTZA ARLOAK

Jakintza arloek —irakasgaiekin batera— hezkuntza gaitasun orokorrak dituzte euren barnean, eta oinarritzko gaitasunak lantzea izango dute funtzio. 2007ko dekretuaren I. kapituluaren aipatzen diren xedapen orokorretan aitortzen da hori, printzipio orokorreko hirugarren artikuluko hirugarren paragrafoan:

Oinarritzko Hezkuntzako jakintza arloek eta irakasgaiek beren barnean hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala,

## INGURUNEA GLOBALA DA ETA EZ DA HURBILEKO INGURUAREKIN NAHASI BEHAR; AZKEN HORREK, LEHENENGOAREN PARTE IZANDA ERE, ESANAHI MURRITZAGOA DU

jakintza arloek zein irakasgaiak ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarritzko gaitasun horiek. Jakintza arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak. (Dekretua, 175/2007)

97/2010 Dekretuak, baina, orain aipatu dugun 2007ko dekretuan azaltzen zen printzipio orokorreko hirugarren artikuluko hirugarren paragrafoa kendu du. Hona: "Jakintza arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak". Alegia, Euskal Herriko kultura ondarearen espezifikotasuna desagertu da.

### NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA JAKINTZA ARLOA

Arlo horren interesa arloak berak eskaintzen duen tratamendu pedagogikotik haratago doa; izan ere, hauteman daitekeen bezala, curriculuma intentziaz beteriko dokumentu bat ere bada, eta, hurrek edo etorkizuneko herritarrek jakin behar dutena finkatzeaz gain, eraikuntza sozializat hartu beharra dago. Hori oso garrantzitsua da identitatearen osaketan; Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloari Espainian eskaintzen zaion portzentajeak hori besterik ez du frogatzen: "edukien arloak Estatuak beretzat gordezten du edukien zatirik altuena beste arloekiko, 40rekin 142tik, prozeduretan ere zati handi bat 32rekin 117tik, jarretan ia besteen bikoitza 30ekin 114tik, eta ebaluaketan ere proportzio altuena Gaztelerarekin batera 18rekin 114tik" (Perez Urraza, 2003: 82; Ezkurdia, 2004: 36).

Jakintza arlo horrek eredu integratu bat eskaintzen du etapa honetan, eta, nortasunaren garapena bermatu ahal izateko ezinbestekoa bada ere, ez da hurbilekoarekin nahastu behar, Dekretuak dioen bezala:

Ingurunea globala da eta ez da hurbileko inguruarekin nahasi behar; azken horrek, lehenengoaren parte izanda ere, esanahi murriztagoa du. Hurbileko ingurua pertsonari dago-kion kontzeptua da; hurbilekotzat sumatzen eta sentitzen den ingurunea da. Pertsona hazi eta garatzen den neurrian, haren pertzepzio- eta jardute- ahalmena handitu egiten da gero eta zabalagoak diren eremuetan, eta, horregatik, hurbileko

inguruaren kontzeptua hedatu egiten da denboran eta espazioan. (Eusko Jaurlaritza, OCD, Lehen Hezkuntza, Ingurunearen Ezagutza, 1992: 11; Ezkurdia, 2004: 37)

Beharrezkoa da hori guztia aintzat hartzea, dekretua ingurutzen duen iragana hobeto ulertzeko, oraina baloratzeko eta norberaren nahiz kolektibitatearen etorkizuna eraikitzen ere parte hartzeko. Horrekin, zera esan nahi dugu:

- Ingurunearen ikasketan murgilduta dagoela ikaslea eta, beraz, beraren funtzionamendu mekanismoak zein diren hautematen saiatu, eta era eraginkorragoan bultzatu behar dela ikaslearen pentsamendu kritikoa, horretarako hausnarketarako gaitasunak landuz.

- Tokiko historia duela aztergai; beraz, ikasleak konturatu behar du giza eragileen bitartez mendeetan zehar sortutakoa dela ezagutzen duen ingurua eta errealitatea. Horrekin lortu nahi dena da, baita ere, ikasleak jakin, uler dezala eta interesa dadila berak bizi duen testuinguruaren kezka eta arazoekin, bizi den ingurune edota testuinguru horretan hobeto inplika dadin.

- Kultura ondarearen kontzeptualizazioa eraikitzen laguntzen duela; beraz, norberaren identitate kolektiboa zein den jakin, eta hura baloratzen hasi behar dute. Uste dugu kontzeptu horrek integrazio mezu handiagoa eskaintzen duela, eta, bide batez, oraina lehenarekin osatu dela jakinarazten digu, garaian garaiko pertsonak hartutako erabakiei esker.

### GAITASUNAK

Jakintza arlo horren irakasgaiaren helburuetara jo besterik ez dago ziurtatzeko curriculumak ez duela ahaztu, ezta kontzeptualki ere, lortu nahi dituen hamabi gaitasunetatik bat; bosgarrena, hain zuzen, kultura ondareari atxikitzeari dago-kio: "Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, beti ere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko". (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina)<sup>1</sup>

"Oinarritzko gaitasunak garatzeko jakintza-alor honek egindako ekarpena" atalari begiratu bat eman besterik ez dago konfirmatzeko hemen ere kultura ondareak baduela aipamen zehatza:

Arlo honek honako ekarpen hau egiten dio giza eta arte-kulturarako gaitasunari: adierazpen kulturalak ezagutzea, haien aniztasuna balioestea eta kultura-ondarearen adierazpenak

<sup>1</sup> Dena dela, 'ondare' kontzeptua curriculumetan ez azaltzeak edo epel azaltzeak ez luke adierazi behar geografiako, historiako eta gizarte zientzietako beste diziplinetako eduki kontzeptualetan, prozeduretan eta jarreretan lantzen ez denik; alegia, ondarearekiko errespetua eta kontserbazio beharrak adierazten ez direnik, edo garai bateko lekuko eta aniztasun kultural eta sozial gisa aintzat hartzen ez denik. Hala ere, alderantziz, azpimarratu beharko litzateke 'ondare' kontzeptua irmotasunez aipatuta azaltzen bada ez duela adierazi nahi gure eskola programetan integratuta egon daitekeenik, Gonzalez eta Pagès-ek (2003) dioskuten bezala.





aintzat hartzea eta gozatzea. Hortaz, haiek defendatzearen eta zaintzearen alde egiten du. Horrez gainera, aitortzen da gure historia gizonek eta emakumeek batera lortutako aberastasunaren eta hainbat herri eta kulturak mendeetan zehar egindako ekarpenen emaitza dela. (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina)

Beraz, konfirma daiteke jakintza arlo horrek bultzatu nahi dituen gaitasunetan kultura ondareak duen garrantziaz jabetu eta haren adierazpenak ezagutu eta baloratu behar direla, baina gozamina ere ahazteke. Hori bai, aurreko lerroetan hauteman duguna errepikatuz, “euska” etiketa barik, Euskal Autonomia Erkidegoan egon daitezkeen identitate eta sentsibilitate guztien biltoki bat balitz bezala ulertuta edo.

## HELBURUAK

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloko helburuei erreparatuz gero, esan daiteke bosgarren helburuan azaltzen dela esplizituki kultura ondarearen aipamena, nahiz eta gainontzekoetan beste adierazpen batzuk ere zeharka goraiatu.

Hala, lehen helburuan, identitate jiteak hartzen du garrantzia (ondoren, 12. helburuarekin ere indartuko da), eta jarrerazko osagarriari ematen dio batik bat garrantzia. Zera esaten du Dekretuak lehen helburuari dagokionez: “Berezko ezaugarriak dituzten gizarte- eta kultura-taldeetako kide-izatea onartzea eta aintzat hartzea; norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Hirugarren helburuak, berriz, eta jakintza arloaren ikuspegi globalaren sena indartu nahian, naturaren, gizartearen eta kulturaren elementu nagusiak identifikatzean ezartzen du

batik bat arreta —ondare natural eta kulturean, alegia—, eta, azken hori bere osotasunean ulertuta, horri erreparatuta. Kontzeptu, prozedura eta jarrerazko elementuak konbinatzen ditu helburu horrek. Zera dio Dekretuak: “Euskal Herriko natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen elementu nagusiak identifikatzea; ingurunearen antolaketa, ezaugarriak eta harremanak aztertzea eta ingurumenari zein bizi-kalitateari buruzko erabakiak hartu eta ulertzea, gero eta konplexuagoak diren espazio-eremuen ezagueran aurrera egiteko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Atal honen hasieran esan bezala, bosgarrenean, bada, kultura ondarearen aipamena zuzena da, baina ikusmira naturalari gehiago erreparatuz egiten da adierazpena. Jarrerazko ikusmira du helburu horrek. Zera dio Dekretuak: “Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Seigarrenak ikuspegi globalari ere erreparatzen dio, eta, orduan, ondare historikoari ere aplikatu diezaiotegu balioa; hala, jarrera nahiz prozedura mailako ikusmira du. Hau dio Dekretuak: “Ikaslearen inguruko natura, gizarte- eta kultura-ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldibereotasun- eta segida-harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Zazpigarrena, errealitatearen ikuspegi global horrekin jarraituz, ondare elementu guztiei aplikatu dakieke; prozedurazko ikusmira du helburuak: “Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune-ko egitate, kontzeptu eta prozesuak zenbakizko kodeen, grafikoaren eta kode kartografiakoaren bidez interpretatu, adie-

razi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta bestelakoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Zortzigarrenak ere ez du esplizituki adierazten kultura ondarea, ezta kultura bera ere, baina haren erreferentziak atxiki dakizkioke, ingurune hurbileko aipamena eginez aztergai bihur baitaitezke elementu esanguratsuenak. Prozedura ikusmira duen helburu baten aurrean gaude: “Ingurune hurbileko elementu esanguratsuekin lotutako galdera eta arazoak identifikatu, pentsatu eta konpontzea, informazioa tratatzeko eta bilatzeko estrategiak erabiliz, hipotesiak adieraziz, eta horiek frogatuz, irtenbide alternatiboak aztertzeko eta ikas-kuntza-prozesuari berari buruz hausnartzeko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Hamargarrenak zeharkako eragina du edozein jakintza arlo, gai edo proiektutan, eta baita kultura ondarearen azterketan ere; izan ere, “informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea” ezinbestekoa da gaur egun (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina)

Bukatzeko, hamabigarrenean, lehen helburuaren osagarri, identitate elementuan erreparaten da. Prozedura eta jarrera ikusmira du helburu horrek: “Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko” (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

## EDUKIAK

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloa, bada, gune integratzaile bihurtzen da, eta baita etapako ikasketa guztien gune ere (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina). Hala, kultura ondarearen ikasketa bera ere arlo horren edukien ezagutzetan integratzen da, baita prozedurazkoetan eta bere balio eta defentsan garatu behar diren jarrerazkoetan ere.

Jakintza arlo horren barruan, zazpi eduki multzo ikus daitezke: 1) *Ingurunea eta hura zainaraztea*. 2) *Izaki bizidunen aniztasuna*. 3) *Osasuna eta garapen pertsonala*. 4) *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*. 5) *Aldaketak denboran zehar*. 6) *Materia eta Energia*. 7) *Objektuak, makinak eta teknologiak* (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

Esan beharra dago Lehen Hezkuntzara zuzenduta dauden zazpi eduki multzoetatik hauek interesatzen zaizkigula batik batik gure helburuetarako: lehena, *Ingurunea eta hura zainaraztea*; bigarrena, *Izaki bizidunen aniztasuna*; laugarrena, *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*, eta bosgarrena, *Aldaketak denboran zehar*. Izan ere, batzuetan zein besteetan, kultura ondarearen garapenerako elementuak aurki daitezke, ondorengo lerrootan ikusi ahal izango den bezala. Lehenean eta bigarrenean, natura ondare ezaugarriekin bat egin daiteke; gainontzekoetan, kultura ondarearen barnean dauden beste elementuekin ere bat egin daiteke: ondare historiko, artistiko, etnografiko, dokumental, zientifiko eta teknologikoarekin.

Eta, eduki multzoetan egindako azterketa zehatz esplizitu baten bidez, posible da esatea kultura ondarearen hitzez-hitzezko aipamen sendorik azaltzen ez bada ere kultura ondarearen garrantzia hauteman daitekeela zeharka zikloetako zenbait eduki multzoetan, kultura ondarearen ondare elementu bat baino gehiago azalarazten baitira.

Hala, eduki multzoak aintzat hartuta, posible da ondorio hauek ateratzea jakintza arlo horrekin lotuta:

Natura ondareari dagokionez, lehendabiziko eduki multzoak *-Ingurunea eta hura irauaraztea* eta *Izaki bizidunak-* dira aproposak hura lantzeko. Izan ere, gertukoak ditugun elementu fisiko eta naturalak, izaki bizidunak -edo zehazkiago esanda: *ekosistemak, paisaia motak, erliebea, landaretza, fauna, ibai-errekak, klima...*- azter daitezke, etapa honetarako prozedurazko eta jarrerazko eduki ugari erabiliz: *espe-rientzia errazak egitea; behatzea; irtenaldiak egitea; errespetatzea; defendatzea...*

Kultura ondareak jakintza arlo horretan hartzen duen beste jite bat identitatearena da. Eta, *Pertsonak, Kulturak eta gizarte-antolaketa* multzoan, norberaren identitatearen nahiz kolektibitateko partaide gisako identitatearen eraketarako lagungarriak izango diren elementuak hauteman daitezke: *pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza, kultura adierazpenak, egungo ohiturak, tradizioak, hizkuntza, harreman motak, lurralde antolakuntza...* Hemen ere, ugariak dira hura lantzeko prozedurak eta jarrerak: *harremanak eta parte hartzea; adierazpenak; errespetua lantzea...*

Hala ere, bosgarren eduki multzoan (*Aldaketak denboran zehar*) jorratzen du kultura ondareak bere ikuspegiak zabalena, bere barnean ondare osagarri gehientsuenak —etnografikoak, historikoak, biografikoak eta dokumentalak nahiz artistikoak tartean— eskainita. Multzo horretan, historia eta kultura ondareari aipamen zehatza egiten zaio, hirugarren zikloan. Jarreretan, *errespetu eta sentsibilizazio* jarrerak bultzatzen dira, eta lortu nahi direnak *prozedura aktibo, kritiko eta parte hartzean* oinarritzen dira.

Beraz, esan genezake Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloak badituela, eduki multzoei dagokionez, ondare elementu interesgarriak, gertuko kultura ondarea transmititzeko eta eraikitzeko.

Espazio tratamenduari dagokionez, Euskadi, Espainia eta zenbait gizarteren ezaugarriak aipatzen dira lurralde erreferente gisa. Baina, hor ere, 2007koaren ‘Euskal Herri’ kontzeptua ‘Euskadi’ kontzeptuarekin ordezkatzen du 2010eko dekretuak.

## ONDORIOAK

EAEko hezkuntza curriculum ofizialarekin bat egin nahi izan dugu, eta identifikatu eta jakin kultura ondarearen hautematea, lanketa eta sustapena nolakoa den Lehen Hezkuntzako Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloan. Egindako azterketek zenbait ondoriotara garamatzaite, eta era honetara laburbildu ditugu:

Hezkuntza curriculumaren osaketan, iturburu soziokulturalaren ekarpena garrantzitsua izaten da, hark adierazten baitigu inguru soziokultural bateko zer nortasun ezaugarri hartu behar diren aintzat ondoren curriculum zehaztapenak egiteko orduan. Lehen Hezkuntzakoan ere bai, eta, bertan, iturburua argia da hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetakoa kultura ondare propioa transmititzea dela adierazten duenean; hori bai, irekia eta integratzailea izan behar du.

Hezkuntzan transmititu nahi den errealitatearen ikuspegi soziokulturala betidanik izan da eztabaidatua politika eta hezkuntza eragileon artean. Horren isla da 175/2007 Dekretu onartua 97/2010 Dekretuaren bidez berraztertu eta egokitu izana, batik bat 'Euskal Herria' kontzeptuak izan zezakeen irakurketa politikoa saihestuz eta hura 'Euskadi' edo/eta 'Autonomia Erkidego' kontzeptuekin ordezkatuz. Beraz, 2007ko dekretuan azaltzen zen euskal errealitatearen ikuspegi soziokulturala aldatzea ekarri du horrek; eta, aldaketa horren adierazpenak Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera jakintza arloan hauteman badaitezke ere batik bat, Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura jakintza arloan ere hautematen dira. Beraz, atal honen hasieran Ezkurdiak (2004) esandako ideia konfirmatzen du horrek; alegia, ingurune soziokulturala eta hegemonikoa den tirabira horretan jarraitzen dugula, eta ez soilik testuliburuetan nahasia azaltzen delako errealitate hori, baizik eta curriculumak berak ere modu nahasian adierazten duelako. Beraz, nahasmen horrek ikasleengan identitatea ulertzeko arazoak ere sor ditzakeelakoan gaude, eta, ondare hezkuntzaren prozesuan (Martin eta Cuenca, 2011) elementu garrantzitsuena izanik, kultura ondare kolektibo batekin uztartzeko arazoak besterik ez luke sortuko adierazpen nahasi horrek. Beraz, egoera horri aurre egiteko, bat gatoz Zabaletak (2000) dionarekin; alegia, estaturik gabeko nazioetan hezkuntza sistema nazionalik ez egoteak legitimazio tresna indar baten falta dakarrela eta, ondorioz, estatuaren hezkuntza sistemaren eraginari aurre egin behar diogula. Esan nahi dugu hezkuntza sistema propioa lortu ezean zaila izango dela identitatearekin loturiko definizio horiek konpontzea.

Curriculumek kultura ondareaz dihardutenean, joera dago kontzeptua beste ondare elementu desberdinekin nahasirik azaltzeko, eta ondare mota askoren bilgune bihurtzen da 'ondarea' kontzeptua. Beraz, curriculum ofizialak ez du bere osotasunean, modu globalean edo modu holistikotan hartzen kultura ondarea kontzeptua, baizik eta ondare elementu desberdinak erabiliz sailkatzen ditu: natura, historia, artea, zientzia eta teknologia, hizkuntza, literatura, kantuak, dantzak, jolasak eta kultura ondarea, esate baterako.

Oinarrizko gaitasunetan, 'giza eta arte kulturarako' gaitasunarekin bat dator kultura eta arte adierazpenak (musika, literatura, ikus arteak eta eszena arteak...) ezagutzea, ulertzea, balioestea eta baloratzea, eta baita kultura ondareko obra eta adierazpen nagusiak ezagutzea eta, aldi berean, norberaren komunitateko kultura eta arte ondarea kontserbatzea ere. Ikusten den bezala, kultura ondareak ez du ikuspegi osorik, holistikorik, eta joera dago zenbait arte motaren adierazpenetatik bereizteko. Gainera, azpimarratzen bada ere zer ulertzen duen arte adierazpenari

buruz, kultura adierazpenei buruz ez du argibiderik ematen. Hala ere, ondoriozta dezakeguna da oinarrizko gaitasunetan kultura ondarearen ikasketarako kokapen naturala dela *giza eta arte kulturarako* gaitasuna.

Oinarrizko hezkuntzaren helburuetan, identitatearen gaiak ere aldakorra eta nahasia izaten jarraitzen du; izan ere, 2007ko curriculumean aipatzen ziren "euskal herritar" eta "identitate anizkun" kontzeptuak ezabatzen ditu 2010eko curriculumak. Aldi berean, ondarearen aipamena zabala da, kultura bera, historia, artea, natura, hizkuntza, zientzia eta teknologia eta halakoak sar baitaitezke ondarearen elementuen barnean: 'elkarrekin bizitzen ikastea' (*Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte eta kultura ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea*), edo zeharka 'arduraz bizitzen ikastea' (*natura ondarearen balioespena eta gozamina*), 'ikasten/pentsatzen ikastea' (*zientzia eta teknologiaren garapena*) eta 'komunikatzen ikastea' (*hizkuntza aniztasunaren errespetua*). Beraz, ondorio gisa, iruditzen zaigu 2010eko curriculumean identitateari ematen zaion tratamendua okerra dela, iruditzen baitzaigu gureak identitate integratzaile bat izan behar duela. Esan nahi dugu norberarena ezagutzeko eta aitortuz beste kulturekiko ezagutzeko partekatu behar dugula, haiek ere errespetatuz. Horrela lor genezake kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia izatea (Reyes, Artega, Jevey, 2003). Honez gain, ondorioztatzen da kultura ondareak ez duela ikuspegi holistikorik, baizik eta bana-banako ondare elementuak hartzen direla erreferentzia gisa.

Lehen Hezkuntzako jakintza arloei eta irakasgaiei dagokionez, hautematen da badirela arazoak curriculumaren barnean identitatea definitzeko. Izan ere, 2010eko Dekretuak 2007koak ezabatzen ditu, Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte eta kultura ondare propioa eta berezkoari dagozkionetan. Beraz, lehen bezala, orain ere, uste dugu norbanakoaren eta kolektiboaren identitatea ulertzeko eta ezartzeko oztopoak eta nahasmenak besterik ez duela ekartzen aldaketa horrek. Ondorioz, baita kultura ondarearen espezifikotasunak identifikatzeko eta ulertzeko ere.

*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera* jakintza arloak kultura ondareari egiten dizkion ekarpenak direla eta, bai gaitasunetan azaltzeagatik (*kultura ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko*), bai 'giza eta arte kultura' oinarrizko gaitasunari egiten dion ekarpenagatik (*kultura ondarearen adierazpenak aintzat hartzea eta gauzatzea*), eta baita jakintza arloaren bosgarren helburuan egiten duen aipamenarengatik ere (*kultura ondarearen zaintzaren aldeko jokabideak bultzatzeko*), esan genezake presentzia oso garrantzitsua duela jakintza arlo honetan. Hala ere, uste dugu ez dagoela batere garbi zer zentzu eman nahi dion kultura ondareari: holistikoa, globala ala partziala. Beraz, kontzeptua bera argitu beharra dago, benetan ulertzeko zer ekarpen egiten dion jakintza arlo horrek kultura ondareari.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

BARDAVIO, A., ITURRATE, G., BOU, N. ETA PEREZ, X. (1996). *Les fonts en les ciències socials*. Col. Biblioteca de Guix, 105.artzelona: Ed. Graó.

BLANCO, P., ORTEGA, D. ETA SANTAMARTA, J. (2003). El tra-

- tamiento del patrimonio en el currículum de la educación primaria. Realidades y desafíos. In: E. Ballesteros eta beste batzuk (koord.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (71-80). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- CUENCA, J. M. (2002).** *El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales. Análisis de concepciones, dificultades y obstáculos para su integración en la enseñanza obligatoria.* Doktorego tesia. Huelva: Universidad de Huelva, Departamento de Didáctica de las Ciencias y Filosofía.
- DEKRETUA: 175/2007, URRIAREN 16KOA,** Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2007ko azaroaren 13a, 218. zk.
- DEKRETUA: 97/2010, MARTXOAREN 30EKOA,** Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena. Iturria: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2010eko apirilaren 20a, 72. zk.
- DELORS, J. (1996).** *La educación encierra un tesoro. Informe de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI.* UNESCO.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA (1992A).** *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Iturburu soziokulturalak.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA (1992B).** *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Ingurunearen Ezagutza.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA (D/G).** *Oinarrizko gaitasunak EAEko Hezkuntza Sistematan.* [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/orientaciones\\_mat\\_ayuda/G00E.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/orientaciones_mat_ayuda/G00E.pdf). 2011ko irailaren 5ean kontsultatua.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (1992).** *Diseño Curricular Base. Educación Primaria. Conocimiento del Medio. Matemáticas. Educación Física. Educación Artística.* Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones. Eusko Jaurlaritzza.
- EZKURDIA, G. (2004A).** *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean.* Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- EZKURDIA, G. (2004B).** *Curriculum eta Ingurunea Euskal Herrian.* Donostia: Utriusque Vasconiae.
- FONTAL, O. (2003).** *La educación patrimonial. Teoría y práctica en el aula, el museo e internet.* Gijón: TREA.
- GABARDÓN DE LA BANDA, J.F. (2005).** *La enseñanza del patrimonio. Propuestas educativas en torno al patrimonio local. Investigación en la escuela,* 56, 87-93.
- GONZÁLEZ, N. (2006).** *L'ús didàctic i el valor educatiu del patrimoni cultural.* Departament de Didàctica de la Llengua i la Literatura i de las Ciències Socials. Doktorego tesia. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- GONZÁLEZ, N. ETA PAGÉS, J. (2003).** *La presencia del patrimonio en los currículos de historia y ciencias sociales de la enseñanza obligatoria.* In: E. Ballesteros eta beste batzuk (koord.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (123-141). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- MARTÍN, M. J. ETA CUENCA, J. M. (2011).** *La enseñanza y el aprendizaje del patrimonio en los museos: la perspectiva de los gestores [bertsio elektronikoa].* Revista de Psicodidáctica, 16 (1), 99-122.
- PAGÉS, J. (1985).** *Las ciències socials i l'estudi del medi.* Perspectiva Escolar, 92, 12-17.
- PEREZ URRAZA, K. (2003).** *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan.* Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PRATS, J. (1988).** *La historia local: notas para una metodología.* *Apuntes de Educación. Ciencias Sociales,* 29, 2-4.
- PRATS, J. (1996).** *El estudio de la historia local como opción didáctica ¿destruir o explicar la historia?* *Iber,* 8, 93-105.
- REYES, J.I., ARTEAGA, F. ETA JEVEY, A.F. (2003).** *La enseñanza de los valores patrimoniales en la enseñanza primaria en Cuba.* In: E. Ballesteros eta beste batzuk (koord.), *El patrimonio y la didáctica de las Ciencias Sociales* (137-138). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- SORGUNEA IKERTEGIA (2010).** *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan.* <http://www.mondragon.edu/eu/ekt/ikerketa>. 2011ko apirilaren 5ean kontsultatua.
- ZABALETA, I. (2000).** *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera.* Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

# EKINEZ NOR IZATEKO, EUSKAL CURRICULUMA

Edo euskahaldun gisa subjektu eraldatzaile izateko marko kultural eta pedagogikoa

## ASIER LAUZURIKA ARRONDO

Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanitzetan jakintza-lerroa.

HUHEZI Mondragon Unibertsitatea

### SARRERA

Urteak joan dira Udalbiltzaren, Sortzen-Ikasbatuaz<sup>1</sup> eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen ekimenari esker "Euskal Curriculum" egitasmoa eraikitzeke prozesu parte hartzailea martxan jarri eta "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum" oinarritzko txostena osatu zenetik. Prozesu horrek ekarpen garrantzitsua egin zion euskal hezkuntzaren eraikuntza prozesuari, zeina urteetan zehar egin den eta egiten jarraitzen den. Euskal Herritik, Euskal Herrirako marko kultural eta pedagogiko propioa osatu zen, ikasle batek 16 urterekin XXI. mendeko Euskal Herrian gizaki, gizartekide eta izadikide gisa jarduteko beharrezkoak dituen konpetentziak zehazteko.

Gaur egun, inork gutxi jarriko du zalantzan konpetentzietan oinarriturik euskal kulturaren eta euskararen transmisioa eta birsortzea xede dituen proposamen pedagogikorik. Inork gutxi jartzen ditu zalantzan egun hamaika ikastaro eta prestakuntza eskaintzen dituzten pedagogia aktibo berriak ere. Euskal gizartea asko aldatu da azken hamarkadetan. Gero eta aldakorragoa, askotarikoagoa eta aurreikusi ezinekoa den gizarte honetan, argi dago eskola tradizionalak ez duela ikasle "konpetente"rik prestatzen. Horren harira, estrategia metodologiko, material didaktiko eta proiektu berri asko jarri dira martxan gure herriko eskola eta ikastoletan. Bide beretik, ustez euskararen eta euskal kulturaren aldeko atxikimendua suspertu den honetan, horren lanketarako unitate didaktiko, proiektu eta ekimen ugari jarri dira martxan. Eta, ildo berean, badira "euskal" eta "curriculum" hitzak biltzen dituzten proposamenak ere, izen antzekoa izanik ere oso izate desberdinekoak direnak. Hezkuntza eremu formal zein ez formalean lanean buru-belarri dabilten hezkuntza komunitateko kideen lana gutxiesteko inolako asmorik gabe (eta izugarriko lana egiten dela onartuta), esan dezakegu terminologia nahasiko eta kontzeptu argirik gabeko "aktibismo pedagogiko"ak bizi gaituela. Berritzeko nahiak bultzaturik etengabe egiteko beharrak bultzatzen gaitu.

<sup>1</sup> 2012an eginiko gogoeta prozesuaren ondotik, "Sortzen" izena berreskuratu zuen hezkuntza eragile horrek.

Etengabeko egite horretan, gauzak zergatik eta zertarako egiten ditugun galdetzeari utzi diogu. "Oso ohituta gaude alde zurretik oso mugatuta dauden erantzunak jasotzeko galderak entzuten: ados zaude honekin bai ala ez? Zer egingo dugu, hau ala hori? Galdera batzuk galdu egin dira; esate baterako, zergatik eta zertarako egiten diren gauzak. Hori ez da planteatu ere egiten; proiektuak egin eta egin, baina zertarako diren galdetu ere egin gabe. Jendea aktibismoz jota dago, baina paradoxikoki, aktibismo horrek ez die poztasun handirik ematen, lana baizik, itolarria" (*Hik Hasi*, 2003: 11).

Geure buruari ere galdetu beharko genioke ez ote garen ari errepikatzen "zelofanezko paper koloretsuetan bilduta eta hizkuntza teknikoz eta neutroz itxuratuta" datorren hezkuntza eredu zaharberri bateko eskola praktikak. Horri guztiari "ez zaio faltako, ez, (...) marketin primerakorik ezta markarik markakoenen xarmarik, inozo denok amua irents dezagun" (Fernandez, Medrano & Serna, d.g.: 7).

Testuinguru horretan, muina eta azala bereizi, eta muinera jo beharko dugu.

Jarraian datorren hausnarketaren xedea Euskal Curriculumaren izenetik izanera igaro eta eztabaidaren muinari heltzea da. "Zergatik eta zertarako Euskal Curriculum" galderaren inguruan hausnartzea, alegia. Eta, bide batez, zenbait aurrebide proposatzea aspaldi hasitako eraikuntza lan horri eta 2 urtez eragile eta herritarren ekarpena jaso ondoren 2008. urtean aurkeztutako egitasmoari jarraipena emateko.

Horretarako, lau atal jorratuko ditugu, hurrenez hurren:

- Curriculumaren esanahiaz: curriculumaren eta boterearen arteko harremana aztertuz, curriculumaren kontzeptuaren atzean dagoenaren inguruko hausnarketa plaza-ratuko dugu.
- Nor izateko curriculum: bagara nor. Curriculumaren iden-



titatea eraikitzeo oinarritzko erreferente komun izanik, prozesu horren inguruan, eta gurean euskal nortasunaz ulertzen dugunaz eta haren erreferenteez hausnartuko dugu.

- Ekiteko curriculuma: egiten duguna gara. Ekiteko ekintzaren bidezko ikaste prozesutik eta kompetentzien inguruko ikuspegi instrumentalistatik harago, subjektu eraldatzaileak sortzearen inguruan hausnartuko dugu.
- Ekinez nor izateko marko pedagogikoa: Euskal Curriculum. 2008an aurkeztutako egitasmoaren egungo egoera eta aurrera begirako urrats posibleak azalduz itxiko dugu testua.

## 1. CURRICULUMAREN ESANAHIAZ

### *Curriculum Vitae-a esku artean*

Azken urteetan, herririk herri dabilta hainbat oriotar, Orion herri prozesu baten ostean eraikitako "Orioko Herri Curriculum" proiektuaren nondik norakoak azaltzen. Aipaturiko proiektu horren inguruko lan saioetako batean, honako pasadizo hau entzun genuen: proiektuaren hastapenetan, herritarren prozesura batzeko asmoarekin, batzar ireki bat antolatu zuten. Batzarraren deialdia zabaltzeko, Orioko Curriculumaren inguruko afixak itsatsi zituzten, herriko hormetan. Hara non agertzen den arrantza ohi bat batzarraren egunean, bere curriculuma eskuetan zekarrela.

Edonork pentsa dezake pasadizo horretan gertatutakoa zaila litzatekeela hezkuntza komunitatea osatzen duten kideen artean. Hala ere, noraino ez ote gara gu ere ibiltzen sarri askotan curriculum vitae-a eskuetan, hezkuntza curriculumaz ari garelakoan? Hezkuntzaren xedeak, lortu beharreko konpetentziak (edo barneratu beharreko edukia), haiek garatzeko proposamen metodologikoak eta haiek ebaluatzeko bideak neutroak direlakoan; ez ote diogu esaten marko pedagogiko gizartearen produkzioan eta erreproduzioan berebiziko garrantzia duen marko ideologikoari? Curriculumaz ulertzen dugun hori argitu beharko dugu, hortaz, Euskal Curriculumaz edo dena delakoaz hitz egin aurretik.

### *Curriculum: edukiak, metodologiak eta ideologiak*

Hortaz, zer da curriculum? "Autore batzuentzat, Taylor eta Richards, nahiz Engler, edo Gagné-rentzat –Escudero-k 1999an edo Ruiz-ek 1996an aipatzen dituzte–, curriculum eta eskolan landu behar diren edukia gauza bera lirateke" (Bilbao, 2003: 31-32); hortaz, irakatsi eta ikasi beharreko guztiaren antolaketa litzateke curriculum. Beste autore batzuek eguneroko praktikaren abiapuntu izango den proiektutzat dute curriculum, ikasi/irakatsi beharrekoari baliabide material zein metodologikoak gehitzea. Curriculumaren ikuspegi teknologiko zein interpretatzailean koka ditzakegu azalpen horiek; alegia, ez digute azaltzen zer dagoen horren atzean. Pentsa dezakegu marko horretan biltzen diren ikas/irakasgaiak, baliabide material eta metodologikoak objektiboak direla, zientifiko-naturalak diren eta norbanakoaren garapenari lotzen zaizkien neurrian.

## HERRITARRAK BATZEKO ASMOAREKIN, BATZAR IREKI BAT ANTOLATU ZUTEN. DEIALDIA ZABALTZEKO, AFIXAK ITSATSI ZITUZTEN HERRIKO HORMETAN. HARA NON AGERTZEN DEN ARRANTZALE OHI BAT BATZARREAN, BERE CURRICULUMA ESKUETAN ZEKARRELA.

Bada, ordea, "aurrekoen objektibotasun faltsua" gaitzetsi eta "ezagutza emantzipatzailea planteatzen" duen proposamenik (Bilbao, 2003: 27). Curriculumaren ikuspegi kritikoa jarraituz, "curriculum historiaren eta gizartearen produktua da, produktu aldakorra, giza teoria guztiak aldatzen diren erakoa (...). Gizartearen kontrolerako tresna ere bada, gizarteak berak ezartzen duelako eta erabili egiten duelako gazteen hezkuntza prozesuak bideratzeko" (Bilbao, 2003: 31-32).

### *Curriculum teoria kritikotik*

Bernstein, Apple, Willis Bowles, Gintis, Giroux eta halako autoreek "curriculum harreman zuzen-zuzenean jartzen dute boterearekin eta kontrolarekin" (Iztueta, 2002: 9). Ikuspegi horretatik, "gizarte batek publikotzat daukan hezkuntza-ezagutza nola sailkatzen, banatzen, transmititzen eta ebaluatzen" den aztertutik [alegia, curriculum aztertutik], "boterea eta honen banaketa eta gizarte kontrolerako printzipioak ere nolakoak diren" ondorioztatuko dugu.

Curriculum, beraz, "ez da neutrala, ez eta objektiboa ere, hezkuntza eta irakaskuntza ez diren moduan (...) beti dauka interes eta baloreak jokoan" (Bilbao, 2003: 26-27), eta, interes horien arabera, eskolan eta, haren barruan, curriculumean, eduki batzuk aukeratzen dira irakasteko. Ezagutzaren izaera zientifiko/objektiboa aldarrikatzen dutenei dagokienez, ikuspegi kritikotik esan dezakegu "curriculumean islatutako ezagutza, ezagutza berezia dela, hautatua, talde hegemonikoek hautatua, hain zuen" (Ezkurdia, 2004: 28). Haren bidez, ezagutza bat "benetakotzat" jotzetik harago, ezagutza batzuk zilegitzat jotzen dira, zenbait prozeduraren bidez, eta beste batzuk, aldiz, ez zilegitzat epaituak dira (Apple; Weis, 2001; 144 in Ezkurdia, 2004: 28). Apple eta Weisen ildotik Ezkurdia aipatzen dituen ezagutza zilegiztatuarekin batera aipa ditzakegu ekiteko moduak (kompetentziak), erreferente kulturalak, hizkuntza jarrerak, lurralde ikuspegiak eta haiekin eraikitzen diren identitateak ere. Alegia: "eskolan garatzen den curriculum, gizartearen ideologia nagusiaren isla izanik, ideologikoki eraikia dago. (...) Finean, curriculumaren bidez,

eskolak, ikuspuntu konkretuak zabaltzen ditu, eta ikuspuntu horiek distortsionatuta egonik ere *normalak*<sup>2</sup> balira bezala onartzen ditugu” (Bilbao, 2003: 27-28).

“Normaltasun” hori inolako gatazkarik gabe barneratu eta onartzera garamatza, hain zuzen, gizarte arau ezarriak. “Normaltasun” horrek bermatzen du botere ezarri baten baitako zilegitasuna, kohesioa eta kontsentsua (Carbonell, 1996: 36-40). Boterea egituratzeko eta hezkuntza sistema arautzeko tresna juridiko administratiboa estatua dela aintzat harturik, esan dezakegu “Estatuak bere boterearen eraikuntza eta mantenurako erabiltzen dituen sistematariko bat hezkuntza sistema” dela (Bilbao, 2003: 31-32), eta curriculuma da sistema horren tresna garrantzitsuenetarikoa.

Euskaldunon egoerara bagatoz, eta gurean agintzen duten egitura juridiko administratiboak aztertuz<sup>3</sup>, Bilbaok dio “bai estatu espainolak zein frantsesak diseinatutako eskola curriculumaren menpe aurkitzen garela” (2003: 29). Bide beretik esan daiteke gurean ere “menpekotasun egoera mantentzeko erabiltzen dela curriculuma (...). Horrela, klase menderatzaille eta ideologia hegemonikoen interesak” legitimatzeko erabiltzen da, “eskola menpekotasunerako tresna izanik, eskola bera eta curriculuma alienatzaileak izanik, gizartean ematen diren bidegabeko egoerak justifikatu eta birsortzeko ahaleginetan lan egiten duten neurrian, bederen” (Bilbao, 2003: 29). Beraz, gurean ere, sarri askotan curriculumaren inguruko ikuspegi kritiko hori ukatu nahi badugu ere, mendekotasunean alienatzeko tresna da. Esan dezakegu nahita edo nahi gabe erreproduzitzen ari garela ardatz anitzeko zapalkuntza egoerak, XXI. mendeko Euskal Herrian gertatuak (hizkuntza, kultura, generoa, klase soziala...).

Orain artean, curriculumak botere harremanekin eta haien produkzio/erreproduktzioarekin zein zilegiztatzearekin duen zerikusiaz aritu gara. Oinarritzat hartu dugun ikuspegi kritikoak, ordea, ez da mugatzen harreman horren azalpen soilera, baizik eta hura aldatzera bideratua dago. Hori lortzeko, “subjektua prestatu behar dugu gizartea alda dezan” (Bilbao, 2003: 27). “Izaera soziopolitikoa duelako, gizartea aldatzera zuzenduta egon beharko luke curriculumak (...). Gizartearen aldaketa subjektuaren prestaketan datzala jakinik, berak izan behar du bizi duen errealitatearen aldatzaile eta egoera berriarren eraikitzaile” (Bilbao, 2003: 30)

2 Letra etzana autorearena da.

3 Euskal lurraldeak banatzen diren hiru eremu administratiboetan ez da erabateko hezkuntza eskumenik. Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroako Foru Erkidegoan, hezkuntza lege batetik bestera murriztuz doazen portzentajeak besterik ezin dira erabaki/kudeatu. Gainera, erabaki/kudeaketa hori egin ahal izango da soilik “deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumenak ere” (Nafarroako Foru Hobekuntzaren 47. artikulua eta Gernikako Estatutuaren 16. artikulua dioten moduan). Ipar Euskal Herrian ez da inolako hezkuntza eskumenik, eta Frantziako estatuak zehazten du hezkuntza programa.

Hezi beharreko subjektu kritiko horiek –alegia, gure ikasleek– ziurtasunik gabeko testuinguru ezegonkor batean hezi eta bizi dira. Joseba Azkarragak (2010) azaltzen digun moduan, fordismoan oinarrituriko produkzio eredutik ezagutzaren gizartera igaro gara azkeneko hamarkadetan; sozializazio prozesuak aldatu dira; arlo soziokulturalean, konplexutasunak eta aniztasunak bizi gaitu; eta, egiturazko gizarte krisia bizi dugun honetan, inoiz baino baliabide gutxiago ditugu horri aurre egiten lagunduko diguten identitate positiboak eraikitzeko. Hortaz, testuinguru horretan eraldaketak bultzatuko dituzten subjektuak hezi behar ditu curriculumak.

Aurretik ikusi dugun bezala, ordea, ez gara ari soilik curriculumaren bidez norbanakoa alienatzeaz. Arau sozial, kultural eta linguistiko zehatzak zilegiztatzaren neurrian, bada norbanakoa gainditu eta komunitateari/kolektiboari eragiten dion alienazioa ere. Horren eraldaketari ere erantzun beharko lioke curriculumak. Baina zein dira hiru ardatz horiei erantzuteko gako posibleak? Galdera horri erantzuteko, gurera ekarriko dugu Lorea Agirrek 2015eko martxoaren 29an Bilbon 19. Korrikaren bukaera ekitaldian irakurritako testua. Zirrarez beteriko Korrika baten ondoren, ahalduztearen kontzeptua euskalgintzara ekarri, eta XXI. mendeko euskaldunok ekinez nor izateko hautua egiteko deia egin zigun Agirrek. “Euskaldun” izateko deia egin zigun. Ondorengo lerroetan ere, zenbait gako proposatzen ditugu hausnarketarako, gure ikasleak ekinez nor izateko curriculumak hizpide harturik.

## 2. NOR IZATEKO CURRICULUMA: BAGARA NOR

Identitatea “nor izan”ekin lot dezakegu. Eta “nor izan”, berriz, gure gizartean posizio bat eta horren gaineko kontzientzia izatearekin. Posizio eta kontzientzia hori erabat lotuak egongo dira gure ekitearekin (testuinguruaren gaineko gure ekintzarekin). Helburua ez da haien artean lehentasunik ezartzea, baizik eta hiru aldagai horien garrantzia azpimarratzea eta haien eraikuntzan (alegia, identitatearen eraikuntzan) hezkuntzak eta curriculumak duten paperaz hausnartzea.

### *Identitatea eta curriculumak*

Identitateaz asko idatzi eta eztabaidatu da. Psikologia sozialeko hainbat autoreri jarraituz (Rosa, Bellelli & Bakhurst 2000: 41 in Ezkurdia, 2004: 33), “pertsonaren oinarritzko identitateak izaera *indibiduala* (izaki biologiko materialen ekintzetan oinarritua), *soziala* eta *kulturala* du; *oraingoa* da (unean-une-ko egoerak markatua) eta baita *historikoa* ere (lehenak baldintzatua eta gerora zuzendua)”. Castellsek aipatzen duen moduan (2000: 29 in Ezkurdia, 2004: 33), gainera, “identitatea lekuan eta denboran zehar eraikia da: norbanakoak bere nortasun pertsonala eta baita identitate soziokulturala eraikitzen ditu bera partaide den gizataldearen ezaugarrietan zentzu sinkronikoan, eta horren memoriaz zentzu diakronikoan. Horrela betetzen du pertsonak bere burua zerbaitekin identifikatzeko duen ezinbesteko beharrazana”. Hortaz, gure nortasuna, bakarra eta errepikaezina bada ere, kolektiboa ere bada. Identitate kolektibo horrek taldekatzeko eta identifikazio maila ezberdinak izango ditu, eta erabat baldintzatuko du norbanakoaren nortasunaren eraikuntza.

Definizioetatik eta gatazka kontzeptualetatik harago, nortasunaren eraikuntzaren “arazoaren funtsean dagoena, ordea,



zera da: nola, nondik, norengandik eta zertarako eraikitzen den identitatea” (Castells, 2000: 29 in Ezkurdia, 2004: 33). Eta, nola ez, hezkuntzak eta, zehatzago, curriculumak zer egiteko duten prozesu horretan.

Curriculumaz eta botereaz esan dugunaren ildo beretik, derrigorrezko eskolaratzearen bidez, kontzientzia nazionala eraiki dute estatuak herritarrengan, inposaturiko gainerako oinarrizko zutabeekin batera identitate nazionala eraikiz. Bide horretan, lurralde barneko beste identitate komunitarioak deuseztatzen saiatu dira, eta lurraldea homogeneizatu dute. Identitate nazionala “automatikoki hedatzen da hizkuntza eta kultura hegemonikoen bidez. Estatuaren ibilbidearekin lotuen zegoen kolektibitatearen eredu linguistiko kulturala inposatzen da, eskolaren eta curriculumaren bidez” (Ezkurdia, 2004: 25).

Estatuaren misio moderno hori zalantzan jarri dute modernitate likidoaren edo postgaraien zenbait defendatzailek. Zergatik tematzen dira, ordea, horrenbeste estatuak hezkuntzaren gaineko kontrolean? Zergatik indartzen dituzte ikur eta kultur erreferente nazionalak, gizarteko sistemen bidez? Egia da globalizazioak ahultze prozesu batean sartu dituela estatu-nazioak eta “Europa berriaren lurraldea eta errealtate soziokulturala eta soziopolitikoak deseraikitze eta berreraikitze prozesuan murgildurik aurkitzen” direla (Ezkurdia, 2004: 26). Ezin da ukatu, ordea, horrek identitate nazionalak gotortzea eta berrindartzea ere ekarri duenik. Argudio horren adibide ditugu LOMCE legearen inguruan egindako adierazpenak, na-

zioarteko futbol zein saskibaloitxapelketa zenbait, Frantziako Senatuan Europako Hizkuntza Gutxituen Itunaren inguruan izandako eztabaida eta ganbera bera berrestearren kontra azaldu izana, XXI. mendean Fillon legea lurpetik atera izana, eta “kanpo mehatxu”en aurrean sustaturiko sentimendu nazionala.

Eskola aipaturiko identitate hori suspertzeko sistema baldin bada, curriculumak dugu horretarako tresna. “Identitatearen eraikuntzan pertsonaren inguruak duen eragina ukatu gabe, curriculumak islatzen duen inguru horren ikuspegia, eskolaratze prozesuak eta irakasten diren eta ez diren ezagutzen<sup>4</sup>—edukien— bidez hautatua eta zehaztua izan dena, berebiziko garrantzia” du (Ezkurdia, 2004: 27). Ezagutza hautu bat zilegiztatu eta “normalizatzen” den moduan, curriculumaren bidez ere identitate zehatz bat zilegiztatu eta “normalizatzen” da, bere erreferente kultural, linguistiko eta sozialak barne, bestelako identitateen kaltetan.

4 Ezagutzen transmisioaz eta edukien aukeraketaz ar da Ezkurdia. Egun kompetentzietan oinarrituriko curriculumaz hitz egiten badugu ere, ezin dugu pentsatu kompetentzia horiek ez dutenik oinarri ideologiko edo kulturalik. Geroago azalduko den bezala, kompetentzia horiek ez dira airean eraikitzen diren ekintza etereoak. Badute testuinguru eta intenzionalitate bat. Horrez gain, hezkuntza kompetentzia orokorrak kompetentzia metadiziplinarretan, diziplinartekoetan eta diziplina arloen barneko kompetentzietan zehazterakoan ere, identitatearen eraikuntzan berebiziko garrantzia duten hautuak egiten dira (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2005: 22-39).

## BADIRUDI KOMUNITATEAK ZENTZUA GALDU DUELA ETA NORBANAKO ISOLATUZ OSATURIKO SARE BATEK KONEKTATU ETA DESKONEKTATZEN GAIUUELA.

Ikuspuntu kritikotik, hainbat elementu hartu beharko ditugu kontuan curriculumaren eta identitatearen arteko harremana aztertzerakoan (Macedo, 1990: 184-185 in Ezkurdia, 2004: 27). Lehendabizi, "irakasten dena zein irakasten ez dena kuestionatu behar dugu". Bigarrenik, "curriculumaren eta prozesu kultural zabalagoen artean dauden loturak zehaztu eta identitate zabalagoen eraikuntzan duten eragina aztertu" behar dugu, "kontuan hartuta klase sozialak, adinak, generoak, arrazak, errealitate etniko-kulturalak eta Estatu-nazioak baldintzaturik daudela". Kasu horretan, zenbait identitate elementutan ardaztutako identitateez baino gehiago, ardatz askok gurutzaturiko identitateen eraikuntzaz hitz egin dezakegu. Hirugarrenik eta azkenik, "curriculumaren prozesu kulturala den heinean, pribilegio eta menerapen harremanak aztertu beharra dago, hezkuntzaren eta eskolaren funtzioa praktika politikoaren testuinguruan kokatzen baita".

### **Bagara nor?**

Irakurleak pentsa dezake nortasunaren eraikuntza lineal eta betiereko bat aurkezten ari garela orain arte azaldutakoarekin; nolabait, modernitatean oinarrituriko identitate sendo eta iraunkor bat. Ezta gutxiago ere. Identitatea etengabe eraiki eta berreraikitzen den zerbait dela defendatzen du Baumanek; eta, ildo beretik, guk geuk ere onar dezakegu identitatea etengabe birdefinitzen ari dela norberaren garapenaren, testuinguruko baldintzen eta haien gaineko pertzepzio eta ekintzen arteko harremanean. Horrek ez du esan nahi, ordea, hari komunik, muinik edota irauten duen substantzia edo oinarritzeko elementurik ez dagoenik aurrez aipaturiko ardatz sinkroniko eta diakronikoan. Muin horretan ardazturik, "gizabanako edo talde kolektibo batek nortasun bat baino gehiago eduki ditzake [edo hobeki esanda, ardatz bat baino gehiagok gurutzatua izan daiteke]. Eta nola bat baino gehiago izan ditzakeen, pluraltasun hau tirabira eta kontraesan iturri bihurtzen da nola norbanakoaren errepresentazio mailan hala gizarte ekintzan" (Iztueta, 2000: 59).

Hortaz, identitatea modu sistemikoan ulertuta ere, etengabe aldatzen eta moldatzen dugularik, betiere gizarte jakin bateko nortasunean kokatzen da. Gizarte horretan kokatzeko, ingurunearen irakurketa egiten du Ezkurdiak bere tesian, eta, Euskal Herriaren kasuan, bi ingurune mota bereizten ditu: "bata ingurune soziokulturala, nazio-etnikoarena eta bestea

hegemonikoa, nazio politikoarena" (Ezkurdia, 2004: 331). Biak dira curriculumean islatuak. Egun, ordea, birpentsatu beharko genuke ea bi testuinguru edo ardatz horiek nahikoak diren curriculumaren bidez "nor izateko" nortasun bat definitzeari begira. Edo ea identitate kolektibo bat eraikitze-ko gako zentrala den, gaur egun, nazio etnikoa / nazio politikoa (betiere, hezkuntza eremutik curriculumaren inguruko aferez ari garela).

Postgaraiotan, badirudi Baumanek definituriko modernitate likidoko gizarte indibidualizatu batek bizi gaituela. Alde horretatik, badirudi komunitateak zentzua galdu duela eta norbanako isolatuz osaturiko sare batek konektatu eta deskonektatzen gaituela. Pentsa dezakegu gure nortasunak etengabe eraiki, deseraiki eta berreraikitzen ditugula, etengabeko mugimenduan. Hezkuntzatik ere, maiz entzuten ditugu elementu komunik gabeko nortasunen eraikuntzaren aldeko ahotsak. "Norbanako askea" eta ustezko unibertsaltasun bat goraipatuz, nor bere burua eraikitzean jartzen dugu indarra, identitate zehatz bati atxikitzen zaizkion erreferenteak eskaintzea hautu ideologikoa balitz bezala (eta kontzienteki ez eskaintzea hautu neutroa balitz bezala). Askok, bestalde, herri globalean, kutsu esentzialista eta kontserbadorea aurkituko diote komunitateari loturiko identitateak indartzeari.

Eztabaida horretan, "harropuzkeria postmodernista" salatu du Eduardo Apodakak: "Harropuzkeria post-modernistaren baitan 'batzuen egoera menderatzailea unibertsala izango balitz bezala saltzen da'. Ideologia honek norbanakoaren identitatea baino ez du hizpide eta isildu egiten du norbanakoek estatuen eta bestelako botere begi handien aurrean dugun mendekotasuna. Euskalduntasuna libreki burutzen den hautua delako gezurra elikatzen du" (Apodaka, 2007: 189 in Iztueta, 2015: 185). Haren arabera, balio unibertsalen eta norbanakoaren ustezko askatasunaren izenean curriculumaren gainean hautu kontzienterik ez egiteak zera ekarriko luke: estatuek curriculum ofizialetan jada egindako hautuak erreproduzitzea eta, ondorioz, identitatea eraikitze-ko hautatutako erreferente horiek "normaltzat" eta "unibertsaltzat" aurkeztea.

Hortaz, ustezko balio unibertsaletan zein komunitaterik gabeko norbanako indibidualizatuan oinarrituriko identitateak ezer ez aldatzearen aldeko hautua lirakeke. Baumanek berak, zeinak modernitate likidoaren definizioa eman baitzuen, zera onartzen du: komunitatean interdependentek izateaz gain, komunitatean bertan badago babesa ematen digun eta gure aurretik dagoen zerbait. Aurretik ere argi geratu da zer garrantzi duten testuinguruak eta taldeak gure nortasunaren eraikuntzan.

Komunitatea egon badagoela onartuz gero, zehaztu behar-ko izango da zeren arabera eraikitzen dugun Euskal Herri aniztunean komunitate hori: Bada komunitate egiten gaituen elementurik? Zerk artikulatzen du komunitatea? Zer ardatzen baita eraikitzen dugu gure "gu" a? Eta, hortaz, zer elementu transmititu, sortu eta birsortu beharko lirakeke curriculumaren bidez komunitate horretako kide gisa hezteko?

Komunitate hori izendatzerakoan, Durkheimen arabera, oinarri etnikoa nazio arima da, eta komunitate jakin baten kont-

zientzia kolektiboa izatean datza. *Continuum historicum* bat duen herria. UNESCOk berak hizkuntza hartzen du nortasun etnikoaren ezaugarri nagusitat. Hori guztia planteamendu metafisiko eta esentzialistetan oinarritua dela iruditu dakieke batzuei; aldez aurretik komunitate edo nazio baten kontzeptu objektiboa *a priori* definituriko elementu batzuen bidez onartzen ez dutenei, hain zuzen (Ezkurdia, 2004: 26). Horren aurrean, Iztuetak esaten digu (2002: 14-15) gizarte baldintza berrien arabera historian zehar aldatzen den zerbait izanik ere “haren baitan badela beti badirauren elementuren bat (...) zeinaren gainean gertatzen baitira kontingentzia historikoak. (...) nortasunak sustrai baten gainean eraikitzen dira. Kontingentziak nonbait gertatzen dira, zerbaiten baitan, ez linboan”.

### **Euskaraz gara nor**

Kontuan harturik komunitatea beharrezkoa dugula identitatearen garapenerako eta “nor” izateko, ken diezaiogun, nahi bada, kutsu etniko eta esentzialista, eta hitz egin dezagun “herri gogo”az. Bada EHN identitate bereizgarri ezberdinak artikulatzen dituen “herri gogo”rik? Bagara nor? Baiezkoan *gaude*. Euskalgintzan azaltzen ari diren diskurtso berrien eskutik, Idurre Eskisabelek proposatzen duen kontzeptua biziki interesgarria dugu korapilo honen inguruan hausnartzekoan. Zera proposatzen du Eskisabelek: diskurtso berri bat harilkatzea, muin komun bati helduz aniztasun guztiak *asabiya* kontzeptuaren inguruan artikulatuz, identitatearen gaineko ikuspegi esentzialistetatik (muga hertsia eta zurrunik ezartzen baitituzte) eta ikuspegi postmodernoetatik (izate kolektiboa edukiz hustu eta “gu” erabat ireki, malgu eta aldagarri bat marrazten baitute) harago (2015: 112-113). Zer da eta nondik dator, ordea, *asabiya* hori?

*Asabiya* kontzeptua Abderraman Ibn Khaldun XIV. mendeko pentsalari islamiarrak aztertu zuen bere lanetan. Sarrionandiak *Moroak gara behelaino artean?* liburuan azaltzen duen bezala, “herri mugimenduaren eragile eta estatuaren eraikitzaile den gogaidetasun eta elkartasun horri deitzen zion Ibn Khaldunek *asabiya*”<sup>5</sup>. Magrebeko tribuei erlijioak eman zien, gehienetan, batasun sentimendu eta guziok fatu berean egote hori. *Asabiya*, indar kolektibo kreatzaile eta emankor hori zegoen eraikuntza politikoen muinean”. Hortaz, izate kolektibo baten gaineko kontzientzia ematen duen elementu zentral bat litzateke *asabiya* (Sarrionandia, 2010: 69-72).

Eskisabelen arabera, geuk ere badugu geure *asabiya* arrastoa, eta horren gaineko izateak, kontzientzia hartzeak eta ekiteak egiten gaitu “gu”: “euskara da, eta euskararen izate eta bilakatzearen inguruan txirikordatu dugun ondare askotariko eta kontraesankor guztia”. Horren adibide gisa jartzen du Korrikak parte hartzaileengan sortzen duen komunitate sentimendua. Gainera, euskararen inguruko diskurtso berri bat proposatzen digu, “demokraziaren, justizia sozialaren eta eskubideen terminoetara” ekarriz; nolabait, aurretik curriculumaren aferan plazaratu ditugun “botere harremanen arabera problematizazioa” (Eskisabel, 2015: 115). Modu horretan, “euskara” bera, norbanako zein kolektibo gisa “nor izateko” *asabiya* izateaz gain, botere harremanak iraul ditzakeen elementu askatzailea ere bada. Hizkuntzaren presioa alde aldatzeko aldarria egiten duten editorial batean, *Argia* aldizkariako Arbelaitzek, Eizagirrek

eta Lopezek (2015: 44-46) jarrera inperialistetatik askatzeko, jarrera antikapitalistak praktikatzeko, munduko aniztasunari iraurarazteko, jatorriak jatorri topaleku berean elkartzeko edota feminismoarekin batera askatzeko elementu gisa aurkezten dute euskara.

Ildo beretik garatu du Lorea Agirrek bere diskurtsoa, eta euskararen ekibalentziak ditugu horren adibide (2012):

“Euskara identitate bat da, munduan pertsona izateko egoteko modu bat; Euskara niretzat, guretzat garrantzitsua delako da garrantzitsua; Euskara ez da harresi bat, kontrakoa baizik, sare bat. Integratzailea da; Euskara lurralde librea da; Euskara kultura da; Euskara mundua da; Justizia soziala euskaraz mintzo da; Euskara...”.

Hortaz, gure nortasun kolektibo zein indibidualaren eraikuntzarako ardatz izatearekin batera, hezkuntza eraldatzailearen ardatz ere izan daiteke euskara, curriculumaren ikuspegi kritikoari atxikita. Alegia, nor izanez, eraldaketa bultzatuko duten subjektuak hezteko curriculumaren ardatz. Kontua izango da nola eraikitzen dugun eta nola artikulatzen ditugun muin bereko baina azal ezberdineko identitate horiek guztiak *asabiya* komun horren inguruan.

### **Proiektu identitatea eta subjektu izatea**

Horretarako, lagungarria izan daiteke Castellsek (2000: 32 in Ezkurdia, 2004: 34) bereizten dituen identitate motak gogora ekartzea. Identitatearen eraikuntza sozialak botere harremanek markaturiko testuinguru batean gertatzen dira. Hori aintzat harturik, formaren eta jatorriaren arabera hiru identitate proposatzen ditu: legitimatzailea (erakunde menderatzaileek euren hegemonia mantentzeko sortua eta hedatua); erresistentziako identitatea (menderatuek egoera txarretan bizirik irauteko sortu eta garatuak); eta proiektu identitatea. Hirugarren hori lagungarria izan daiteke proposaturiko ardatzen artikulazio horretarako. Izan ere, proiektu identitateak dira “aktore sozialak eurak dituzten tresna kulturalak erabiliz, identitate berria sortzen dutenean; eurek gizartean duten kokapena birdefinitzean, gizarte osoaren eraikuntza aldatzea bilatzen dutenean, esaterako generoaren inguruan sortutako identitate berriak” [edo diskurtso berri batek harilkatuta euskararen *asabiya*-n ardatzu diren identitateak] (Castells, 2000: 32 in Ezkurdia, 2004: 34). Esan dezakegu, hortaz, gizarte egitura osoa eraldatzeko xedearikin eraikia dela proiektu identitatea edo nortasuna.

Proiektu identitate edo nortasun horrek “subjektuak sortzen ditu, hau da, gizabanakoak subjektu bihurtzen dira eta hauek, beren bizipenen barruan biziz, beren burua eraikitzen dute, batetik, komunitateen eta, bestetik, merkatuaren kontra jokatu. Noski, subjektu hauek ez dira gizabanako gisa hartu behar, gizarte-egile kolektibo gisa baizik, zeinari esker gizabanakoek beren bizipenean zentzu holistikoa lortzen baitute” (Iztueta, 2000: 60).

Ondorioz, esan dezakegu proiektu identitate gisa euskararen ardatzuriko nortasunak posizioa, kontzientzia eta ekitea uztertzen dituela, “nor izanez”. Beraz, identitate horrek lagunduko digu curriculumaren bidez XXI. mendeko Euskal Herrian eraldaketaren eragile izango diren subjektuak sortzen.

5 Letra etzana autorearena da.

Orain artean hizkuntzaz aritu bagara ere nortasunaren mui-  
na definitzerakoan, ez dugu elementu isolatu gisa ikusten. Ez  
da kontzientzia kolektiboa eraikitzeko elementu bakarra ere.  
Ardatza izanik ere, hizkuntzarekin, kulturaren eta lurraldeare-  
kin batera izango da “euskal komunitate”aren nortasunaren  
zutabe. Azter ditzagun banan-banan hizkuntza, kultura eta  
lurraldea.

### 1) Hizkuntza

Curriculumaz eta botereaz aritu garenean azaldu dugun be-  
zala, curriculumean egiten dugun ezagutza hautuarekin bate-  
ra, kultur eta hizkuntza hautua ere egiten dugu. Eta, bat izan  
edo beste bat izan, erreferente zehatz batzuen araberrako  
nortasunen eraikuntza ari gara zilegiztatzen. Hortaz, egiten  
dugun aukeraketa linguistikoa ere ez da ez neutroa ezta obje-  
ktiboa ere. Izate kolektiboari eragitearekin batera, hizkuntzen  
arteko botere harremanak ere sortzen ditu.

Edozein komunitate edo talde du bere hizkuntza, eta hori  
du elementu bereizgarri. “Taldearen arau eta balio kulturalak  
hizkuntzaren bitartez transmititzen dira. Talde sentimenduak  
indartu egiten dira taldekideen erabileran, eta taldeko ez di-  
ren kideak barne-harremanetatik at geratzen dira” (Bilbao,  
2004: 47). Soziolinguistikaren printzipio onartua da “hizkunt-  
zek esanahi edo konnotazio sozialak transmititzen dituzte-  
la”. Hizkuntzak ez dira “esangura transmititzen duten tresna  
objektibo eta sozialki neutro” hutsak, “baizik eta talde sozial  
edo etnikoen identitateekin loturik daudenak”. Beraz, soziolin-  
guistikatik ere adieraz dezakegu hizkuntza dela nortasunaren  
ardatz garrantzitsuenetariko bat.

Horrela ulertu dute estatu-nazioek ere, eta horrela frogatu  
dute estatuok nazio identitate hegemonikoak ezarri nahian  
garatu dituzten hizkuntz politikek. Hizkuntza izan da nazio  
hegemonikoaren uztarria eta eskola hizkuntza nazionala za-  
baltzeko eta inposatzeko tresnarik eraginkorrena (Ezkurdia,  
2004: 46-47). Euskal Herrian, ezagutu dugu eta ezagutzen  
dugu horren adibiderik.

Gurean, hizkuntz politika horrek frantsesarekiko eta gaztela-  
niarekiko mendekotasunezko egoeran utzi du euskara, diglo-  
siazko egoera batean. “Euskarak ez du gaur egun lurralderik  
zeinetan funtzio guztiak euskaraz betetzen diren” (Ezkurdia,  
2004: 51).

Nor izateko curriculumak euskararen oinarritua izan beharko  
luke, euskara erdigunean jarriz botere harreman horiek irault-  
zeko. Hori argi izanda ere, sarritan ospintzen gaituen gai ba-  
ten inguruan galdetu beharko genioke geure buruari. Bikain  
planteatzen ditu galdera hauek Paulo Iztuetak (2002: 11):

“Orokorrean euskalgintzaz ari garenean ba al dakigu zein den  
horren helmuga zehatza, Euskal Herri osoa euskalduntzea  
edo zuzenago iruditzen bazaizue, berreuskalduntzea, ala  
egun euskarak pairatzen duen egoera minorizatuari eustea,  
Orixek zioen bezala ‘ontan irauan dezan’, ala, euskara halako  
epe jakin batera begira Euskal Herriko hiritar guztiek erabili-  
ko duten mintzaileria izan dadin, bide eragingarriak ezartzeko  
borondate politikoa erakutsi eta aplikatzen saiatzea, ala bes-  
terik?”.

Horrek hizkuntzaren inguruan planteatu nahi ditugun bi  
gakoetatik lehenengora garamatza.

**1.a) Hautua ala beharrezkotasuna?** Edo, beste modu ba-  
tera planteaturik, zer da hizkuntza hautua eta, horren haritik,  
non dago eta zeinek finkatzen du beharrezkotasunaren eta  
askatasunaren arteko muga?

Gogoraz dezagun: modu desberdinean hurbildu, bizi eta  
identifikatzen bagara ere –azaldu dugun moduan–, euskara  
da euskal nortasunaren izate kolektiboa modu propio batean  
harilkatzeko partekatzen dugun ardatz komuna; alegia, gure  
herri gogoa edo *asabiya*. Ibai Iztuetak ere proposamen bat  
egiten du euskara erdigune sinbolikoan ipintzeko, orain arte  
euskararekiko harreman eta arrotzasun sentimenduaren in-  
guruan eraiki den dikotomian. Horrek ere, ardatz gisa euska-  
ra harturik, euskaraz ez dakien “euskaldun”aren (edo horrela  
identifikatzen denaren) izaera diasporikoa azaltzen du. Ho-  
rrekin batera, etxean arrotz sentiarazi dioten euskaldunaren  
(euskaradunaren) eta diasporako erdaldunaren arteko ha-  
rreman dialektikoa proposatzen du; diasporikoak erdararen  
erbestea utzi ahala, bere herrikoa dela sentituko da euskal-  
dun arrotzua<sup>6</sup> (Iztueta, 2015: 350-351). Hau da, biek ala biek  
hizkuntzaren *asabiya*-ren inguruan harilkatuko dute euren  
identitatea. Eta bien arteko erdibideko harremana euskaratik  
pasatuko da.

“Norbanakoari zor zaion autonomia ukatu gabe” hizkuntzaren  
afera “norbanakoaren hautu gisa espezifikatzeak (...) gizarte  
mailan hegemoniko diren nortasunen eta hizkuntzen (...) nor-  
malizatzea” dakar, eta, ondorioz, euskararen mendeko izaera  
azpimarratzea (Iztueta, 2015: 187). Beste era batera esan-  
da, hizkuntza hegemonikoan aritzea beharrezkoa eta pres-  
tigiozkoa denean, prestigiorik gabeko hizkuntza hautazkoa  
izateak bizkortu egiten du botere harreman desorekatu hori  
normalizatu eta hizkuntza gutxiagotua higatzea. Hortaz, ez  
dirudi egoera hori bultzatzen duten hizkuntza ereduak logika  
handirik dutenik.

Hautuaren inguruko usteak oinarritzko beste bi hutsune be-  
hintzat baditu. Lehenengoa: aukeratzeko, hizkuntza baten  
baino gehiagoren artean hautatzeko baldintzetan egon be-  
harko du pertsonak. Alegia, hizkuntza bat baino gehiago hitz  
egiteko gai izan beharko du. Hortaz, euskaraz ez dakien ho-  
rrek ez du hautatzen; derrigortua dago erdaraz egitera. Eta  
bigarrena: euskaraz mintzatzeko gai denak hautatu ahal izate-  
ko, aurrean duenak ere ulertu beharko dio. Hortaz, kasu  
horretan, badirudi derrigortua izateetik derrigortzera igarotzen  
dela erdaldun elebakarra.

Aurreko atal batean, euskararen gaineko diskurtsoa de-  
mokrasiaren, justizia sozialaren eta eskubideen terminoeta-  
ra ekartzearen alde aritu gara, Idurre Eskisabelen eskutik.  
Hizkuntzaren inguruko aukeraketaren eztabaidara ekarrita,

<sup>6</sup> Iztuetak “incola” terminoa proposatzen du “euskaraz  
egiteak norbera bere lurtean arrotz nola bihurtzen” duen  
adierazteko; eta “diasporak” terminoa, berriz, “euskaraz ez  
dakien ‘euskaldunaren’ izaera diasporikoa, euskararen lurtean  
bizirik, hizkuntzarekiko bizi duen erbestea” adierazteko. (2015:  
350-351)



erraz ondoriozta dezakegu euskaraz bizi nahi duenaren ikuspegiatik hizkuntzaren ezagutzak ez lukeela hautazkoa izan behar, ezin baitu demokratikoki bere hizkuntza aukera gauzatu entzuleak euskaraz ez badaki. Baina, are gehiago, erdaldun elebakarraren ikuspegiatik ere, ez da demokratikoa hizkuntza hautua ukatzea. Alegia, benetako demokratizazio ariketa hauxe litzateke: euskararen ezagutza bermatzea, hizkuntzen arteko hautua ahalbidetzeko.

“Hainbeste bider esan da euskaraz ikastea norberari barrutik atera behar zaiola ez ezerk behartzen duelako, azkenean, guk zozook, ahaztu egiten dugu estatuek xehetasun osoz arautua daukatela hizkuntzen irakaskuntza eta esparru horretan ez dela ezer uzten norberaren esku” (Iztueta, 2002: 12). Hau da, normalizatu egin dugu euskaldunaren zein erdaldunaren hizkuntza hautu askea ukatzen duen egoera bat. Ezagutzak erabilera bermatzen ez duela jakinik ere, ezinbesteko baldintza da euskaraz bizitzeko pausoa egin ahal izateko eta gainerakoei eskubide hori errespetatzeko.

Aipaturiko eskubide horien planoan kokatzen dira bi dokumentu hauek ere, azken urteetan gaiaren inguruan adostasun zabalena lortu baitute Euskal Herriko hezkuntza komunitatean: Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa, Nazio Etabaida Guneak bultzatua, eta “Eskolak euskaldundu behar du” kanpainako manifestua, euskalgintzako eta hezkuntzako zenbait eragilek bultzatua. Bietan azaltzen da euskal herritar orok euskaldundua izateko duen eskubidea.

Beharrezkotasunaren inguruko eztabaidaz gain, bada curriculum arloan hizkuntzarekiko eztabaida pizten duen beste elementu bat ere. XXI. mendeko herri globalean, askok aldarrikatzen dute ikasle eleaniztunak heztearen beharra. Horra hor mahaigaineratu nahi dugun bigarren gakoa.

**1.b) Elebitasuna, eleaniztasuna eta euskara:** hizkuntzen ikaskuntzaren aldetik konplexua den gai bat korapilatsu eta gatazkatsu bihurtzen da gurean.

Badira elebitasuna auzitan jartzen dutenak. Iztuetaren arabera (2002: 13), elebitasunean oinarrituriko hizkuntza politikak eragindako ondorioak ikusirik, eta, “gauden diglosia egoeran, hizkuntza batek besteari lurra jaten diola eguneroko bizitza publikoan (...) auzitan jarri beharrekoa elebitasunaren filosofia bera da, bi hizkuntza modu orekatu batez –batak bestea zabaldu gabe, alegia– erabiliz bizi den herririk ez baitago”. Haren arabera, nahiz eta askok aldarrikatzen duten elebitasun orekatua, diglosia egoera luzatu besterik ez luke egingo.

Eleaniztasunari dagokionez, hizkuntza guztiek pisu bera izango luketen ereduen alde egiten dute askok (adibidez, euskara, gaztelania eta ingelesa hartuta). Baina euskararen egoera desorekatu eta diglosikoa ahaztu egiten dute, ustezko eleaniztasuna mendeko hizkuntzaren kaltetan ezarriz. Beste batzuk, berriz, lehendabizi hizkuntza propioaren oraina eta geroa bermatu nahian, ezinbestean heldu beharreko errealitate bat saihesten saiatzen dira. Argi izanik ikasleen euskalduntzea bermatu behar dugula eta euskarak izan behar duela

## MURGILTZE ETA MANTENTZE EREDU BAKAR BAT DEFINITU ZUEN KONTSEILUAK, ELEANIZTASUNAREN BIDEAN URRATSAK EGITEKO, EUSKALDUNTZEA BERMATUTA ETA EUSKARAN BERTAN ARDAZTUTA

edozein hizkuntza proiekturen ardatza eta zutabea, agerikoa da proposamen ausartak jarri behar direla martxan, ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko.

Haien artean, hezkuntzako hizkuntza ereduen eztabaida bolo-bolo zebilelarik, "Ikasle euskaldun eleaniztak sortzen" aurkeztu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, 2007. urtean. Proposamen horretan, murgiltze eta mantentze eredu bakar bat definitu zuen Kontseiluak, eleaniztasunaren bidean urratsak egiteko, euskalduntzea bermatuta eta euskararen bertan ardaztuta (orain arteko ereduen politika gaindituz). Eredu bakar hori hizkuntza proiektuan zehaztea proposatzen zuen Kontseiluak, ikastetxe bakoitzaren testuinguruari egokiturik. Nor izateko eta hizkuntza hautuaren afera parametro demokratikoetara ekartzeko balizko proposamen gisa ikusten dugu. Egun, ordea, oraindik ere, euskalduntzea bermatzen ez duten ereduak bere horretan dira.

### 2) Kultura

Identitateaz aritu garenean, kultur erreferenteek eta haieki-ko identifikazioek nortasunaren eraikuntzan duten garrantzia azpimarratu dugu. Argi ikusi dugu "curriculum, besteak beste, eskolan garatuko den aukera kulturala" dela (Bilbao, 2003: 32-33). Transmittitu beharreko ezagutza hautatzen den neurrian, curriculumaren bidez ere hautu kultural bat egiten da, eta kultur erreferente batzuk "normaltzat" hartu eta zilegizatzen dira, beste batzuen kaltetan. Beste era batera esanda, "eskolak, curriculumaren bidez, kultura dominatzailea, estatuak nahi duen kultura, finkarazten du. (...) Honela, hezkuntza sistema erabiltzen da agintean dagoen taldearen kultura zabaltzeko, azkenean kultura hori legitimatu arte, sistema horretako parte-hartzile guztiek ontzat eta bakartzat eman arte". Beraz, curriculumak izugarriko garrantzia du kulturaren transmisioan ere, eta, transmititzen dituen kultur erreferenteen bidez, eraikitze prozesuan diren nortasunak baldintzatzen ditu.

Garrantzitsua da zer hautatzen den ikasi eta lantzeko, kultura hori balioesten ikasten den heinean; era berean, berebiziko garrantzia du ikasten ez denak, balioetsi gabe ertzetan gerat-

zen denak. Hala, curriculum ofiziala eta ezkutua erabiltzeaz gain, autore batzuek curriculum nulua aipatzen dute; alegia, eskolako edukietatik kanpo geratzen dena (Bilbao, 2003: 33). Gurean, bazterretako gainerako erreferente kulturalekin gertatu den bezala, subkultura gisa bizi izan dugu "euskal kultura"; curriculumean ahaztua, sustrai arrotz baten inguruan txertaturiko dimentsio folkloriko gisa.

Horrek guztiak ez du eragiten kulturaren transmisioan eta biziraupenean soilik, baizik eta baita sustrai kultural batean egiten den sortzean eta birsortzean ere. Curriculumetik at edo akademiatik at geratzen den kultura da; sustrai sendoko transmisio, sortze eta birsortzerik gabe, mendekotasun egoera batean dago; kondentatua dago fosilizatu, desitxuratu, gotortu eta desagertzera. Horixe da, hain zuzen, arazoa: gurean, "kultura akademiko horretan islatu barik geratzen direla ingurune hurbiletik jaso daitezkeen datuak edo markak"; alegia, Euskal Herriko erreferenteak ez direla jasotzen curriculum ofizialetan (Bilbao, 20013: 38-39).

### 2.a) Partikularra eta unibertsala

Identitateen aferan salatu dugun bezala, kulturaren ere gero eta leku gutxiago ematen zaio kultura partikularrari, unibertsaltasunaren izenean. Edo: "kultura bereziari ikuspegi hegemonikoa ematen zaio, kultura nagusian integratuz [edo hobeki esanda bertan urtuz]. Eta kultura unibertsalaren garrantziaz ezer gutxi dago esaterik, landu beharrekoa da, baina guretik abiatuta, geu kolektibitate gisa erreferente garelara, geu subjektu izanik" (Bilbao, 2003: 38).

Bilbaok azaldutako eztabaida horren gainean (unibertsalaren eta partikularren artekoa), proposamen interesgarria egiten da derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumaren oinarriko txostenean: partikularretik (gure gutasuna definitzen duten elementu komunetatik) abiatuta, unibertsalera arteko bidea proposatzen zaigu, gero eta dimentsio zabaloak integratuz, kiribil bikoitzean txirikordatuz (eboluzio-inboluzio, zabaltze-kontzentratze, kanporako-barrurako, partikularrerako-unibertsalerako txandakako faseetan). Nolabait, partekatzen dugun kultura partikularrean bertan harilkatzen ditu erreferente kultural gero eta zabalagoak; betiere, sustrai eta enbor propio batetik abiatu eta hara bueltatuta. Partikularretik unibertsalerako bideak zuzen-zuzenean garatzea euskal curriculumaren eta curriculumaren euskal dimentsioaren inguruko eztabaidara, edo, harago joanda, bi kontzeptuen arteko gatazkara. Lehenengoak "gutasuna" definitzen duen kultur erreferente komuna ardatz harturik txertatzen ditu dimentsio gero eta zabalagoak. Bigarrenak, kanpoko kultur erreferenteetan ardazturiko proposamenetan txertatzen ditu gureak, lehen aipatu dugun moduan kultura bereziari ikuspegi hegemonikoa emanez eta kultura horretan integratuz (edo, estutuz gero, urtuz). Aurrerago hartuko dugu ideia hori berriz, "Euskal Curriculum" egitasmoaren inguruan aritzen garenean.

Gure partikularretatik abiatutako curriculum baten aldeko hautua eginda ere, partekatzen dugun hori zer den zehaztu behar dugu. Hau da, zein da gaur egun euskaldunon komunitatean gutasuna ematen digun erreferente kultural komuna? Zer da euskal kultura?



## 2.b) Kulturaren euskalduntasunaz: hizkuntza eta tradizioa

### Euskal kultura eta cultura vasca

Eztabaida luze bezain korapilatsua dugu “euskal kultura” definitzeko buruzkoa. Ez dugu horri buruz ekarpen kontzeptualik egiteko xederik; aldiz, hausnartu eta eztabaida bultzatu nahi dugu curriculumaren bidez bermatu beharreko kultur transmisioaren eta sorkuntzaren inguruko zenbait elementuri buruz. Bilbaok (2003: 41) galdetzen digu zer gizatalde hartzen den oinarritzat, curriculumaren bidez zer kultura jorratu behar den zehazterakoan. Erantzun posible bat izan daiteke: euskara *asabiya*-tzat duen taldea edo komunitatea; alegia, euskal komunitatea. Beraz, hizkuntzari erabat loturik ulertuko dugu euskal kultura. Hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremana, ordea, gatazkatsua izan da eta da, eta ikuspegi ezberdinak eta sarritan kontrajarriak ere plazaratu dira.

Begoña Bilbaok dio (2003: 46) hizkuntza eta pentsamendua ezin askatuzko lotura batez elkarturik daudela; eta, horrekin batera, “hizkuntza bakarkako fenomeno izateaz gainera gizarteko tresna ere badela”. Horrez gain, defendatzen du “hizkuntza giza talde edo herri baten berezitasuna markatzen duena” dela “eta bere memoria historikoan nor izatea ematen diona” dela. Plan-teamendu horrekin uztar dezakegu Lorea Agirrek euskara nor izatearekin egiten duen lotura, edo Idurre Eskisabelek<sup>7</sup> euskararekin eta *asabiya*-rekin edo gutasunarekin egiten duena. Ikuspegi horren arabera, hortaz, euskarak definitzen du kulturaren euskalduntasuna.

Tesi horren parametroetatik erabat urruntzen da Oteizak bere *Quosque Tandem* liburuan proposatzen duena (1963: 23):

“Los que afirman que el idioma es todo, no están bien informados o hablan precipitadamente o por comodidad. Cuando hemos dejado perderlo todo es muy cómodo y muy fácil aparentar: el idioma es todo. Mi teoría es contraria, se invierte la relación: el problema no es devolver primero el idioma al hombre sino al idioma (al que nos queda) el hombre (no el que nos queda, si nos queda algo, sino el hombre entero que teníamos dentro del idioma antes). La recuperación del hombre es pues, a nuestro juicio, la cuestión previa a la recuperación del idioma”.

Bestelako iritzia dute, esaterako, Mitxelenak (1981: 260), Odriozolak (2000: 36) eta Iztuetak (1996: 35). Haienetzat, euskal kultura euskaraz egiten den hori da (Bilbao, 2003: 51); baita Txillardegirentzat ere. Azken horrek, euskararik gabe Euskal Herririk ez dela aldarrikatzearekin batera, “hizkuntza galduta ere, gure ohiturak, gure folklorea, gure izakera, gure pelota-jokoa hor gelditzen dira” dioten “zakuzaleak” salatzen ditu (Txillardegik 2004a: 68 in Iztueta 2015: 286). Kritika zorrotz bera eginez mintzo zaigu Joxe Azurmendi, “folkloreko euskal-

<sup>7</sup> Autore horrengandik abiatuta, euskalduntasunaren definizio malguago bat interpreta dezakegu. Ikuspegi askotarikoa zabaltzen du *asabiya* hori osatzen duen hizkuntza bizitzeko eta harekiko atxikimendua sentitzeko, euskaraz biziz ingurunean eragiten duen euskaltzale ahaldundutik euskararekiko konpromiso ikastolak sostengatu eta seme-alabak hara bidaltzen dituen euskaltzale erdalduenera.

dunak” definitzen dituenean (1992: 570 in Bilbao, 2003: 53):

“Hauetako gehienek maite dute Euskal Herria, beren erara. Euskal Herria eta euskal gauzak txalotzen ez dira makalak izan ohi. Baina maite dutena txokoa da. Athletic Bilbaotik, Santurtziko sardina eta Getariako txakolinan zehar, el mejor puente colgante-raino. Euskal Herria curioso bat, Okendoz eta gainezko, oso polita. Aitorren hizkuntza zaharra. Euskal kantak. Euskal giroa. Txistua, eta abar. Halakoek Euskal Herria, euskaldun kultura egiazkorik gabe maite dute. Folklorista izenez burlatu izan zaie azkeneko denboran”.

Gai horri loturik agertzen zaigu kultura aniztasuna ere. Mestizajearen eta kulturartekotasunaren izenean, sarritan, subkultura eta mendeko hizkuntza gisa geratzen zaigu gurea. Ele-aniztasunaren diskurtsoarekin gertatzen den bezala, kultur aniztasunaren diskurtsoaren pean ere kultura hegemonikoa ateratzen da garaile, defendatzen baita kultura horretan integratuz soilik dela posible aniztasuna eta aniztasunaren aurkako praktika baztertzaila gisa irudikatzen baitira bestelako hizkuntza/kultura hautuak. Ahazten dute, ordea, jatorriak jatorri eta identifikazioak identifikazio, hizkuntzak ematen duela euskalduntasuna eta horixe dugula izate kolektibo bateko kide izateko modurik inklusiboenetarikoa.

Gai horri eskainitako liburu batean, Ibai Iztuetak salatzen du “euskal kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremanari buruzko jarreraren artean, distorsionatuak eta distorsionatzaileak”<sup>8</sup> nagusi direla (2015: 183). Eta euskal kultura vs cultura vasca? Behin eta berriz erantzun berak bilatu baino gehiago, identitatearen, kulturaren eta hizkuntzaren inguruko diskurtso eta galdera berriak proposatzen ditu. “Identitatearen eta kultura gaien arteko harremana bi norabideen arteko zirkuitu batek lotzen duela” aurkezten du, “non identitateari buruzko diskurtso jakin batetatik kultur gaien garapen jakin bat eratorriko den eta, halaber, kultur gai jakinek eta horien gaineko diskurtsoek identitate mota bat ala bestea determinatuko duten”. Hortaz, euskararik gabeko euskal identitateari baden galdetzearekin batera, galdetu beharko genuke ea euskara posible ote den identitatearen inguruko diskurtso jakin bat izan gabe. Hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanean, bi norabideko zirkuitu bera proposatzen du. Eta eztabaidaren beharra aldarrikatzen du, “euskal kultura posible al da euskararik gabe?” galderatik abiatu ordez “euskara

<sup>8</sup> Jarrera horiek salatzen ditu “herri kontzeptuaren bazterketak eta gizartearen kontzeptuaren haizatzak ezaugarritzen dituelako”. *Herri* eta *gizarte* terminoak izango dira gakoak hizkuntzaren eta kulturaren arteko loturaz hausnartzeko. “Euskal Herriko hiritarrak Euskal Herrian bizi diren horiek guztiak ditugu, euren herri atxikipen edo sentimendua zein-nahi delarik ere; euskal herritarra, berriz, jatorria nahiz hizkuntza zeinahi duelarik ere, bere burua euskal herritartzat baino jotzen ez duena”. Bigarren go horri soilik heltzeak gure gizartearen gakoak aintzat ez hartzea ekarriko luke. Hiritartasunari soilik heltzeak, ordea, euskal kultura subkultura autonomikotzat hartzea; alegia, “euskarazko adierazpena hiritarraren arazo edo hautu indibidual izatera” lerratzea, “edota gehienez ere, gizarteko konnitate baten adierazpen apolitiko eta estetiko partikularra, estatuak promozionaturiko kultur adierazpen publiko zein pribatuaren normaltasunarekin edota hegemoniarekin nahastu ezin dena” (Iztueta, 2015: 183-185)



posible al da euskal kulturari buruzko diskurtso jakin bat izan gabe?” galderatik abiatuta (Iztueta, 2015: 295-296). Galdera berri horien aurrean artikulatu beharreko diskurtso berri hori eraikitzeko, elementu interesgarri asko aurkitzen ditugu nor izatearen eta gutasunaren proposamenetan (testuan aurkeztu ditugu). Alegia, Lorea Agirrek proposatzen duen moduan, problematizazio eta ikuspegi berriak zabaltzen ditugu euskararen gaia plazara ekarriz, bazterretik erdira ekarriz, kontziente eginez, horri buruz kontzientzia hartuz, ekinez eta eraginez. Eta, euskara gure *asabiya* artikulatzen duen ardatz gisa aurkeztuz ere, diskurtso berri bat aurkeztzen dugu identitatearen inguruan; ondorioz, jarrera dikotomiko eta banderizoak hautsi, eta ardatz berean artikulatzen dira identifikazio ezberdineko pertsonak, izate kolektibo komun batean (euskararen herri gogoan).

### Tradizioa eta modernitatea

Hizkuntzaren aferatik harago ere, eztabaida izaten da tradizioaren eta modernitatearen arteko ustezko talkaren inguruan, kultura gaiez aritzen garenean. Esan dezakegu eztabaida hori berezko ezaugarria dela subkultura gisa bizia izatera behartuak diren kulturetan. Aurretik aipatu dugun bezala, curriculumetik at edo akademiatik at geratzen den

kultura da; sustrai sendoko transmisio, sortze eta birsortzerik gabe, mendekotasun egoera batean dago; kondentatua dago fosilizatu, desitxuratu, gotortu eta desagertzera. Hortaz, ulertzekoa da, urteetako asimilazio politiken ondoren, modernitate likidoan diluitua izatearen beldurrak tradizioan gotortzera eramatea.

Hala ere, XXI. mendean “nor izateko” curriculum batez ari bagara, pentsatu beharko dugu ezinbestean oinarritzko elementu komun sendo batean ardazturik kultura sortu eta birsortuko duten subjektuak heziko ditugula. Alegia, kultura propioaren transmisioa bermatzearekin batera, kultura hori eraldatu eta birsortuko duten subjektuak. Ezin dugu ahaztu, hala ere, kultura aldatuz doan kontzeptua izanik ere “haren baitan badela beti badirauen elementuren bat, sustraizkoa edo substantziazkoa deitzen zaiona zeinaren gainean geratzen baitira kontingentzia historikoak. Kontingentziak nonbait gertatzen dira, zerbaiten baitan”, eta kultur nortasunak sustrai horren gainean eraikitzen dira (Iztueta, 2002: 14-15). Sustrai horren gainean sortu eta eraldatuko dugu gure kultura.

Ikuspegi horretatik, interesgarri iruditu zaigu hiru ahots gurera ekartzea. Egungo euskal kultur eszenan, haietariko bakoitzak

bere modura uztartzen ditu tradizioa eta modernitatea. Euskal kulturaren eta modernitatearen inguruko hiru ikuspegi adierazten dituzte. Hirurek, ordea, sustrai komun beretik edaten dute. Euskaraz, gure gutasunetik, partikular propio horretatik unibertsalera zabaldu eta berriro gurera bueltatuz. “Sagarra jo” dokumentalean (Novion & Rusiñol, d.g.) bildutako hausnarketak dira hirurak. Lehendabizikoa Gorka Urbizu dugu, euskal musikan marka guztiak hausten ari den Berri Txarrak taldekoa. Askotan, tradizioa mantendu nahian, muinik gabeko folklorismoan erortzen gara, Urbizuren ustez: “Nik uste dut folklorea inportantea dela, sinbologia baita ere, baina atzetik zerbait baldin badago. Bestela zerbait hutsala da eta batzuetan geure buruaren kontra bihur daitekeena”. Hortaz, goroldioak irents gaitzake. Herdoiltze horri aurre egiteko, askok sustrairik gabeko kultura moderno eta unibertsala proposatzen dute. Horren aurrean, Jon Maya koreografoak bien arteko uztardura bat proposatzen du dokumentalean:

“Batzuetan iruditzen zait berritasunaren eta modernotasun horren bilaketan edo nahi horretan, bagoazela gauzak egiten, egiten, egiten... baina oinarri askorik gabe. Nik uste gazteak, oro har honetan gabiltzan guztiak, kontzientzia hartu behar dugula, oinarri sendo bat eduki [behar dugula] eta gero horren gainean lanean hasi. Bestela arriskutsua izan daiteke oinarria galtzen baldin badugu eta ezerezaren gainean hasten bagara sortzen; egunen batean geratuko gara oinarri gabe eta sorkuntzarik gabe eta hori bai litzakeela pena”.

Hori ekidin nahian edo, “tradizioa oinarri hartuta bertatikan urratsak” ematea proposatzen du Mayak, “ikuspegi garaikide batetik sortzeko edota beste arte ikuspegi batzuekin fusioak, batuketa lanak egiteko”. Uztardura horretatik eraiki dezakegu “kultura sendo eta errotua daukan herri bat, baina baita ere ikuspegi zabal eta garaikide eta unibertsal bat daukana”. Ildo beretik, uztardura hori euskaldunon berezko elementu gisa aurkezten du Kalakan musika taldeko Jamixel Bereauk:

“Euskaldun gizakia, euskaldun kultura, euskara, oraindik bizirik da habilitate horri esker. Hori da adaptatzea eta gauza berri batzuk kanpotik hartzea eta asimilatzea, bereganatuz, eta zerbait berria asmatuz. Baina gauza berri hori beti euskalduna izaiten da. Eta, nire ustez, hori podere haundi bat da gizaki batendako edo populu batendako”.

Euskal kultura garaikidearen erreferentzetat har ditzakegun hiru ahots horiek partikularren eta unibertsalaren arteko harremana azaltzeko erabili dugun kiribil bikoitzaren mugimendu bera proposatzen digute tradizioaren eta modernitatearen arteko aferan. Elementu folklorikoetatik ihesi, muinean, gure gutasunean oinarrituriko kultur transmisioa eta sorkuntza aldarrikatzen dituzte. Ikuspegi horrek bat egiten du aurreko ataletan azaldutako “nor izate”arekin; alegia, munduan euskaldun gisa posizio, kontzientzia eta ekite bat izateko kulturarekin.

Eztabaidak eztabaida, eta diskurtso berri bat egituratuta ere, honako hau izango da gako nagusietariko bat curriculumaren eta euskal kulturaren aferan: komunitatea bagarela eta izate kolektiboa ematen digun kultura-oinarri komuna badugula onartuta ere, “estatu gabeko [hortaz, hezkuntza sistema

burujabe bat eraikitzeo eskumenik gabeko] herria izanik, Espainiarrak edo Frantsesak diren kulturetan oinarritutako curriculumak ezartzen dira gure eskoletan” (Bilbao, 2003: 41). Ez dugu gure kultura oinarrituriko curriculum ofizialik. Gure kulturari dagokiona zer den eta besteekin batera duguna zer den bereiztea zaila bada ere, argi dago kultur erreferente propioetan ardaturiko curriculumak beharrezkoa dugula euskaldun gisa “nor izateko”.

Kulturari dagokionez, nor izateko curriculumerako proposamen gisa atal honetan garatu dugunaren haritik, uko egiten diogu gureak ez baizik eta besteak diren erreferenteetan oinarrituriko curriculumetan euskal dimentsioa txertatzeari (bestela jokatzeko subkultura izaera eta mendekotasun harremana onartzea izango litzatekeela ulerturik). Hortaz, kultur erreferente propioetan oinarrituriko euskal curriculum bat defendatzen dugu; partikularretik unibertsalera kiribil bikoitzean zabaldu eta bilduko dena, hizkuntzaren baitan artikulatuko dena eta sustrai sendoak mantenduz birsortu eta berrasmaturiko dena.

### 3) Lurraldea Nortasunaren geografiaz

Unean uneko egitura juridiko-administratiboetatik eta proiektu politiko konkretuetatik harago, “lurraldearen kontzeptua, oinarritzko elementua da herri baten nortasun kolektiboaren eraikuntzarako” (Iztueta, 2001:15-17). Eta ez soilik lurralde fisikoa, baizik eta baita horren gainean irudikatzen dena ere; alegia, curriculumaren bidez zilegiztatzen dugun lurraldearen irudia. “Euskal Herriak (...) beti izan du herri berbera izatearen kontzientzia, eta batasun hori elementu kultural eta linguistikoaren inguruan gauzatu izan da eta egun, herri gisa bere osotasunean eraikitzeo, ezinbestekoa da lurralde batasuna, lurraldea, lehen esan dugunez, herri nortasunaren elementu osagarria delako [atxikitzen zaizkion kultura eta hizkuntzarekin batera]”. Elementu kultural eta linguistikoez gain, bada borondate kontu bat ere, kontzientzia hartze kontu bat. Horrek ez du zerikusirik lurraldearen gaia ere hautu ideologiko partikularren parametroetan kokatzen dutenen planteamenduekin. Borondatea edo kontzientzia aipatzen dugunean, hizkuntza eta kultura komun batek ardaturiko *asabiya* horrek ematen digun izate kolektiboaren inguruko lurralde kontzientziaz ari gara. Alegia, *asabiya* edo herri gogo hori biltzen duen espazio geografikoaz. Hori ere, identitatea bezala, ikuspegi sinkroniko zein diakroniko batean eraikitzen da.

Lurraldea, beraz, hizkuntzari lotua agertzen zaigu ikuspegi horretatik. “Euskal Herria euskararen lurraldea da, baita euskararen herria ere: euskaraz mintzatzen den herria. Hizkuntzak ematen dio nortasuna taldeari zein lurraldeari, hots, gizataltzea eta lurraldea dira euskararenak” (Ezkurdia, 2004: 55).

#### Euskaraz nor garenon lurraldea

Nortasun kolektiboaren elementu garrantzitsua izatearekin batera, hizkuntzaren beraren eta, hortaz, kulturaren eta nortasunaren biziraupen, transmisio eta birsortzerako funtsezko aldagai gisa aurkezten dute zenbaitek lurraldetasunaren gaia (Ezkurdia, 2004: 55-56):

“Euskararen lurralde historikoa aldarrikatzen da, bertako ingurunearen ezaugarri etnokultural eta historikoetan oinarritua, euskarak bizi ahal izateko bere lurraldea eta bere gizataldea behar dituelako beretzat. Euskarak biltzen gaitu. Aldarrikatzen den lurraldea euskararena da, ezaugarri etnolinguistiko bateratsuak dituen herriarena: Euskarak, egoera azpiratu eta diglosikoan eta bere lurraldea erdararekin konpartiturik, dagokion lurraldea beretzat aldarrikatzen du, hizkuntza batek bere lurralde propioa behar baitu iraupena ziurtatzeko”.

Testuan zehar zenbait autoreren hausnarketetan oinarriturik hezurmamitzen ari garen diskurtso berri edo berritura egokitzeko asmotan, “euskara”z entitate abstraktu gisa hitz egitetik euskaraz bizi nahi dugunon komunitateaz hitz egitera pasa gaitezke. Alegia, Gurutze Ezkurdiaren hitzak berriz hartuz, euskaraz bizi nahi dugunon eta euskararen *asabiya*-n ardaturik nor garenon lurraldea aldarrikatzen dugu; komunitate gisa, nor izateko lurraldea eta euskara behar ditugu. Aldarrikatzen den lurraldea euskaldunona da, jatorri eta identifikazio indibidualetatik harago euskara ardatz komun dugunona. Gure *asabiya*, egoera azpiratu eta diglosiko batean, eta gure lurraldea, hizkuntza, kultura eta nortasun hegemonikoekin konpartiturik, lurraldea aldarrikatzen dugu, izate kolektiboa duen talde batek bere lurralde propioa behar baitu iraupena ziurtatu eta sustrai propioetatik abiatuta sortu, asmatu eta eraldatzeko.

### Mugaraino goaz

Beste zenbaitek, ikuspegi horren aurka eginez, esango dute ez duela zentzurik egun Euskal Herritzat hartzen dugun eremu geografikoari –zazpi lurraldez osatua– euskararen herria (edo, esan dugun moduan, euskaraz nor garenon herria) esatea eta haren gaineko lurraldetasun aldarrikapenik egitea. Horretarako, argudiatuko dute euskararen presentzia oso urria edo hutsaren hurrengo dela eremu geografiko horretako lurralde zabal askotan. Eta euskararen herriaren muga geografikoen inguruan eztabaidan ari garelarik, Tuterako Argia ikastolarekin egingo dugu topo; Maulen ireki berri den Xübukota haur etxe euskalduna ezagutuko dugu; edota Assa ikastolak (Ebro ibaiaren ertzean, Lapuebla de Labarca) 1994an antolaturiko Araba Euskarazeko kanta entzungo dugu irratian: “hor konpon, ze arraio; mugaraino goaz; hor konpon, ze arraio; Araban euskaraz; hor konpon, ze arraio; mugaraino goaz; Araban, euskaraz, mugaraino goaz!”.

Lurraldetasunaren kontu horretan, eremu geografikoaren mugak eta haren antolaketa politikoa gakoetariko bat izango dira. Hala ere, artikulua honen xedeari atxikirik, ez gara sartuko euskaldunon komunitateak izan beharreko antolaketa juridiko-politikoaren aferan (zerikusirik baduenik ukatu ezin daitekeen arren). Baina bada Ezkurdiak (2004: 56) mahai-gaineratzen duen beste elementu bat: lurraldearen barne eraketa. “Euskal Herriko lurralde historikoen arteko uztarketa, elkarren arteko harremanak sustatzea, proiektu bateratsuak egin ahal izateko”. Bigarren horrek badu loturarik hizkuntzak eta kulturak biziraun, garatu eta birsortu/berrasmatzeko beharrezkoa duten esparru geografiko batuarekin, baita lurralde geografikoak taldearen identitatearen eraikuntzan duen garrantziarekin ere. Batasun horretarako, “garrantzitsuenetari-

koa hezkuntza sistema eta curriculum nazionala dira” (edo nor izateko curriculum).

Ondorioz, esan dezakegu lurraldetasun irizpidea duen curriculum batek lurralde horren irudikapena eta errepresentazioa transmititu eta elikatu behar dituela, nor den komunitatearen lurraldea oinarri gisa aintzat hartzearekin batera.

### 3. EKITEKO CURRICULUMA: EGITEN DUGUNA GARA

Lorea Agirrek 19. Korrikarako prestaturiko testuaren eta Idure Eskisabelek euskararen *asabiya*-ren inguruan formulaturikoaren ildotik, nor izatearen inguruan aritu gara. Eta nor izate hori edukiz eta kontzeptuz bete dugu aurreko orrialdeetan, euskararen *asabiya*-n txirikordaturiko nortasunaren zutabe diren hizkuntza, kultura eta lurraldea aztertuz. Hala ere, izatearen definitze hutsak ez gaitu nor egiten. Agirrek berak Bilbon aldarrikatu zuen bezala, “auzia ez da izan ala ez izan (...) kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara. Izatea egitea da”. Eta egite edo ekite horretan lekua hartzea, bazterretatik erdira etortzea; lokaztea, bustitzea, sortzea, ematea eta hartzea. Izatea lekua hartu eta eremu askeak sortzea da; galdetzea, gozatzea, eragitea, eraikitzea... Hezkuntzara ekarrita, nor izango diren pertsona kritiko, sortzaile eta ekintzaileak hezi behar ditugu; beren ekiteaz aske izango direnak.

Nor izateko curriculumaren inguruan ari ginelarik galdetzen genuen moduan, gehienok partekatuko dugu xede hori. Baina aztertu beharko genuke zer ari garen adierazten horren muinean eta zer egiteko duen edo izan behar duen curriculumak norabide horretan.

Curriculum eta boterea aztertu ditugunean, argi geratu da estatu hegemonikoek euren ezagutzaren hautuaren bidez egia bakar, normalizatu eta zilegi gisa transmititu eta barnerarazten dutela euren erreproduktzioarako beharrezkoak dituzten izatea zein ekitea. Freirek bere zapalduaren pedagogian definitzen duen “hezkuntza bankario”arekin pareka dezakegu curriculumaren ikuspegi hori; Freirek azaldu bezala, ezagutza horretara eta horrek ezarritako botere harremanera alienatua geratzen baita ikaslea (edo zapaldua).

Botere harremanetan oinarrituriko gizarte baten erreproduktziora baino gehiago, “izaera soziopolitikoak duelako, gizarteak aldatzera zuzenduta egon beharko luke curriculumak. Gizartearen aldaketa subjektuaren prestaketan datzala jakinik, berak izan behar du bizi duen errealtatearen aldatzaile eta egoera berriaren eraikitzaile. Hori gauza dadin, ingurua modu kritikoz aztertu eta ulertzeko gaitasunak landu behar dira eskolan”. (Bilbao, 2003: 30). Testuinguru hori aztertu eta ulertzeaz gain, hura eraldatzeko gaitasunak ere landu beharko lirarteke.

Ez dira gutxi xede horrekin urteetan zehar proposatu diren pedagogia aktibo berriak. Puntu horretan, komenigarria ikusten dugu testu honen sarreraren plazaratutako hausnarketa berriz hartzea. Ez ote gaude aktibismo pedagogikoak jota? Ez ote gara ari “zelofanezko paper koloretsuetan bilduta eta hitz teknikoz eta neutroz itxuratuta” datozen eta marketin politiko “pedagogia aktibo berriak” aplikatzen ari, haien atzean

dagoen muina zalantzan jarri gabe? Hausnarketa horretatik, zergatik eta zertarako galderak berreskuratzearen beharra azaldu dugu.

Testuinguru horretan, kompetentzietan oinarrituriko curriculum-a dugu proposamen ezberdinetan ekiteko eta ekinez ikaste-ko planteamendu nagusia. "Euskal Curriculum-a" egitasmoak berak horrekin bat egiten du. Ikasleak gizaki, gizartekide eta izadikide gisa hezteko xedearekin, 5 hezkuntza kompetentzia orokorretan oinarrituriko curriculum bat proposatzen du egitasmo horrek: pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi, eta egiten eta ekiten ikasi. Eta, hortik abiatuta, garatu beharreko kompetentzia metadiziplinarrak, diziplinarteko kompetentziak eta diziplina barneko kompetentziak zehazten ditu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2005: 17-36).

Egiten izateko (eta ekiteko izateko), kontuan hartzeko proposamena izan daiteke kompetentzia orokorretan ardazturiko curriculum bat. Hala ere, zenbait galdera egin beharko genizkioke:

Zein da kompetentzia horien oinarria? Eta zein da kompetentzia horien xedea? Alegia, zergatik eta zertarako ekin? Galdera horiei ematen diegun erantzunaren arabera izango da egungo gizartearen (zein nortasun hegemonikoaren) erreproduktzioa bideraturiko curriculum bat, edo, bestela, ekinez eta nor izanez egungo gizartea eraldatuko duten subjektuen hezkuntzara bideraturiko curriculum bat.

Beraz, kompetentzia horiek testuinguru zehatz batean oinarritu behar dute (ez baitira kompetentzia berak garatu behar Euskal Herrian ekiteko eta Alemanian, Italian edo Uruguaiaren ekiteko). "Nor izateko curriculum-a" atalean azaldu dugun testuinguruan oinarritu beharko lukete, *asabiya* horren baitan biltzen den komunitateko kide gisa ekiteko.

Behin kompetentziak testuinguru zehatz batean ekiteko oinarriturik, haien zergatia eta helburua zehaztu beharko dugu. Alde horretatik, azterketa kritiko zorrotza egin beharko genuke kompetentzietan oinarrituriko curriculumaren inguruan, ez baita kasualitatea proposamen horren bultzatzaile nagusi Jacques Delors politikari frantziarrabesteak beste Frantziako estatuko Ekonomia eta Finantza ministro, Europako Batzordeko presidente eta Maastrichteko Ituneko bultzatzaile nagusi izatea aurrez. Hala ere, beste artikuluko baterako utziko dugu hori.

Gurera bueltatuz, eraldaketa xede duen curriculum batez ari bagara, Freireren zapalduaren pedagogia iturritik edan dezakegu gure planteamenduz hausnartzeko. Alegia, kompetentziak bai, baina ikasleek beren egoeraren gaineko kontzientzia kritikoa garatuz, beren egoeraren zergatiak ulertu eta egoera horiek eraldatzeko ekiteko. Hau da, Freirek definituriko "kontzientziazio prozesua" gauzatuko duten ikasle kompetenteak hezteko. Bide hori ezagutza berdinen arteko "dialogo"an eraikitzen den praxi gisa ulertu beharko dugu. Ezagutza askatzailea praktikaren eta haren gaineko hausnarketa erreflexiboaren arteko harreman dialektikoan sortzen dela defendatzen du Freirek; beste era batera esanda,

ekinez eta horren gaineko kontzientziaren bidez izatea, nor izanez askatzea. Prozesu horren bidez, ikasle izateari utzi eta bere praktikaren bidez jendartea eraldatzen duen subjektu historiko izatera pasatzen da ikaslea. Ikuspegi horretatik uztar ditzakegu pedagogia kritikotik proposatzen zaizkigun askapenerako pedagogia eta metodo dialogikoa eta aurrez testuan planteatu dugun ekinez nor izateko curriculum-a.

Ikuspegi hori baztertu eta egungo gizartera egokituko diren ikasle kompetenteak hezteko xede duen marko pedagogikoa, nahita edo nahi gabe, kompetentzien inguruko proposamen utilitarista eta ondorioz erreproduktzailea egiten ariko da. Muina zalantzan jarri gabe, curriculumaren ikuspegi hegemoniko bera "zelofanezko paper koloretsuetan" bilduz.

Muinari helduz, Lorea Agirrek dioen moduan, curriculumaren aferan ere "menpeko izateari utzi, eta ahalduntzea da kontua. Euskaldun gisa ahalduntzea, herritar gisa ahalduntzeko. Jabetzea. Boteretzea. Autodeterminatzea".

#### 4. EKINEZ NOR IZATEKO MARKO PEDAGOGIKOA: EUSKAL CURRICULUM-A

Euskal Herriak ez du eskumenik testuan zehar proposaturiko elementuak bere horretan bilduko lituzkeen curriculum ofizial bat eraiki eta hezkuntza sisteman ezartzeko. Hortaz, ofizialki behintzat, ez dago bide legalik ikasleak ekinez nor izateko eskola curriculum baten arabera heztere dagokionez.

Hala ere, sarreran aipatu dugun bezala, hezkuntza komunitateak eta, oro har, herriak hamarkadak daramatza hezkuntza propioaren norabidean urratsak egiten. Eraikuntza auzolan horretan, "Euskal Curriculum-a" egitasmoa izan dugu azken urteetako mugari nagusia. Hutsuneak, kritikak eta eztabaida terminologiko zein diskurtsiboetan sakontzeko beharra onartuta ere, egitasmo hori dugu marko pedagogiko eta kultural komun bakarra. Euskal Curriculum-a da, gaur egun, proposamen integral bakarra hizkuntza, kultura eta lurralde erreferenteak eskaintzen dizkiguna euskararen *asabiya*-n hariilkatutako nortasun kolektibo bat eraikitzeko. Eta hura dugu, bestalde, erreferente horietan eta ikuspegi kritiko batetik kompetentzietan oinarriturik planteamendu bat egiten duen egitasmo bakarra. Azken urteetan, izan dira bestelako proposamenak ere, baina, oro har, erreferente hegemonikoen gainean euskal dimentsioa txertatzera mugatu dira, askoz jota.

Egitasmoak ibilbide oparoa izan du, 2003. urtean Udalbiltzak, Sortzen-Ikasbatuazek eta Ikastolen Elkartek prozesua abiarazi zutenetik. Prozesuan zehar, 320 eragile eta herri mugimenduren ekarpenak bildu ziren. Hortaz, partaidetzan oinarrituriko herri prozesu batez ari gara.

Elkarlanean oinarrituriko marko komuna definitu bazen ere, gerora ez da bide komun eta adosturik egin haren definizio zehatzerako eta aplikaziorako. Ikastolen Elkartek adostutako marko komun horretan oinarritu, EKI proiektua gauzatu eta aplikatzen ari da ikastoletan (egun, kultur erreferente propioetan oinarrituriko material didaktiko bakarrenetarikoa eskaintzen du).

2003. urtean abiatutako elkarlana bere horretan geratu zen, eta, egitasmoa modu bateratuan aplikatzeko biderik ez egoteaz gain, ez dago tresna bizi gisa ulertzen dugun curriculum-a ebaluatu eta etengabe berritzeko gune komunik.

Horrez gain, jada aipatu dugun bezala, gune eta estrategia komunak adostuta ere, oraindik ere Euskal Herriak ez du esumenik ofizialki hezkuntza sistema osoan aplikatzeko.

Jarraian, aurrera egiteko landu daitezkeen zenbait proposamen egingo ditugu:

- Curriculum-a definitzeko, aplikatzeko, ebaluatzeko eta etengabe berritzeko gune komun bat sortzea (herri ikuspegi batetik zenbait eragile bilduko dituen).
- Oinarri horretan ardazturik, materialen sorkuntzan bidea egiten jarraitzea (eta ez soilik testuliburuari loturik, baizik eta berrikuntza pedagogikorako planteamendu baten barnean).
- Partikularretik unibertsalerako ikasprozesuen barnean eta herri prozesuaren balioa lehen planora ekarri, herriz herri garatzen ari diren herri curriculumak indartu eta sustertzea, Euskal Curriculumaren erreferentziarekin.
- Euskal Curriculumaren arabera jardungo duen ebaluazio agentzia propioen sorrera aztertzea.
- Ikasle ororen euskalduntzea bermatuko duen murgiltze eta mantentze eredu ezartzea, ikasle euskaldun eleantunak hezteko helburu izanik.
- Prozesu horri guztiari lege babesa ematea.

## LABURBILDUZ

Testuan zehar azpimarratu dugun bezala, curriculum-a eta boterea hertsiki lotuak daude. Lehenengoaren bidez egiten den ezagutza hauak, hain zuzen, izate eta ekite modu zehatzak legitimatzen ditu. Horren aurrean, ezinbestekoa da hausnartzea zer oinarri bildu behar dituen curriculumak XXI. mendeko Euskal Herrian norbanako zein kolektibo gisa askatzeko. Hausnarketa horretan, nor izateko eta ekinez izateko curriculum bat eraikiz joan behar dugu. Curriculumak, identitate kolektibo zein indibidualaren eraikuntzan duen garrantziaz oharturik, bestelako nortasun bat eraikitze oinarriak jarri beharko ditu.

Pertsona gisa zein komunitate gisa nor izateko, hain zuzen ere, proiektu identitate askatzaile bat artikulatzen da euskararen *asabiya*-ren inguruan. Horren oinarriak hauek dira: hizkuntza (nor izateko eta hizkuntzaren auziaren demokratizazioarako), kultura (erreferente propioetatik euskaran ardazturik partikularretik unibertsalera abiatuko dena, kiribil bikoitzeko bidea eginez, sustrai sendoen gainean sortuz eta eraldatuz) eta lurraldea (euskaraz nor izan nahi dugunon eremu geografikoaren artikulazioa eta horren gaineko irudikapena). Nor izateko ekitea da gakoa curriculum arloan ere. Horretarako, muinik gabeko aktibismo eta ekite pedagogikoak alboratu, eta planteamendu bat garatu behar dugu, gure errealitatean oinarritua, ikaslea subjektu eraldatzaile gisa hezteko.

Azken urteetan egindako proposamenak kontuan hartuta, "Euskal Curriculum-a" egitasmoa dugu marko pedagogiko eta kultural bakarra "ekinez nor izateko" edo "euskahaldun gisa subjektu eraldatzaile" izateko. Hortaz, egitasmoaren mugak onartuta ere, proposatzen dugu hura berriz hartu eta ekin-dako bidean jarraitzea, ildo berriak jorratuz eta ibiltakoetan sakonduz.

Hezkuntza eta curriculum aferetan ere, "kontua ekitea da. Eta nor izatea, herri hau euskaraz eta euskaratik arnasa berriz sortu, birsortu eta ahalduntzeko. Eta nor izatea, euskahaldunduz guztiok ahaldunduko gaituen herri bat sortzeko. Izatea ekitea da. Egiten duguna gara". Euskal Curriculum-a eginez eta haren barnean ekinez, izan gaitezen nor.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

AGIRRE, L. (2015). *Bagara nor*. Hemendik jasoa: <http://www.argia.eus/albisteak/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>

AGIRRE, L. (2012). *Gaur egun euskaldun izatea eraikuntza eta hautu kontzientzia bat da*. Hemendik jasoa: [http://www.aedelkatea.com/index.php?option=com\\_content&view=article&id=429:lorrea-agirre&catid=59:artikuluak&Itemid=223](http://www.aedelkatea.com/index.php?option=com_content&view=article&id=429:lorrea-agirre&catid=59:artikuluak&Itemid=223)

ARBELAITZ, L., EIZAGIRRE, E. & LOPEZ, A. (2015). Hizkuntza-aren presioa alde aldatzera goaz. *Argia*, 2455. 43-46.

AZKARRAGA, J. (2010). *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa*. Eskoriatza: LANKI-Mondragon Unibertsitatea.

BILBAO, B. (2003). *Curriculum-a eta kultura Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

ESKISABEL, I. (2015). Amaiur berri baten alde: emakumeena, prekarioena, euskaldunena. *Jakin*, 208. 107-119.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA, KRISTAU ESKOLA, SORTZEN-IKASBATUAZ (2005). *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum-a*. Oinarritzko Txostena. Azpeitia: Gráficas Zubi.

EZKURDIA, G. (2004). *Identitatea eta ingurunea curriculumean*. [Doktorego tesia]. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

FERNANDEZ, I., MEDRANO, L. & SERNA, M. (D.G.). Ikastolen kultura parte hartzailea sortu nahian: hezkuntza komunitate dialogikoak. Euskal Curriculum-a, Herritarren ekarpena. Hemendik jasoa: [https://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Hezkuntza\\_Komunitate\\_Dialogikoak.pdf](https://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Hezkuntza_Komunitate_Dialogikoak.pdf)

HIK HASI. (2003). Hezkuntza Komunitate Dialogikoak. Partaidetasuna eta eraldakuntza oinarri dituen ametsa. *Hik Hasi*, 76. 8-15.

IZTUETA, I. (2015). *Cultura vasca vs. Euskal kultura*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, P. (2002). Euskal Curriculumari eskola kentzen. *Hik Hasi*, 71, 8-17.

IZTUETA, P. (2000). *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

NOVION, N. & RUSIÑOL, I. (D.G.). *Sagarra jo. Madonnak euskaraz kantatzen duenean*. Hemendik jasoa: <https://sagarrajo.com/eu/>

OTEIZA, J. (1963). *Quoque tandem...!*. Donostia: Auñamendi.

SARRIONANDIA, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Iruñea: Pamiela.



# ORIOKO CURRICULUMA SORTZEN

## IÑIGO GAITON, RUBEN IGLESIAS

Irakasleak. Orioko Curriculumak Sortzen taldeko eragileak

## EIDER SALEGI

Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan.  
Jakintza lerroa. HUHEZI Mondragon Unibertsitatea

### SARRERA

Hezkuntza, normalean, eskolarekin loturik irudikatzen dugu, baina hori baino gehiago da. Hezkuntza jendarte bateko belaunaldien arteko loturan oinarritzen da. Hezkuntza, eginkizun soziala da, herri eginkizuna. (Euskal Curriculumak, Herriarren ekarpena, 2006)

Ekarpen honen ildotik eta Euskal Curriculumari eskutik helduta hasi ginen Orioko Curriculumak sortzen 2012 an. Argi geneukan herritarren historia, tradizioa eta nortasuna bilduko zituen hezkuntza proiektu bat jarri nahi genuela martxan, herriaren izaera biltzen duen dokumentu pedagogiko baten beharra ez baita kontu berria. Begia Orioko eremutik harantz zabalduz, Euskal Herrian bertan, herritarrek kezka handia erakutsi dute hezkuntza kontuen inguruan. Orioko ere ez da salbuespen hezkuntza esparruko kezka eta tentsioari dagokionean. Etorkizunean ondorengoei transmitituko diegunak kezkatzen gaitu, eta horren harira, nahitaezkoa ikusten dugu gure izaera definitzea; horrela errazagoa zaigu nondik gatozen jakin, eta nora joan nahi dugun adostea. Hau guztia herritarren artean egitea da gure asmoa. Herriaren eta hezkuntzaren arteko loturak balore handia dauka eta aurrerantzean euren artean etengabe elikatzea lortu nahi dugu, hori da gure erronka nagusia. Zergatik ordea? Bada, herri baten etorkizunean hezkuntzak berebiziko garrantzia duelako. Hezkuntza ikasketxearen eta herriaren arteko zerbait denaren kontzientzia piztu nahi dugu, hezkuntza prozesuan eduki bertakoagoak txertatuz, ikasleek bizitoki duten ingurua behar den bezala ezagutu eta uler dezaten. Herriko eragileei hasieratik adierazi diegu curriculumeko zati garrantzitsua direla, kolektibotasun horrek emango baitio aberastasuna proiektuari.

Horrez gain, jendartearen azken urteetako norabideari erreparatuta, jasaten ari garen homogeneizazioak herri bakoitzaren berezitasunak nabarmentzera behartzen gaitu, mundua beste modu batetara ulertu eta eraiki nahi badugu behintzat.

### PARTE HARTZEA ARDATZ, AUZOLANA ARNAS

Orioko Curriculumak zerbait berezia badu, sortze-prozesua da hori. Metodologia parte-hartzaile baten alde egin dugu apustu lehen momentutik, horrek dakartzan arrisku eta zailtasunen kontziente garelarik.

Curriculumak sortzeko ardura adituen esku uzteko tentazioa egon daiteke sarri, baina gure kasuan, herritik herriarentzat egin nahi dugu. Proiektuak ondo irtengo badu, modu kolektiboan eta denon ekarpenak kontuan hartuz egin delako izango da, herritik herriarentzat eta bizirauteko arnasa auzolanetik hartuz.

Herriaren kokapen eta bisualizazio ariketa planteatu nahi da, neurri handi batean. Horrek, atzera eta aurrera begirako zailtzak eta galderak planteatzen dizkigu, derrigor erantzun beharrekoak: zertan datza Orioren eta oriotarren nortasuna? Zer dugu komunean oriotarrok eta zer eduki nahi dugu etorkizunean? Zer du Oriok emateko Euskal Herriari eta oro har munduari? Zer transmititu nahi diegu etorkizuneko herritarrei?

#### *Herriatik herriarentzat*

Gure proiektuaren hastapenetan, kontziente ginen Orioren izaera definitzeko ariketa ez litzatekeela herriko ikastetxetatik soilik bideratu behar. Hori, proposamen murrizta edo erdibidekoa litzateke. Galdera horiei erantzutea ez baitagokie soilik aditu, pedagogo eta irakasleei; hori herritarren lana ere bada.

Euskal curriculumaren esperientzia erreferentziatuz hartuz, Igor Arroyok (2006) dionaren harira, herri eragileek eta herritarrek zer esan handia dute, bi norabideetan, curriculum bat osatzerako orduan. Hori geure egin dugu curriculum propioa sortzerako orduan. Udalbiltzak Euskal Curriculumaren inguruan eztabaida soziala bideratzeko ardura hartu zuen, guztiz funtsezkoa zen eztabaida: zer nolako pertsonak hezitu



nahi ditugu Euskal Herrian? Zer nolako jendarte sortu nahi dugu etorkizunari begira? Eta eztabaida horretan, herri eragileek eta herritarrek zer esan haundia izan zuten. Guk ariketa hori gure herriko esperientziara ekarri dugu.

### **Herritik eskolara**

Herritar eta herri eragile ugari ari dira Orion lanean, nor bere alorrean. Guztiek, bakoitza bere esperientziatik abiatuta, ekarpenak egin ditzakete herriko curriculumean. Adibideak, hamaika: esaterako, ekologiaren arloan dabilzanek ekarpena egin dezakete ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntzaz; eta berdin euskalgintzan, emakume mugimenduan, kirolean, ongizatean, komunikabideetan, kulturgintzan eta beste hainbat alorretan.

### **Eskolatik herrira**

Belaunaldi berrien heziketa ez da eskolan hasi eta amaitzen; familiar, lagunartean eta kalean ere gauzatzen da. Horregatik, eskolak ezin du berak bakarrik euskal haur eta gazteen heziketa bideratu. Jendartearen beste eremuek ere lagundu eta parte hartu behar dute heziketa prozesuan.

Beraz, lotura eta nolabaiteko artikulazioa aurkitu behar da hezkuntza eragileen eta gainontzekoen artean. Herritar asko izaera eta lan-eremu ezberdinetako herri eragiletan biltzen dira, eta herritar horien ekarpena biltzea ezinbestekoa da curriculum propio bat osatzeko garaian. Herri eragileak dira, nor bere alorretik, herri proiektua definitzen eta lantzen ari direnak. Herri eragileak dira, etengabeko aldaketan dagoen mundu eta jendarte honetan, aldaketa horien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna daukatenak. Eta, hortaz, herri eragileek egin behar dute ekarpenik handiena hezkuntzak bermatu beharreko jakintza, abilezia eta, batez ere, baloreen aukeraketan.

Esan bezala, herriaren eta eskolaren arteko lotura hori guztiz beharrezkoa da; Orioko curriculumaren definizioan, batetik, eta curriculumaren garapenean, bestetik. Herri eragileak jakitun dira beren funtzio hezitzaileaz eta horietako asko hezkuntza egitasmoak sustatzen ari dira, bai eskoletako programetan zuzenean parte hartuz, bai eskolaz kanpoko ekintzen bidez, eta baita hezkuntza ez-formalaren alorrari ekarpenak eginez ere.

## **PROIEKTUAREN FASEAK**

### **ABIAPUNTUA**

Orioko curriculuma idaztearen beharra ez da norbanako edo talde baten nahi edo ilusio batetik bakarrik sortzen. Prozesuan parte hartzaile izango diren eragileen arteko topaketak dira proiektuaren aurrekari nagusiak.

2010 urteko azaroan O3ten.HSN (Oriko iruten. Hezkuntza Sistema Nazionala) hezkuntza jardunaldiak antolatu zituen Orioko Independentisten Foroak, hezkuntzak egunerokotasunean, nazioaren eraikuntzan, norbanakoaren garapenean, historian, euskal kulturaren transmisioan eta abarretan duen garrantziaz ohartuta. Gure helburua herritarren artean Hezkuntza Sistema Nazionala iruten hastea zen, Orion sekula egin ez zen ariketa praktikoa bat martxan jarritz. Horrela,

Mugabek kudeatzen duen Esperientzia Eskolako, Orioko Herri Ikastolako eta Zaragueta Herri Eskolako ordezkariak bildu ziren jardunaldien bueltan. Baita Maria Maestra Haurreskolako eta Danbolin musika eskolakoak, Txurumuski aisialdi taldekoekin batera. Hezkuntza sistema propioa ez izateak sortutako mugak ezagutuz, hausnarketa prozesu bat jarri zen martxan. Hortik, bi helburu nagusi finkatu ziren etorkizunerako: alde batetik, Orioko hezkuntza esparruko eragileek osatutako aholku mahaia sortzea eta bestetik, Orioko Curriculum propioa sortzen hastea.

### **HARRIA, HERRIA, IRRIA**

Lehen jardunaldi haiek, hiru kontzepturen baitan antolatu ziren: Euskal Harria, Euskal Herria eta Euskal Irria.

Kulturaren transmisioaz eta eraberritzeaz aritu ginen Euskal Herria atalean. Atzera begiratu eta euskaldunon joan etorrian ezinbestekoak diren gertakariak aztertu ziren. Ez Dok Hamairu taldea eta euskal kulturaren suspertzeaz aritu zen Benito Lertxundi, Beñi Agirre Nabarralde elkarteko kideak "500. urtemugan 1512: Nafarroaren konkista" hitzaldia eskaini zuen eta Bilgune Feministako Edurne Epeldek hezkuntza, emakumea eta hezkidetzaren zituen hizpide.

Euskal Herria multzoan, gaur egungo hezkuntza sistema izan zen eztabaidagai. Azkenaldian izandako aldaketak aztertu eta hezkuntza propioaren bidea egiteko beharrezkoak diren elementuak identifikatzen saiatu ginen Orioko hezkuntza eragileek osaturiko mahai inguruan. Horrez gain, Euskal Herriko hezkuntza sistema ere aztertu zen; hezkuntza ereduaz aritu ziren Euskal Herriak Bere Eskolako Ainhoa Larrabe, Hik Hasi aldizkariko koordinatzaile Arantxa Urbe eta Joxemari Azurmendi, eta Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*.

Euskal Irriak haurrak izan zituen protagonista, haurrak zoriotsu izateko hezi behar baitira, eta hezkuntzak norberaren nortasuna eta zorientasuna bilatzen lagundu behar duelako.

Hezkuntza eragileez gain, profil ezberdinetako jendea bildu zen publikoan eta eztabaidetan iruzkin interesgarriak eginez.

O3ten.HSN jardunaldiak mugari dira, aurkezten dugun proiektuaren zutarrak bertan atera ziren ondorioetatik ekarriak direlako.

Orioko Curriculum sortzeko erabakia hartuta eta izango zituen ezaugarriak definituak izanda, fase ezberdinak aurrerikusteko beharra genuela konturatu ginen. Horrela bada, jarraian azalduko ditugun pausuak ematen joan gara. Aipatu behar dugu ezinbestekotzat jotzen genuela horrelako proiektu bat aurrera eramateko Orioko hezkuntza eragileen eta Udalaren babesa.

Lehen urratsa, 2011ko udal hauteskundeen ostean udalarekin harremanak bideratzen hastea izan zen. Fase ezberdinetan herritarren parte hartzea nola bermatu asmatzea izan da proiektuaren erronkarik handiena. Orioko Udala eta Orioko Independentisten Foroa jakitun ziren proiektuaren zabalatasunaz eta zailtasunaz. Horrela, Orioko Curriculum sortzeko gutxi gorabeherako ibilbide bat zehaztu zen:

**OINARRIZKO LAN TALDEA SORTU:** proiektua bideratzeko lan taldea indartzea izan zen 2012. urteko lehen egitekoa. Eragile eta taldeekin harremanak bideratzeko gaitasuna izango zuena eta batez ere, horrelako proiektu batean hartu emanak eta elkarlana kudeatzeko ahalmenarekin. Bestalde, proiektua sartzera zihoan fase berriaren ezaugarriak kontuan izanik, taldearen izena aldatzea adosten da: Orioko Independentisten Foroa izatetik, Orioko Curriculuma Sortzen izateara.

**PROIEKTUAREN SOZIALIZAZIOA:** Herriko eragileen eta herritarren artean proiektua sozializatzea izango da urteko egitekorik garrantzitsuenak. Helburua bakarra da, aurkezpen ofiziala egin aurretik talde eta norbanakoen atxikimenduak gehitu eta aurkezpenean herri indarra baliatzea. Herriko eragileei transmititu zaiena hau da: herriko curriculuma osatzea guztioi dagokigu, ez dela hezkuntza eragileen lana bakarrik. Bakoitzak bere esparruan edo interesa duen horretan eragin behar du.

**O3TEN.HSN 2. jardunaldiak (2012/2013 ikasturtea): IJITOEN AKORDIOA ETA HERRIARI AURKEZPENA:** Bigarren jardunaldi batzuen antolaketari ekiten diogu, oraingo honetan fokoa herrian ezarri eta beste herrietan buruturiko parte hartze prozesuak aztertuz. Euskal Herria atalarekin eta Wert ministroak abian jarri nahi duen LOMCE hizpide hartuta ekin geniei jardunaldiei. LOMCE legearen aukerak eta arriskuak mahai gainean jarri zituzten Paul Bilbaok, Mariam Bilbatuak, Ainhoa Larrabe eta Ikoitz Arresek. Nabarraldeko Beñi Agirrek Gipuzkoarren jatorrian eta Orioko historian arakatzeko lagundu zigun eta Orioko Curriculuma Sortzen taldeak, curriculuma zergatik eta zertarako sortu nahi zen aurkeztu zien herritarrei.



Euskal Herria atalak herritarrak, auzolana, nortasuna eta kolektibitatea izan zituen oinarri. Orioko bi ikastetxeetako haurrek elkarlanean margotu zituzten autopista azpiko zutabeak larunbat goiz batez, eta beste ekimen batean, beste herrietan burututako parte hartze prozesuetako esperientzia ezberdinak entzuteko parada izan genuen: Aitor ikastolakoek beraien ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko proiektua aurkeztu zuten eta Larrabetzuko eskolakoek, beraien jantoki autogestio-natuko esperientzia ederra.

Euskal Irria atalean, taldekideok proiektuaren aurkezpen ofiziala egin genien herritarrei, tartean Maialen Sarasuak guretzat ekoizturiko film labur batekin. Xedea, herritar guztiei gure

asmo eta aurrera atera nahi genituen helburuen berri ematea zen, sortzen hasi nahi genuen Orioko Curriculuma xehetasunak azalduz. Ondoren, "Ijitoen Akordioa" sinatzea izan zen ekitaldiaren muina. Oriotarrok beti izan gara ezagunak "ijito" izenez, eta hortik dator akordioak izen hori izatea. Akordio horretan, curriculuma izaera eta hartu beharreko konpromezuak idatzi genituen herriko alderdi politiko (EAJ, Bildu eta Orain plataforma) eta hezkuntza eragile guztiek (Orioko Herri Ikastola, Juan Zaragueta Eskola, Mariamaestra haurreskola, Danbolin Musika Eskola, Txurumuski Aisialdi Taldea, Esperientzia Eskola...), eta bestelako elkarte zein norbanakoen sinadurak bilduz. Hori guretzat oso garrantzitsua izan zen, kotoi artean gordeta dugu sinadura guztiak jasotzen dituen liburua! Gainera, festa giro alai eta atseginean, Porrotzek bertaratutako guztioi irifar laranjak margotu zizkigun.

## IJITOEN AKORDIOA

ADIERAZTEN DUGU:

*Hasteko, euskal curriculuma garrantzia azpimarratu nahi dugu; hau da, uste dugu Euskal Herri osorako baliagarria izango den erreferentzia kultural eta pedagogiko bat edukitzea garrantzi handikoa dela.*

*Gure kultur ondarearen adierazpenik nabarmenena euskara da. Azken berrogei urteotan, bereziki, ahalegin handiak egin dira euskara ikasteko eta euskarazko irakaskuntza hedatzeko. Gauza bat da, ordea, euskarazko hezkuntza eta, bestea, hezkuntza euskalduna. Euskalduntzeko, euskara ezagutzeaz gain, euskal gizartean sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak bereganatu behar ditu ikasleak. Horrekin batera, XXI. mendeko euskaldunak hezi nahi baditugu, euskaldun gaurkotuak behar ditugu, behar berriei egokituak eta aurrerapenetan txertatuak.*

*Orioko curriculuma euskal curriculuma logika berean ulertzen dugu. Herriko ondare kulturala definitzeak ikaragarriko balioa du; izan ere, herriko nortasunaren ikurrak definitzearekin batera, herriaren biziraupena bermatzen ari baikara. Bide horretan Orioko curriculuma euskal curriculuma osagarri gisa ulertzen dugu, hari egindako ekarpen gisa, bat egiten baitugu euskal curriculuma filosofia eta apustu estrategikoarekin.*

*Herriko curriculuma eraikitzeak, ezinbestekoak dira hezkuntza komunitate osoaren —eta, oro har, herritarren— gogoetak eta ekarpenak. Zeresan handia dauka herri osoak, azken finean oriotarron belaunaldi berrien heziketaz ari baikara. Horregatik, Orioko curriculuma osatzeko egitasmoan behar-beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntza, kultur eta gizarte eragile guztien parte hartzea, herritarrena.*

*Eta, ondorioz, honako hau ADOSTEN DUGU:*

*1.- Orioko curriculuma eraikuntza kolektiboa da; beraz, denon ardura, konpromisoa eta lana eskatzen du. Bide horretan nork bere hondar aletxoak jartzeko erabakia hartzen dugu, proiektuak dituen beharrezkoetara egokituz eta modu aktiboan lan eginez.*

2.- Behin definizioaren fasea amaituta, Orioko curriculumak batzar batean onartuko dugu, oriotarron oniritzia jaso dezan.

3.- Herrian gauden hezkuntza eragileek Orioko curriculumak aplikatzeko ardura hartzen dugu.

4.- Udalak, Orioko curriculumak duen garrantziaz jabeturik, proiektu hau osatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko zein teknikoak emateko ardura hartzen du.

Orion, 2013ko maiatzaren 4an.



03.HSN02. Hezkuntza jardunaldietan, Ijitoen Akordioa sinatu ostean ataratako argazkia. Arg: Orioko Curriculumak Sortzen

### 2013-2014 IKASTURTEA: DATU-BILKETA FASEA

2013-2014 ikasturteari datu-bilketa deitu diogu. Helburu nagusia Orioko Curriculumak osatuko duten arloak adostu eta edukiak zedarritzea izan da, eta modu paraleloan, herrian proiektua sozializatzen jarraitzea.

Datu-bilketa faseko informazio bilketa hau lau alorren baitan sailkatuta burutu da: Giza eta Gizarte Zientziak, Natur eta Osasun Zientziak, Euskara eta Musika. Noski, alor bakoitzaren esparrua Oriora mugatu dugu guztiz, gai bakoitzari ahalik eta ikuspegi lokalena ematen saiatuz.

Curriculumak sortzea bezain lan konplexua da egin nahi dena herritarrei azaldu eta eurak ere partaide direla sentiaraztea. Hau oso presente izan dugu beti. 2012/2013 ikasturteko helburu nagusietako bat zen proiektua Orion aurkeztu eta sozializatearena, eta hau O3ten HSN 2. jardunaldietan jendaurreko pare bat saiorekin burutu genuen. Esan bezala, azken ikasturte honetan ere etengabe jardun dugu horretan.

### BI LAN ILDO NAGUSI: TXOSTENAK OSATZEA ETA PROIEKTUA SOZIALIZATZEN JARRAITZEA

2013/2014 ikasturte hasieran hurrengo hilabeteetarako estrategia planteatzean, bi lan ildo nagusi bereizi genituen: barnera begirako edo ezkutuko lana eta kanpora edo herritarrei begirakoa.

Talde barneko edo ezkutuko lana, plazara atera gabe egiten diren lan mordoxkak osatzen dute. Ikasturte amaieran entregatu beharreko txostena osatzea izan da ildo honetako zeregin nagusia, horretarako beharrezkoak izan diren jarduerekin: arloetako adituekin banakako bilerak, talde-eragilean txostena osatzeko ardura hartu dutenekin lan-saioak, Karkara herri

## CURRICULUMAK SORTZEA BEZAIN LAN KONPLEXUA DA EGIN NAHI DENA HERRITARREI AZALDU ETA EURAK ERE PARTAIDE DIRELA SENTIARAZTEA. HAU OSO PRESENTE IZAN DUGU BETI.

aldizkariko artxiboan bilaketak, taldeko bilerak, kofradiara, interpretazio-zentrora eta udaletxera bisitak...

Bestelako zereginak ere izan ditugu: ikasturte hasieran elkarre gisa erregistratzeko burokrasia lanak, udaleko ordezkariekin bilerak... Kurtsoko lehen hilabeteak ezkutuko lanetan eman genituen gehienbat, bilketa-fasea pixkanaka martxan jarri eta abiarazten.

Kanpora begirakoan, herrian proiektua sozializatzen jarraitzeko egin diren ekintzak sartuko lirateke. Hauek dira 2013-2014 ikasturtean burutu diren ekimenak:

- **Herribil ekitaldian parte-hartzea.** Orioko kultur eragile ezberdinek Gabonetan urtero ospatzen duten jaialdia da Herribil. Orioko Curriculumak bertan presentzia izanda, herritarrek herriko talde ezberdinen artean gu ere hor gaudela ikustea lortu nahi genuen. Ekitaldi jendetsua izanik oso, herritar askorengana iristeko aukera aparta iruditu zitzaigun.

- **“LOMCEri... izkin! + Nafarroako hezkuntza egoera” hitzaldia.** LOMCE legearen aplikazioak Euskal Herriko hezkuntza sisteman sor ditzakeen ondorio larriak erreparatuta, herritarrei lege honi izkin egiteko aukerak aurkeztu nahi genizkien. Hizlari lanetan, gure taldekide bat aritu zen. Horretaz gain, hilabete batzuk lehenago Nafarroako D ereduko irakasle eta ikastetxe batzuek bizi izan zuten egoera surrealisten berri eman nahi genuen herrian. Sortzeneko kide bat eta Iturrama Institutuko irakasle oriotar bat izan genituen hizlari.

- **Hezkidetzak hizpide, gosari-tertulia:** Taldeak hasieratik argi izan du curriculum bat sortzekotan, horrek berritzaile eta gaurkotua izan behar duela. Hezkidetzak edo ingurumenaren zaintza modu integralean landuko dituen curriculumak osatu nahi izan dugu hasieratik.

Gosari-tertulia honekin, oriotar belaunaldi ezberdinek emakume eta gizonen arteko harremanak nola bizi izan dituzten konparatzea zen helburua, gero ondorioak atera eta txostenean sartzeko. Larunbat goiz batean Saltxerak talde feministako, Etxeluze Gaztetxeko eta Esperientzia Eskolako adineko jendea gosaritarako elkartu genuen, eta ia hiru orduz

esperientziak trukatzan aritu ziren hezkidetzan teknikari lanetan aritzen den herritar baten gidaritzapean.

Saioa bideoz grabatua dago eta Gizarte zientzien arloko material osagarrian txertatu da.



Generazio ezberdinetako oriotarrak, emakume eta gizonen arteko harremanez iritzi trukaketan. Arg: Orioko Curriculuma Sortzen

- **“Haurren kirola, lehia ala heziketa bide?” hitzaldia.** Kirolaren arloari ere gure ekarpena egin nahi izan diogu. Gaia nola tratatu erabakitzen ari girela, Zarautzen duten EKAP-en (Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma) berri izan genuen. Euren helburu eta lan ildoekin bat gentozela ikusita, beraien esperientziak Oriora ekarri genituen, gurean Eskola kirolari ematen zaion trataeraz hausnarketa pizteko.

- **Beste herrietan hitzaldiak.** Inguruko herrietatik, hitzaldi pare batean parte-hartzeko gonbidapenak jaso genituen. Orioko Curriculuma lantzen ari garela jakiteak interesa piztu du zenbait herritan, eta gure esperientziak kontatzera joanda, herri curriculumak lantzen hastera animatu nahi izan dugu jendea.

Getarian geure taldeko bi lagunek eman zuten hitzaldia eta Zarautzen ere bai, azken honetan “Azpeitia ezagutzen”-eko partaideekin batera.

- **Zutabe margoketa:** Lehen azaldu dizuegun bezala, aurreko ikasturtean Orioko autopista azpian dauden bi zutabe margotu genituen larunbat goiz batez. Herriko ikastetxeetako haur eta gurasoei zuzenduta zegoen ekintza eta oso gustura geratu ginen emaitzarekin.

2013-2014 ikasturtean, zutabe margoketa errepikatu dugu, baina ezberdintasun garrantzitsu batekin: ikasleak eskola orduetan joan ziren irakasleekin margoketak egitera. Horrela, ikastetxeetan gure proiektua txertatzen hasi gara, apurka bada ere, Orioko Curriculuma presentzia izaten has dadin.



Orioko autopista azpiko zutabeak, herriko ikastetxeetako ikasleek margotu ostean. Arg: Orioko Curriculuma Sortzen

- **Kurtso amaierako ekitaldia:** Datu-bilketaren lehen fasea amaitu dugula herritarrei azaltzeko, ekainaren 13an ekitaldi ireki bat egin genuen herriko Kultur Etxean. Bertan, 2013/2014 ikasturtean bildutako informazioaren berri eman zen. Ondoren, ikasturtean zehar egindako ekitaldi guztien bideo laburrak bota genituen, ekimen bakoitzaren helburuak azalduz.

Jarraian, Udaleko ordezkariak bildutako informazioa eman zitzaizen disko gogor batean, eta ikastetxeetako ordezkariak ere bertan izan ziren euren atxikimenduak gurekin jarraitzen zuela azalduz. Azkenik, Orioko Curriculumean sartuko diren abestietako laupabost jo eta kantatu genituen, atzean sortu ditugun partiturak proiektatuta.

- **Orioko abestiekin, kantu-liburuxka:** Ikasturtean zehar Orioko abesti esanguratsu batzuk aukeratu eta partiturak sortu ditugu, ikastetxeetako haurrek txirularekin jotzeko moduan utziz. Behin bilketa lana eginda, kantu-liburuxka bat argitaratu genuen Karkara aldizkaria eta Euskaraz Bizi-bizi egitasmoarekin elkarlanean. Honela, ikasteetxetatik haratago, herritarren eskura ere jarri gure lana.

## KOMUNIKAZIOA: ERAGINKORTASUNAREN ETA OIHARTZUNAREN MOTORE

Ahalik eta herritar gehien ziprztindu nahi dituen proiektu batean, komunikazioak berebiziko garrantzia du; barnekoak, talde-eragileak ondo funtzionatu eta lan sarea arin eta eraginkor mantentzeko. Kanpokoak, egindako lanei ahalik eta oihartzun handiena eman eta herritarren partaidetza sustatzeko.

Egungo sakeleko mugikor, gailu garatu eta interneteko baliabideei esker, komunikazio horretarako erraztasunak ditugula esan daiteke. Ordea, gurea bezalako egitasmo batean informazio asko mugitzen da batetik bestera (bileretako aktak, adituen ekarpenak, txostenerako informazio osagarria...) eta hori ondo kudeatzeak, asko lagunduko dio proiektuaren garapenari.

2013-2014 ikasturteko koordinatzailearen zereginetan, komunikazio lanek pisu handia izan dute. Bere ardurapean egon da bilerak antolatu eta deialdiak egitea, aktak jaso eta taldekideei bidaltzea, arloetako adituekin informazioa eta ekarpenak biltzea, talde-eragileko kideen artean harremanak

erraztea, interneteko blog eta sare sozialak edukiekin eguneratzea, ekitaldiak antolatu eta prentsan hauen berri ematea eta ikus-entzunezko materiala ekoiztea.


**-Barne komunikazioa:** Taldeko barne komunikazioa e-mail bidez eman da eta orokorrean, ondo funtzionatu du. E-mailak irakurri eta erantzuteari garrantzi handia eman zaio, bileren arteko tarte luzea izan den garaietan batez ere.

Koordinatzailearen ardura izan da taldekideen harreman-sarea bizirik mantendu eta erabakiak e-mailez hartu/eztabaidatu behar izan direnean, horiek denen ahotsa kontuan izan eta ahalik eta azkarren hartzea.

**-Kanpora begirako komunikazioa:** Herritarrei proiektuaren martxaren berri emateko, Orioko Curriculumak Facebooken duen profila astean behin berritzen saiatu gara gutxienez. Kuriositate gisa aipatu, gure aktualizazioetan "Atsegin dut" klikatu duen jende dezente ez dela Oriokoa. Bistan da, Euskal Herriko herri ezberdinetan jendea herri curriculumak osatzen hasteko gogoz dagoela.

Bestalde, Karkara Orioko aldizkariak duen webgunean Blog bat zabaldu genuen 2013ko abenduan. Herrian jende dezentek bisitatzen du Karkararen gunea, eta gu hor egonda, jendearengan arreta piztea errazagoa izan zitekeela iruditu zitzaigun. Sare sozialen gisan, saiatu gara bloga ere astean behin behintzat freskatzen.

2012-2013.urtean zabaldu genuen webgunea ere berritzen joan gara material berria sortu ahala. Bertan, gure proiektua aurkezteko sortu genituen bideoez gain, txostenak, dokumentazioa, argazkiak... aurki daitezke. Webgune hau nahikoa estatikoa izan da azken ikasturtean, gure lan martxaren berri emateko lehen aipaturiko bloga erabili baitugu.



[www.orio3ten.org](http://www.orio3ten.org) webgunearen azala ageri da irudian. Arg: Orioko Curriculumak Sortzen

Ekintzaren bat antolatu eta horren berri eman nahi izan dugunean, saiatu gara Orioko Karkara aldizkariak gain ohiko hedabideetan ere muturra sartzen: Berria, El Diario Vasco, Naiz, info, Urola-kostako Hitza,... Euskadi Irrati Irratian elkarrizketa labur bat ere egin ziguten, eta lehengo urtean, Argiaren webbean eta ZuZeu orainkarian ere agertu ginen.

## TALDE ERAGILEAREN INDARGUNE NAGUSIA HORI IZAN DA; TALDEKIDE BAKOITZA EROSO SENTITZEN DEN LANETAN ARITU DA ETA LAN- KARGA HANDIKO GARAIK ARINAGOAK IZAN DIRA.

### TALDE ERAGILEA: PROIEKTUAREN BIZKARREZUR

2013/2014 ikasturtean Orioko Curriculumeko talde eragilea bederatzi lagunez egon da osatua. Lehengo urteko Ijitoen Akordioan sinaturikoa betez, herriko ikastetxe bakoitzeko ordezkari bana egon da taldean. Orain hiru urte proiektua martxan jarri zuen lagun taldetik bi partaide geratzen dira, beste guztiak lehengo urtean batu ziren taldera.

Taldekide gehienok akademikoki hezkuntza munduko jendea izan arren, lan ezberdinak banatzerakoan ondo funtzionatu dugu: batzuk jendaurrean hitz egiteko erraztasuna dute, beste batzuek administrazioko lan burokratikoak eroso egiteko, ekitaldien produkzioan abilak direnak ere badira, txostenak erredaktatzen lagundu dutenak, estrategiak planifikatzen ibili direnak...

Talde eragilearen indargune nagusia hori izan dela azpimarra daiteke, taldekide bakoitza eroso sentitzen den lanetan aritu da, eta lan-karga handiko garaiak arinagoak izan dira horri esker.

Bestalde, taldeak izan duen beste indargune nagusi bat giza baloreak ezerean aurretik jartzen asmatzea izan da. Honek hasiera batean erraza dirudi, baina lan karga igotzen joan ahala tentsio uneak ere igo egiten dira. Momentu horiek errespetuz eta egoki kudeatzen asmatu dugu ia gehienetan, eta hori taldearen lorpen handienetako bat izan dela esan daiteke. Denok gara jakitun Euskal Herrian izan dugun (eta dugun) egoera politiko aldrebesaz eta alderdikeria, iritzi politiko edo ideologia ezberdinak errespetatuz, lan taldeko kideon artean benetazko harreman sendoak uztaretzea lortu dugu.

**-Bilerak:** Bileren dinamikari dagokionean, taldea hasieran bi astetik behin hasi zen elkartzeko ikasturte hasierako martxa hartzeko, baina gerora maiztasuna jeitsi egin genuen. Taldekide gehienok beste mila saltsatan ere bagaude sartuta eta ez erretzeko hilabetean behin —edo biltzen amaitu dugu, inoiz hilabete eta erdiko tarte ere utzi dugularik. Ekitaldiak edo ez ohiko beste lanen bat zenean, bi astez behin ere elkartu gara. Aipatu bezala, maiztasuna egiteko lanen araberakoa izan da, baina lehengo urteko esperientzia gogoratuz, bilera kopurua jaisten saiatu gara ahal izan dugun neurrian.

Kide pare bat bileren dinamikan egon ez arren, aktak eta taldeko e-mailak jaso dituzte eta taldearen martxaren berri izan dute. Tartekako lan edo kontsultetarako ere eurekin kontatu da.

**-Taldekideon konpromezua:** Herritik herriarentzat sortu nahi den gisa honetako proiektu batek auzolanetik hartuko du arnas, eta auzolanak, konpromezutik. Taldekide bakoitzaren aldarte, zeregin, bizitza pertsonal eta beste mila aldagairen tankeran, partaideon konpromezu mailak gora beherak izan ditu ikasturtean zehar. Orokorrean jarduera eta burutu beharreko zereginak aurrera eman diren arren, bizpahiru taldekidek lan zama handia hartu dute eta aurrerantzean taldeak ondo funtzionatzen jarraitzeko, barne hausnarketa sakon bat egiteko premia sentitu dugu.

### GINARRIZKO DOKUMENTUAK: EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOTIK, ORIOKO CURRICULUM PARTIKULARRERA

Euskal Curriculumaren harira erditutako proiektu bat da Orioko Curriculum, bera du aitzindari eta erreferentzia nagusi. Hori, garbi adierazi dugu kanpoan eman ditugun hitzaldi zein argitaratutako dokumentuetan.

Gure herriko curriculum propioa sortzeko jardunean, auzolanean oinarrituriko metodologia baten alde egin dugu hasieratik eta horrek, gerrirainoko elurretan bidea zabaltzen dihardun mendizalea bezala sentiarazi gaitu sarri: bidegurutzetean ezker ala eskuinera jo erabaki ezinik, urrats txikiek bidea poliki irekiz eta tarteka, noraezean galduta.

Azken ikasturteko kurtsu hasieran dokumentua osatzen hastea (curriculum idazten hastea) tokatzen zitzagun, eta goian aipaturiko mendizalearen metaforak ondo deskribatuko luke momentu horretan taldekideok sentitutakoa. Herriko eragilean, udalaren, norbanakoan... babesa lortuta, nola hasi orain birtualiki proposatutakoa paper zuri hutsean errealitate bihurtzen?

Noraeza momentu horretatik atera eta tiratzeko hari muttur gisa, Euskal Herriko Curriculum Espezifikoko txostenak hartu eta herri mailara egokitzeari ekin genion, propio bihurtzen hasi ginen.

Curriculumaren terminologiari heldu genion lehenik. Euskal Curriculum Espezifikoa bada, Oriokoak beste termino bereizgarri bat behar zuen, bertakoa, lokala, propioa... Kontuari buelta batzuk eman ostean, "partikular" hitza erabiltzea egoki ikusi zuen taldeak eta horrelaxe utzi genuen: Orioko Curriculum Partikularra, bere Jarduera Partikular eta abarrekin.


Terminologiarekin jarraituz, Ebaluazio irizpide, Kontzeptu... izenak ere aldatu genituen: "Euskal Herriko mendiak" beharrean "Orioko mendiak" ipini, "Euskal Herriko arrantza" "Orioko arrantza"-gatik aldatu eta abar.

2. Zein gara? Eta zenbat? Orioko demografiaren egitura eta dinamika	
Kompetentzia partikularra	Ebaluazio irizpideak
<p>2- Orioko azken bi gizaldietan egon diren mugimendu demografikoak, arakak eta horien arazak eta ondorioak ezagutu informazio egokia aukeratu, adierazpen grafiko desberdinak interpretatu eta ezagutza hori adierazpen bide ezberdinez komunikatu, demografiaren dinamikak kulturari, hizkuntzari, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta elkarbizitzarako jarrerak lantzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orioko gizarte mugimendu demografikoari buruzko datuak eta esanirik, egungoak zein iragan hurbilekoak bilzeko gai da, eta horiek deskribatzen dituz demografia-kontzeptuak, grafikoak eta mapak zuzen erabili, eta denboran aldizkatu ondoren izandako aldatetaz, bereziki emigratzaileak eraginak, jabetzen da.</li> <li>- Oriokoak historian munduan zehar nola zabaldu diren ezagutzen du, hauen kopurua, bizileku nagusiak eta migratzaile mugimenduen dimentsio sozialari buruzko informazio bizitzeko teknologia berriak egoki erabili.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p>1. BIZTANLERIAREN EGUNGO EGITURA ORIOKO:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biztanleria guztia eta dantoliste demografikoa.</li> <li>- Adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera egitura.</li> <li>- Ikasketa maila, hizkuntza, jarduera sailtoak, etab.</li> </ul>	

**Orioko Curriculumeko Giza eta Gizarte Zientzien arloko oinarritzko dokumentuaren zatia.** Arg: Orioko Curriculum Sortzen

### LOGAREN BILAKERA, PROIEKTUAREN IBILBIDEAREN ISPILU

Orioko Curriculumeko logoa bi fasetan sortua da. O3HSN01 hezkuntza jardunalidetan erabiltzen hasi ziren logoaK Euskal Curriculumekoaren itxura bera zuen, "Euskal" hitza beharrean "Orioko" sartuta.



Hurrengo bi urteetan ere hori erabili zen, gure herriko proiektua, hein batean, Euskal Curriculumetik erditutakoa zela adierazteko. Azken kurtsoko hasierako bileretan ordea, logoa freskatzeko beharra ikusi genuen; Euskal Curriculumarekin zilbor-estea eten eta izaera propioagoa har zezan. Horrela, Euskal Curriculumeko espiral itxurako irudia mantendu genuen, Orioren izaera definitzen duten koloreak emanez: urdina, horia eta berdea. Atzeko fondoa ere naranjatik txurira aldatu genuen, Euskal Curriculumetik gehiago aldatu eta hasiera gindoazen ibilbide propioa argiago azaltzeko.

### ARLOETAKO ADITUEKIN ELKARLANA

Datu-bilketa fasea hasterako, lau arloetako herriko adituek nor lirarekeen idatzia genuen zerrenda batean, eta haietako batzuen laguntzeko prestutasuna ere bageneukan ordu-rako. Behin Euskal Curriculum Espezifikoko dokumentuak Orioko Curriculum Partikularrean egokituta, adituekin lehen bilerak egiten hasi ginen. Bilera hauek, koordinatzaileak egin ditu gehienbat, talde eragilea eta adituen arteko zubia bera izan da.

Atzera begiratuta, adituekin egindako lehen bilerak nahikoa trakets edo baldartzat ere jo daitezke: guk ez genekien oso ondo zer / nola eskatu, eta eurak ere ez zekiten nolako ekarpenak egin (orrialde kopurua, zehaztasun maila, edukien aukeraketa...). Hasieratik argi geneukan euren lana oinarritzko dokumentuetako kontzeptuak edukiekin osatzea zela, hori eskatzen genien, baina ekarpenak paperean islatzea ez

zen lan erraza, eredu gisa hartzeko erreferentzia argirik ez baikeuen.

Idea bat egiteko, galdera honek argi adierazten du lehen bilera haietan adituei plantatzen geniena: *“Zer jakin behar du Orioz oriotar ikasle batek DBH amaitzean, zu aditu zaren arlo horretan?”*

Pixkanaka, adituekin bilerak egiten jarraituta, behin-behineko curriculuma idaztea lortu genuen ekainerako.

Herriari adierazi diogun bezala, dokumentu hori eztabaidagarria da, prozesu-partehartzearekin batetik pasa eta herriak onartu beharrekoa. Gainera arloren bat osatzeko zailtasun dezente izan genuen (Giza eta Gizarte Zientziak), eta txostena hobetu daitekeela ikusita, argi adierazi dugu datu-bilketa fasea amaitzean aurkeztutako dokumentua (2014ko ekaina) lehen borradorea dela soilik.

### HERRITARREI ELKARRIZKETAK

Curriculumeko arlo ezberdinetarako informazio osagarri gisa, bizpahiru adineko herritar elkarrizketatu ditugu datu-bilketa fasean zehar. Bideoz grabatuta daude elkarrizketa horiek, eta gure ustez, balio handia hartuko dute denborarekin. Saiatu gara dokumentazio lan hori ahalik eta ondoen egiten, eta horretarako, aurrerontuaren zatitxo bat kameralarari bati ordaintzeko jaso genuen ikasturte hasieran.



**Patxi Danbolini elkarrizketa.** Arg: Orioko Curriculuma Sortzen

Orioz oso kontu interesgarriak kontatu zizkiguten elkarrizketatuek. Material horrek, curriculumeko gai bat baino gehiago lantzeko balio dezake. Adibidez, 91 urteko Patxi Oldien herritarrak Orion gerra pasa zeneko kontuak, gaztetan musika ikasi zueneko anekdotak... kontatu zizkigun. Elkarrizketa horretako bideoak, curriculumeko Musika arlorako (herriko musikaren historia), Euskara lantzeko (Orioko hizkera ederra baitu Patxi) eta Gizarte Zientzietarako balio dezake.

### ATE JOKA, DATU ESKE

Aipaturiko adituekin harreman eta adinekoen elkarrizketez gain, gure intereseko beste hainbat ate ere jo ditugu. Esaterako, herriko Kofradian azken hamarkadetan itsasontzi kopuruaren jeitsieraz galdezka jardun ginen, Interpretazio Zentroan Orio bisitatzen duten turistek datu eta herritik pasatzen den Santiago bideaz informazio eske, Udalean herriko biztanleen datu estatistikoen inguruan galdezka (ekonomikoak, soziolinguistikoak...)

### LAN-EREMUA, ORIO: ARLO BAKOITZAK HARTU DUEN IZAERA LOKAL EDO PROPIOA

Datu-bilketa faseak aurrera egin ahala, arlo bakoitza itxura hartzen joan zen. Herriko adituen aholku, talde-eragileko partaideon eztabaida eta lanketa dezenteren ostean, arlo bakoitzak Orioko Curriculumean izan beharreko izaera argi geratu zen:

**Euskara:** Euskara irakasteak ezin ditu helburu berak izan Orion, Donostian, Bilbon ala Tuteran. Leku batzuetan euskararen erabilpena kuantitatiboki sustatzea izango da lehentasuna, euskal hiztun kopurua igotzea. Besta batzuetan, Orion kasu, helburuak euskal hiztunen hizkuntza kalitatea hobetzeak behar luke jomuga.

Arnasgunea da Orio euskararentzat eta Euskal Herri osoko euskaldunontzat. Hau da, herri euskalduna da, euskara da nagusi herrian, eta naturala, normala, erraza da bertan euskaraz bizitzea. Orion lan egiten duen irakasleak ezin du ikasleei euskara irakastearekin eta euskaraz egitearekin konformatu. Hortik haratago doa arnasgune baten zeregina eta bertako hezitzaileen erantzukizuna.

Euskaldun kontzientek sortu behar ditugu Orion. Oinarritzko hizkuntza ideologia bat barnera dezaten lortzea da helburua. Orion ez ezik, herritik kanpo ere euskara erabili, aberastu, indartu eta zabaldu egingo duten euskaldun arduratsuek sortzea. Eta horretan zer egin handia du hezkuntzak ere.

**Musika:** Musika tresna aparta da herri bateko istorioak, pertsonaiak, xeblekeriak, esaerak, hitz propioak... transmititzeko. Arlo honetan, Orioko abesti ezagun eta ez hain ezagunen zerrenda bat egin dugu eta partiturak ikasleek txirularekin jotzeko moduan egokitu


**Natur eta Osasun Zientziak:** Arlo hau osatzeko Orioko Herri Natur Taldekoekin aritu gara lanean. Hasieratik, argi adierazi digute Natur zientzien irakaskuntzan ikasleei transmititu beharrekoa zer den: ohiko edukiez haratago, ikasleei naturaren zaintzarekiko kontzientzia pizten saiatzea.

**Giza eta Gizarte Zientziak:** Bi puntu argi bereizi zizkigun arlo honetan gurekin elkarlanean aritu zen adituak: Lehena, Orioren historiaren kontaketa Orio ibaia izan behar duela ardatz (ekonomikoki, linguistikoki, sorturiko tradizioengatik...). Bigarrena, gudariak borrokan eta arrantzaleak itsasoan zeuden bitartean, etxeetan umeak hezten geratzen zirenak emakumeak zirela. Emakumearen irudia ezkutuan egon da historiaren kontakizun gehienetan, eta curriculum berritzaile bat sortzeko lanean dihardugun honetan, ezin dugu mila eta bat alditan egindako akatsetan erori.

### MATERIAL BILTZAILEAK, EZ SORTZAILEAK

Orioko Curriculuma idazten gabiltzanetik, argi adierazi dugu gu ez garela ezeren sortzaile edo historia idazle, urteetan herritarrek egindako lana biltzea izan da gure zeregina: 25 urte bete berri dituen Karkara aldizkariaren ale zaharrak banaka erreparatu eta balio diguten edukiak zerrendatzea (Orioko historiak erreportajeak, herriko artistei elkarrizketak, artikulak solteak...), Orioko alor ezberdinen inguruan argitaratu diren

liburuetatik ikasleentzat baliagarri diren edukiak sailkatzea, herritarrek pasa dizkiguten bideo eta argazki zahar zein modernoak biltzea...



Irudian, Karkara aldizkariko lehen alearen azala. Arg: Karkara

Esan bezala, gu ez gara liburu idazle edo historialariak, baina aldi berean zerbaiten sortzaile ere bagara: oriotar askok hamarkadaz hamarkada utzi duten ondarea bildu eta proiektu pedagogiko partehartzaile baten idazleak.

Aurtengo ikasturtean curriculuma idazten hasi ginenean, lehen aipaturiko material sortzaile ez izatearen kontu horrekin zalantzak izan genituen. *“Baina, zein da ba gure lana? Adituek egiten dituzten ekarpenak jaso, eta horiek X foliotan erredaktatzea? Hala soilik ikasleek ikasi beharreko edukiak zerrendatzea?”*

Galdera horiekin ibili ginen ia kurtso bukaerara, eta idatzi genuen txostena behin behinekoa dela azpimarratu dugu sarri, zalantzak argitzen joan ginen, oraindik gairen bat erren xamar geratu baita

### 2014-2015 IKASTURTEKO LEHEN HIRUILEKOA

Lehenengo ikasturteko irailean, osatuta geneuzkan arloen dokumentuak herriko ikastetxeen esku utzi genituen, irakasleek baloratu eta euren ekarpenak egin zituzten. Txostenean galdetegi bat ere atxiki genien, proiektuaren balorazio orokor bat ere egin zezaten. Honats, bertan jasotako erantzun batzuk:

- *Orioko Curriculum sortzeak ikasleek gain irakasleentzat ere onurak ekarriko lituzke; herrian integratuta dagoen irakasleari hausnarketarako bidea emango dio eta etorri berria denari berriz, ezagutzea komeni den hainbat kontzeptu jarriko dizkio eskura.*

- *Egoki baloratzen dugu curriculum kompetentzien gainean eraikitzea, darabilgun eredu pedagogikoarekin bat dator,*

*gure proiektuak kompetentzitan oinarrituta baitaute. Denan, kompetentziek maila altuegia dutela iruditu zaie irakasle batzuei.*

- *Planteamendua izugarri gustatu zaigu. Tamalez, desoreka nabaritu dugu; arlo batzuk oso zehaztuak daude eta beste batzuk berriz, zehaztapena behar dute.*

- *Ikastetxeak bere denbora eskaini beharko dio Orioko Curriculumari, hau gogoz eta taxuz gauzatu dadin. Ikastetxeok transmisio lan handia egiten dugunaren jakitun eta ikasle guztiengana modu berean iritsi nahi dugunez, herritarrak denok garenez, gure denbora modu esanguratsu batean inbertitzearen aldeko gara.*

Urtarrilean txostenak bueltan jaso eta irakasleen balorazio desberdinak kontutan hartuz, dokumentuari aldaketa batzuk egin genizkion. Garrantzitsuena, behar bada, arloak orekatzeari izan zen. Euskara arlokoak, adibidez, besteen aldean zehaztapen gutxi zuen eta hau mamitzeari denbora dezente eskaini genion.

### PROZESU PARTEHARTZAILEA, HIRU EKINTZA ZUZEN HERRITARREKIN

Txostenek irakasleen iragazkia pasa eta nahikoa marduldu ostean, herritarrekin hiru ekintza zuzen burutu genituen, orduarte egindakoa partekatu eta euren ekarpenak biltzeko. Jarduera hauen antolaketari buelta pare bat eman eta partehartzaileei zerbait freskoa eskaintzen saiatu ginen. Egia esan, hiru ekimenak borobil atera ziren, bertaratutako oriotar kopuruaz gain jendeak jarrera oso partehartzailea azaldu baitzuen.

2015eko Martxoaren 28an Korrika Aguraindik pasatzen zela aprobetxatuz, *“Zabaldu arnasa korrika”* jarduera burutu genuen bertan korrika egitera aterata, curriculumeko Euskara arloarekin lotuta. Orioko euskararen arnasmeneetako bat da, eta bertan euskaraz bizitzea erraza eta normala da. Gozamina da herrian nonahi eta noiznahi euskaraz barra-barra aritu ahal izatea; baina gozamina ez ezik, ardura ere bada arnasmene izatea: birika gisa egin behar dugu lan, eta Euskal Herri osoari ekarpenen bat egiten saiatu, gure hondar aletxo gehitu. Orioko ikastetxeetako helburua ez da bakarrik Orioko euskara indartzea eta herrian euskararen geroa ziurtatzea. Herriko eskoletatik euskaldun kontzientzia sortu behar ditugu, euskal hiztun izatearen kontzientzia ez ezik, arnasmene bateko hiztun izatearen kontzientzia ere baduten oriotarrak.

Orioko Curriculumeko Euskara arloan *“Orioko euskararen arnasmene”* gaia txertatu genuen lehenengo ikasturtean, eta hizkuntzarekiko piztu nahi dugun kontzientziazio hori modu sinbolikoan adierazteko pentsatu genuen ekimen hau. Bestalde, kontzientziazioak barne sentimendu eta bizipenekin lotura zuzena duela pentsatzen dugu, eta aguraindarrek euskararen erabilera sustatzeko duten jarrera zuzenean ezagutu ostean, energia eta ilusio handiarekin itzuli ginen Orioko aurrerantzean ere lanean jarraitzeko.





Apirilaren 18an **“Oriio eta oriotarren historiaz, gosari-ter-  
tulia”** ekimena egin genuen, Giza eta Gizarte Zientzien ar-  
loarekin lotuta. Aurreko ikasturtean parekidetasuna lantzeko  
antolatutako gosari-tertua primeran atera zela kontuan har-  
tuz, formatu bera aprobetxatu eta ikastetxeetako irakasleak,  
gaiari aritu eta adituak diren oriotarrak eta noski, interesa  
duen herritar oro gonbidatu genuen gosarira. Herriko kultur  
etxean zerrenda bat jarri genuen parte hartu nahi zutenek  
izena eman, eta antolatzaileok saioak izan zezakeen di-  
mentsioa jakiteko.

Esperientzia aparta izan zen larunbat goizez bildu eta kafe  
beroaren bueltan gure herriko kontu zaharrez patxadaz arit-  
zea. Interesgarriena, behar bada, bertaratu zen herritar batek  
esan zuen bezala “hezkuntza munduarekin lotura zuzenik ez  
dugunontzat, eskertzekoa da ikastetxeetako irakasleekin ma-  
hai berean gosaltzeko aukera izatea, ikasleekin landu behar-  
reko edukiei buruz geure iritzia zuzenean elkarbanatuz. Horre-  
lako ekimenekin, errazagoa izango da eskola eta herriaren  
arteko zubi errealak sortu eta elkarlanerako aukerak izatea”.

Maiatzean **“Orioko natur ondarea ezagutzeko bizikle-  
ta-martxa”** egin genuen, herriko Herri Natur Taldeko lagu-  
nekin elkarlanean. Hauek curriculumeko Natur eta Osasun  
Zientzien arloko dokumentuari eginiko ekarpenetan oinarrituz,  
ikastetxeetako guraso eta ikasleekin batera herriko txoko  
ezberdinak aztertu genituen bizikletaz. Jarduera hau ohiko  
mahainguru edo hitzaldi formatuan egiteko aukera aztertu  
genuen hasieran, baina gaiak zerbait freskoagoa egiteko  
aukera eskaintzen zigula aprobetxatuz kalera atera ginen.  
Parte-hartzaileek oso ondo baloratu zuten ekimena, bertara-  
tutako askok herriko gune batzuk duten balio “ekologikoa”??  
ez baitzituzten ezagutzen.

### AZKEN PRODUKTUA SAREAN

Hasiera batean arloetako dokumentuekin paperezko  
liburuxka bat nahi genuen argitaratu, material digitala bilduko  
zuen DVD batekin batera. Ordea, berehala ohartu ginen  
euskarri horietan argitaratutakoa nahikoa itxia edo zurruna  
izango zela, behin argitaratu eta gero aldaezina. Kontuari  
pare bat buelta eman ostean, egun sareak eskaintzen dituen  
baliabideak erabiliz produktu argi, erabilterraz eta moldagarri  
bat sor genezakeela ohartu ginen. Dokumentuak sarean  
zintzilikatu genituen, eta material osagarria hauetan esteka  
bidez txertatu: bideoak, Karkara aldizkariako ale zaharren  
PDF-ak, argazkiak, soinu artxiboak, abestien partiturak...  
Curriculumua sarean edonoren eskura egonik, ikastetxeentzat

errazagoa izango da aurrerantzean sortuko dituzten ekarpen  
edo berrikuntzak txertatzea. Euskarriak eskaintzen duen  
beste abantaila argi bat zera da, curriculumerako interesgarri  
izan daitekeen sareko edozein eduki erraz txerta daitekeela  
bertan (aurrerantzean internet-en topa daitezkeen testu, irudi,  
bideo...).

Taldekideon iritziz, bete-betean asmatu dugu curriculumua sa-  
rean jarrita. Orioko Udalak duen Oriio.eus webgunean dago  
ikusgai (<http://orio.eus/eu/oriora/orioko-curriculumua>), eta ora-  
indik atal batzuk osatzeko badaude ere, ikastetxeak lanean  
hasteko tresna erabilgarria sortu dugulakoan gaude.



Bestalde, aurrerantzean sor daitekeen ikas-materialaren  
eredu gisa, Giza eta Gizarte Zientzien arlorako “Oriio,  
itsasoa eta industrialiazioa” izeneko bideo bat ekoiztu  
genuen, Xabier Alberdi historialariaren azalpenekin ([https://  
vimeo.com/130349080](https://vimeo.com/130349080)). Iruditzen zaigu arlo desberdinei  
buruz horrelako piezak sortzen joatea oso interesgarria  
litzatekeela. 10 minutuko pieza batean informazio asko  
sartzen da, eta bideoak bisualki erakargarriak eginez  
gero (herriko leku edo jende ezaguna sartuta, argazki  
zaharrek...), ikasleei herriko edukiak transmititzeko tresna  
oso eraginkorrak izan daitezke.

### AURKEZPEN EKITALDIA

2015eko ekainaren 12an aurkezpen ekitaldia egin genuen,  
proiektuaren azken emaitza herritarrei erakutsi eta curriculu-  
mak hauen onespina jaso zezan. Herriko jendeaz gain Eus-  
kal Herriko txoko desberdinetatik ere gerturatu zen jendea,  
eta gure ustez, honek balio erantsia eman zion saioari.

Ekitaldiaren nondik norakoak erabakitzean, bi helburu nagusi  
markatu genituen: batetik, azken ikasturteetan talde era-  
gileak izandako konpromezua eta mantentzen saiatu garen  
koherentzia argi azaltzea, eta bestetik, Oriio.eus-en argitaratu  
dugun produktua ez dela definitiboa azaldu eta jendea eus-  
karriak duen potentzialarekin geratzea; alegia, ikastetxeen  
aldetik borondaterik bada euskarri horrek eskaintzen dituen  
aukerez jabetzea.

Herriko jendeak esan izan digu inoiz gure proiektua abstrak-  
tu xamarra iruditu zaiela, maila teorikoan ados zeudela egin  
nahi genuenarekin, baina zaila ikusten zutela hori konkretatu  
eta errealizatzea. Aurkezpen ekitaldian curriculumua Oriio.  
eus-en erakutsitakoan ulertu eta ikusi zuten askok azken ikas-  
turteetan bisualizatu edo konkretatu ezin zutena. Egia esan,

guri ere kostatuta zitaizun guztia bilduko zukeen formatu egoki bat asmatzen, baina taldekideoi, eta ekitaldian izan zen jendeari ere, praktikoa eta erabilgarria iruditu zaigu sortu dugun lanerako tresna.

### HITZALDIAK BESTE HERRIETAN

Euskal Herriko hainbat herritan curriculum propioak sortzen hasteko geroz eta interes handiagoa dago. Horren harira, 2014-2015 ikasturtean hainbat herri bisitatu genituen gure proiektuaren berri emateko: Durango, Hernani, Oñati, Aramaio eta Mutriku, hain zuzen ere. Hitzaldietan izandako giro onak eta jendeak Orioko Curriculumagatik azaldutako interesak, energia eta indar handiak eman zizkigun aurrera jarraitzeko. Taldekideotzat esperientzia mundialak izan dira bisita hauek, eta ziur gaude aurrerantzean curriculum propioak hasiko direla herri hauetariko asko.

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean ere izan ginen Orioko Curriculumaz azaltzen, bertatik gonbidapen zuzena jasota. Hik Hasi-k Donostian antolaturiko "Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan ere azaldu genuen geure proiektua, eta 2015eko udazkenean Bilboko "Alternatiben Herria" ekimenean ere parte hartu genuen.

Orioko Curriculumaz sortzen aritu garenok, konpromezua sentitzen dugu beste herrietan gure lanaren berri eman, eta pixkanaka, herri curriculumak eginez Hezkuntza Sistema Propioa iruten joateko.

### ETORKIZUNA: IKASTETXEEKIN HARREMANA INDARTUZ, APLIKAZIORAT

Irakurri duzuen bezala, Orioko Curriculumaz Sortzen taldeak lau ikasturteko ibilbidea egin du dagoeneko. Poz, negar, izerdi eta barre askoren ostean, 2014-2015 ikasturtean taldeak atseden hartuko du. Muga jarri nahi diogu gure lanari, azken batean, honek aurrera jarraituko badu ikastetxeek duten benetako borondateagatik izango baita.

Gure nahia, urte batzuen buruan, pixkanaka, herriko ikastetxeen hezkuntza proiektuetan Orioko Curriculumaz txertatzen joatea da.

### ONDORIOAK

Ondorio argi bat, gure proiektuak maila birtualean oso ondo funtzionatu duela da. Ez dugu arazorik izan beharrezko atxikimenduak lortu eta jendearen onospena izateko. Gainera, egin ditugun aurkezpen eta ekitaldi batzuetan jendeak zorriondu eta guzti egin gaitu egindako lanagatik. Aldiz, maila errealerara jeitsi eta curriculum osatzen hasteko eguneroko dinamikan, nahi baino lagun gutxiago elkartu gara tarteka, eta horrek hausnarketarako arrazoiak eman dizkigu.

Taldekideontzat, esperientzia oso aberasgarria izaten ari da Orioko Curriculumaz sortzen jardutea. Lagun talde ederra sortu dugu, eta taldeak izan duen efizientzia maila ere altua izan da. Ez gara jende kopuruz soberan egon, baina egon garenok ahalegin handia egin dugu.

Herri guztiek dute curriculum bat. Herri guztietan daude eduki propio edo bereizgarriak. Guk ez dugu ezer asmatu Orioz,

dena aurretik gertatua, aztertua eta idatzia dago. Biltzea izan da gure lana, herriko kontuez argitaratu dena jaso, irakurri, arlo ezberdinetan adituak direnen aholku eta ekarpenak bildu, eta guzti hori modu pedagogikoan erabiltzeko moduan ari gara idazten.

Ez dakigu gure ibilbidea non, nola eta zertan bukatuko den. Hasieratik izan dugu oinez bidez poliki gozatzen ari denaren sentsazioa: Orioko Curriculumeko amaierako helburuei gehiegi erreparatu gabe, bideak berak izugarri aberastu baikaitu taldekideok; eta baita herria bera ere.

### ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ARROYO, I. (2006). *Herritarren ekarpena Euskal Curriculumari*. Euskal Curriculumaz, Herritarren Ekarpenean. Udalbiltza.



# NOLAKO HERRIA, HALAKO CURRICULUMA - NOLAKO CURRICULUMA, HALAKO HERRIA

JOXE MARI AUZMENDI

Hik Hasiren koordinatzailea

## SARRERA

Hezkuntzak pertsona arduratsuak eta libreak lortzea izan beharko luke xede, jendartea hobetzea helburu baldin badu behintzat.

Hori lortzeko bidean, lagungarri izan liteke oinarri-oinarrizko ildo batzuk lantzea:

-Jaiotzen den unetik hiltzen den arte, pertsonak gaitasun handiak dituelako uste sendoa izatea, arlo afektiboan, emotiboan, kognitiboan, fisikoan, etikoan, sormenean, artistikoan, eta abarretan. Horregatik, gaitasun horiek guztiak ongi garatzeko ingurune egokiak sortzea litzateke hezitzaileen egitekoa.

-Pertsona guztiak desberdinak dira. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, berezi egiten dutenak. Eta, aldi berean, besteekin egiten da jendea. Horregatik, pertsonen arteko harreman motak erabateko garrantzia izango du. Harreman horiek menpekoak izan ala berdintasunezko harremanak izan, erabateko eragina izango du horrek pertsonaren jokabideetan.

-Berdintasunezko harremanek komunitatea trinkotzen laguntzen dute (familia, lagunartea, elkartea, auzoa, herria...). Individualismoak herri tristeak sortzen ditu; komunitateak, berriz, bizitza, dinamismoa, parte-hartzea, balioen transmisioa eta elkartasuna eskaintzen ditu.

-Euskal Herria nazio bat den heinean, kultur komunitatea garatzen du. Euskarak egiten du euskaldun, eta kulturak herri-nortasuna eraikitzen laguntzen du. Euskaldun izatea mundua ikusteko eta interpretatzeko modu bat da, berea.

## BALIOEN TRANSMISIOA

Mundu globalizatu honetan, Interneten leihoa sakelako telefonoan eramatea ohikoa den garaiotan, nola interpreta dezake haurrak, gazteak edo helduak iristen zaion informazioa?

Aldaketa handiak gertatzen ari dira oso denbora laburrean. Gero eta azkarrago eta sakonago gertatzen dira aldaketa horiek. Eta, hain denbora laburrean gertatzen ari direnez, herritarrek egoera kontrolatu ordez, egoerak berak herritarra deskontrolatzeko arriskua dago.

Adibide gisa, hainbat gogoeta sor daiteke azkenaldian prentsan agertu den hainbat informazioaren inguruan:

-Zer pentsa dezake edozein herritarrek, gutxi batzuk (% 1ek baino gutxiagok) munduko aberastasun ekonomikoaren erdiaren jabe direla, eta, aldi berean, egunero milaka pertsona gosez hiltzen ari dela jakitean? Horren berri edozein unetan jaso dezake bere sakelari bertan, irudiak barne. Nola interpretatuko du jendea gosez hiltzea, aurrerapen teknologikoen ondorioz denontzako aberastasun nahikoa dagoenean? Zer balio mota ari zaizkio transmititzen? Dirua elkartasuna baino balio garrantzitsuagoa dela ondorioztatuko du? Nola eragiten du horrek guztiak bere heziketan?

-Zer burutazio izango du euskal gazte batek Japonian 13 eta 20 urte bitarteko bi milioi herritarrek beren etxeko gelatik atara gabe urteak pasatzen dituztela eta kanpokoarekin duten harremana pantailaren bidezkoa dela jakitean? Zerk eragin du *Hikikomori* fenomeno hori? Azken urteotan, oso zabaldua dago honako ideia hau: Interneten, dena dago. Zer da "dena"? Estatistiken arabera, pantailaren bidezko harremanak asko ugartzen ari dira. Behar sexualak ere pantailaren bidez betetzen omen dira. Baina gauza bera al dira harreman digitala eta zuzeneko harremana?

-Zer pentsa dezake ikasle batek, European egin berri den inkesta baten arabera, Espainiako estatuko biztanleen % 95ek politikariak lapurrak edo ustelak direla adierazi dutela jasotzean? Zer konfiantza izango du jendarte horretan? Zer etorkizun aurreikus lezake? Euskal Herria desberdina dela eta egoera hobean dagoela pentsa dezake hainbatek. Hala

ere, batez beste, egunero 4 edo 5 ordu igarotzen badira telebistaren aurrean, horrek guztiak herritarrengan eragina izango duela pentsa liteke, ezta?

-Euskal Herrian kokatuta eta hizkuntzen gaia hizpide hartuta, egin berri diren datu-bilketen emaitzek zera adierazten dute: azken hamarkadetan, euskara ezagutzen duen herritarren kopuruak gora egin du nabarmen, eta erabilerak, aldiz, ez. Hau da, gero eta jende gehiagok ezagutzen du euskara, baina ez da gehiago erabiltzen.

Egunero zer balio mota transmititzen ari diren eta horiek nola eragiten duten hausnartzeak eta nola jokatu asmatzeak izugarriko garrantzia dute heziketa-prozesuan. Horregatik, ezinbestekoa da hausnarketa kolektiboa egitea.

### PERTSONA LIBREAK ETA ARDURATSUAK

Pertsonak duen jakin-minari, ikertzeko gogoari, poza izateari eta oinarrizko beharrei era egokian erantzunda, pertsona libreagoak egiten arituko gara, ezta?

Haurrak bere sorreratik segurtasuna bizi badu, babestua eta maitatua sentitzen bada, berarengan sinesten duen ingurua baldin badu, gaitasun handiak dituela sinesten duen inguruaz elikatzen bada, errespetatua sentituko da.

Hasieran helduarekin lotura handia izango badu ere, inguru afektibo eta inguru fisiko egokiak aurkitzen baditu, gai dena egiten uzten bazaio, autonomia eraikitzen joango da: inguruarekin erlazionatzen, besteekin erlazionatzen, probak egiten, errepikatzen, ikertzen, ikuspuntua aldatzen eta testuinguruan jartzen. Horrela joango da bere ezagutza eraikitzen.

Testuinguru bakoitzean egiten denaren ardura hartzen ikasten joan behar da. Izan ere, jokaera bakoitzak ondorio zehatzak izaten ditu. Eta beharrezkoa da norberak egiten duenaren ardura hartzea. Hori guztia, eredu emanaz, hitz eginez, epairik egin gabe eta modu enpatikoan landuz; horrela, kritikotasuna eraikitzen joango da. Eta pertsona arduratsuago egiten lagunduko du horrek.

Gaur egun, inoiz baino gehiago behar ditugu pertsona arduratsuak. Izan ere, munduan, hain teknologia aurreratu dagoenean, edonork izugarriko onura edo kaltea egin diezaioke jendarte osoari.

Pertsona libreak eta arduratsuak eraikitzen joateko, ezinbestekoa da herritarren arteko harremanen paradigma aldatzea: haurrak eta helduak ahalmen handikoak direla aitortzea. Haurren eta helduen kultura gorena dela, pertsona bakoitzak bere kultura duela eta egin dezakeen ekarpena errespetatzen dela aitortzea... "Entzuten zaiola sentitzen duen pertsonak entzuteko jarrera izango du".

Paradigma-aldaketa horrek desberdinen arteko balio bereko harremanetara eramanez behar gaitu. Inork uste al du ingurukoak baino gehiago denik heldu, gizon, ama, zuzendari, alkate, gazte, indartsu, nagusi edo ikasle delako? Bakoitzak bere egitekoa eta ardura izango ditu jendartearen, baina ez du zertan beste inor baino "gehiago" izan.

Hausnartzen jarrita, zerk eragiten du etxeko bortizkeria? Zerk, emakumeen, haurren edo ahulen kontrako tratatu txarrak? Zerk, eskolako *bullying*-a? Hala gertatuko litzateke berdintasunezko harremanak edota harreman ez-bortitzak bizi izango bagenu betidanik? Hezkuntzan oso zabalduta dago balioak ikusiz transmititzen direla –"zer ikusi, hura ikasi"–, eta ez hitz eginez soilik.

### DENONTZAKO ETXEA, ESKOLA, HERRIA

Etxeko jabearen arabera antolatzen dena ez da denon etxea izango. Eskolako zuzendariaren, nagusiaren edo administrazioaren arabera antolatzen den eskola ez da denon eskola izango, baina irakasleek soilik antolatzen duten eskola ere ez; helduen arabera antolatzen den herria denon herria izango ez den modu berean.

Denona izateko, denon parte-hartzea izan behar du, denoi entzun behar zaigu, eta, bereziki, ahulenei. Inklusiboa izateko, aniztasuna behar du, bakoitzaren ezaugarriak errespetatu egin behar dira, eta denen oinarrizko beharrei erantzun behar zaie.

Azken urteotan, asko hitz egiten da eskola inklusiboaz. Eskola inklusiboa izateko, partaide bakoitzak bere gaitasunak eta ahalmenak garatzeko aukera izan behar du; giza ingurune eta ingurune material eta espazial egokiak eduki behar ditu. Ikasmaila bereko ikasle guztiei ikasgaiak eduki eta azterketa berak prestatzen dizkien eskolak zaila du inklusiboa izatea.

Ebaluazioak –"balioa eman", esanahi etimologikoan– ez du epaitzeko balio behar; ideiak hartzeko bitartekoa izan behar du, ikasleari laguntzeko asmoz. Horregatik, ikasle bakoitzak bere burua ebaluatzea izango da egokiena. Era horretan jokatu, ez da ikaslea ebaluatuko, baizik eta ikaslearekin ebaluatuko da; hark adieraziko baitu zer interesatzen zaion, zertan aurreratu duen, zer falta zaion, zertan behar duen laguntza, eta abar.

### DENONTZAKO HERRIA, DENONTZAKO HIZKUNTZA

Herria denontzat izateko herritar ahulena kontuan hartzea eta haiekin batera egitea beharrezkoa dela ikusten bada, hizkuntzen kontuan ere antzeko zerbait gertatzen dela aurreikus liteke. Izan ere, indar gutxiko hizkuntza ez bada babesten eta lehentasunezko hartzen, ezingo du bizirik iraun, eta galera hori munduko aberastasun kulturalaren aurka joango da. Beraz, euskara, Euskal Herriko hizkuntza gutxitua, babestuz, hizkuntza guztien alde egingo dugu.

Euskal Herriko hainbat eragilek partekatu duten *Herri hezitzailea, eskola herritarra* txostenak honela dio: "Euskara, berez, balio bat da bere baitan, edo izan liteke, balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia delako. Euskarak berak ekar lezakeelako gure ahoz eta gure praktikaz komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat. Areago, esan dezakegu euskararen biziberritzeak bide hori urratu behar duela, menderakuntza ez duelako garaituko, menderatuta dauden eremu guztiekin bat egiten ez badu".

## ETXEA, ESKOLA ETA HERRIA BATERA JOKATU BEHARRA

“Herri hezitzailea, eskola herritarra” ideiak badu aurrekari bat: etxea eta horren ingurunea.

Hezi familian egiten da, nagusiki. Baina etxeak bakarrik ezin du hezi. Zail da etxetik soilik erantzutea jendartean sortu diren beharrei. Bestalde, eskolak bakarrik ere ezin du hori egin. Praktikak hala erakutsi du: euskararen ezagutzaren eta erabileraren kasuan, etxeak eragin handiagoa du eskolak baino. Baina biak dira beharrezkoak; bietan eraginda lortzen dira emaitzarik hoberenak.

Horiez gain, behar-beharrezkoa da herriaren parte-hartzea ere. Herrian, herritarrekin, herriko zerbitzuetan eta txokoetan egiten dute bizitza ikasleek. Beraz, hiru horiek osatu behar-ko lituzkete heziketa-triangularen ertzak. Eta hobe litzateke, nola ez, laukia izango balitz, eta komunikabideek osatuko balute laugarren ertza. Edo, agian, pentagonoa balitz ere...

Euskararen transmisioan eta biziberritzean gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da gainerako balioen transmisioan ere: parte-hartzean, elkartasunean, lanerako jarreran, ardura hartzean, ezagutza eraikitzeke interesean, eta abarretan.

## CURRICULUMAREN ILDO NAGUSIAK

**-Herriko ondare kulturalaren transmisioa.** Bizi garen herria ongi ezagutzeak mundua ulertzen laguntzen du. Herri “txiki” horren gertaerak eta bizipenak modu dialogikoan eta kritikikoan landuz gero, ikuspegi kritikoa garatuko da pixkana. Herri “txikiaren” historian ongi garatu direnak eta oker egin direnak aztertuta, horiei buruz hausnartuta eta eztabaidatuta, eta aukera berriak irudikatuta, herriaren oraina eta geroa hobetzen arituko gara.

-Herri gisa, euskal nortasuna gorpuzten laguntzen duen herri “ertaina” da **Euskal Herria**. Pertsona, bizidun soziala den heinean, besteekin hezten da. Komunitatearen hizkuntzak eta kulturak bere identitatea gorpuzten laguntzen diote, ingurukoekin egiten baitoa. Horregatik, herri gisa, **herritarrekin eraikitako curriculuma izango da Euskal Herriarena**. Edukia bezain garrantzitsuak dira egiteko modua, parte-hartzea eta eztabaida kritikoa.

Horrela jokatzuz, herritar denei entzungo zaie, eta denak hartuko dira kontuan; kultura birsortuko da, eta herritarrak koheesionatuko dira. Izan ere, besteei entzutea eta besteak aintzat hartzea jarrera etikoa eta politikoa dela esan liteke.

-Garrantzitsua da **ikuspegi globala izatea** munduko herritar gisa, denon herri “handia” baita, hemengo erabakiak edonora zabal litezkeen garaian eta edonongo erabakiek hemen eragin dezaketenean. **Eta elkartasunezko jarrerak lantzea**, herri txikian eta ertainean egiten denak herri handian eragiten duela ohartzea, eta, teknologiak eragina izugarria duen garaiotan, **arduratsu jokatzek duen garrantziaz jabetzea**.

-Garrantzitsua da bakoitzak dituen gaitasunak eta ahalmenak garatzen laguntzea, **bizitzarako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko**. Egoera errealak aztertu eta landu behar dira,

eta hipotesiak egin, proposamenak prestatu eta jendarteari eskaini. Ezagutzeko prozesu hori lagungarri izan daiteke ikasketara eraikitzeke interesa izateko, ikertzaile bihurtzeko, sormena lantzeko eta egoera berriei eta konplexuei aurre egiteko.

Trebezia digitala lantzea beharrezkoa bada ere, **naturarekin errespetuzko harremanean bizitzea eta haren erritmoak aintzat hartzea** jendarte osasungarri baten oinarri dira. Izan ere, bizitza duin baten funtsa osasun fisikoa eta psikikoa dira.

## ORAIN ARTE EGINDAKO BIDEA

Arlo teorikoan asko aurreratu dela esan liteke oro har. Euskalduntze-prozesuan, ibilbide aktiboa eta dinamikoa egin da, hobetzeko asko geratzen bada ere. Berdintasun-irizpideak zabaldu dira pixkana; ikasketak esanguratsua izan behar duela onartzen ari gara; gure herriak bere hezkuntza propioa behar duela dioen ideia errotzen ari da; ikasketa kooperatiboaren eta elkarlanaren irizpideak hedatzen ari dira; eskolak bakarrik ezin duela eta etxearekin eta herriarekin elkarlanean aritu behar duela sentitzen dugu; nahiko sustraitua dago eskolak gertuko kudeaketa behar duela, eta ez urrutiko erabaki politikoen arabera.

## ORAINDIK FALTA DENA

Alde handia dago arlo teorikoan esaten edo hausnartzen denaren eta eguneroko praktikaren artean. Koherentzia hori lortzea, ausartak izatea eta berrikuntza pedagogikorako lantalde iraunkorrak eta jarraitutasuna izango dutenak gorpuztea falta da. Eskolak gertuko kudeaketa izatea (toki askotan bezala, udalen aukera litzateke egokia) eta denon parte-hartzea bermatzea eta demokratizatzea falta da, hau da, eskola-espazioak gardenago edo ikusgarriago egitea, hezitzaileen prestakuntza eta lana, eta herritarren esku-hartzea falta dira. Eta, Euskal Herriari dagokion curriculuma finkatzen laguntzeko, herri-mailako erabaki politikoa falta da nagusiki.

## ESTATUEN EGITASMOAK ETA PRAKTIKAK

Euskal Herriko hezkuntza arautzen duten bi estatuak goitik beherako egitura zentralista dute ezarria. Irizpide nagusiak berek ezartzen dituzte, eta guztia kontrolatu nahi dute, eskolen eta herrien esku ia erabakirik utzi gabe.

Eskola bizia, dinamikoa, parte-hartzailea, berritzailea, sortzailea, solidarioa, denona eta, batez ere, hezitzailea izan dadin nahi badugu, eskolak berak izan behar du protagonismoa, eta era guztietako erabakiak hartzeko ahalmena ere izan behar du. Bestela, boterearen objektu manipulagarri bihurtzeko arrisku errealak du.

Oraintxe bertan, Hego Euskal Herrian, LOMCE legearen aplikazioa da horren adibide argiena. Planteamendu zentralista eta kontrolpekoa izateaz gain, zeharo atzerakoa da, arlo pedagogikoan eta hezitzailean. Gaitasunen garapenean indarra jarri beharrean, ikasgaiei garrantzia ematen jarraitzen du. Aurreikusitako ebaluazioen eta kontrolen ondorioz, arlo askotan aspaldi gaundituta dauden pedagogia konduktistak indartuko ditu berriro. Aniztasunaren kontra jotzen du bete-betean, eta inklusioa eta bizikidetzak oztokatzen ditu. Amaitzeko, hizkuntza eta kultura gutxituei ez die inongo laguntzarik eskaintzen, kontrakoa baizik: itoazteko bidean jartzen ditu.

## AURRERA BEGIRA

Orain arte idatzitako ideiak ez errepikatzearen, esan dezakegu Euskal Herrian badagoela dagoeneko hainbat inizatiba eta egitasmo interesgarri, hezkuntza hobetzen lagun dezaketenak:

- Hezkuntza eragile askok landuta euskal curriculumaren gainean egin diren proposamenak.
- Euskararen Kontseiluak argitaratutako "Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen" egitasmoa.
- Euskal Herriko oinarrizko hezkuntza akordioa.
- Euskara, aisialdia, hezkuntza, eta beste hainbat eragilek egin duten "Herri hezitzaileak, eskola herritarra" txostena eta ekimena.
- Bilgune Feministak argitaratutako *Hezkidetzeta gida* eta Emakunde Lehen Hezkuntzan erabiltzeko sortutako "Nahiko" hezkidetzeta programak.
- Hezitzaileen prestakuntzarako metodo berriak.
- *Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCeri ez!* ekimena eta gida.



# jakingarriak

---

